

GIZARTE EKONOMIA ETA SOLIDARIOA UNIBERTSITATE MASTERRA
MÁSTER UNIVERSITARIO EN ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA



UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

Tokiko Garapen Agentziak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa: Tokiko Giza Garapenerako tresna eta euskarri

MASTER AMAIERAKO LANA

TRABAJO DE FIN DE MÁSTER

AUTOR: ANDONI ZULAIKA

CURSO: 2015-2016

DIRECTOR: ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI



AURKIBIDEA

0. Sarrera	1
1. Globalizazioa eta gobernantza eredia	3
1.1. Gobernantza globala	3
1.2. Gobernantza mailakatua eta deszentralizazioa	5
2. Tokiko Giza Garapena (TGG) eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS)	7
2.1. Tokiko Giza Garapenaren kontzeptualizazioa	7
2.1.1. Tokiko dimentsioa	8
2.1.2. Gaitasunen ikuspegia	9
2.1.2.1. Gaitasunen ikuspegiaren bilakaera	12
2.1.2.2. Gaitasun pertsonalak	13
2.1.2.3. Gaitasun kolektiboak	15
2.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren kontzeptualizazioa	17
2.3. Tokiko Giza Garapena eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa	21
2.3.1. Ekonomia konbentzionalaren printzipio eta ikuspegiari kritika eta paradigma aldaketaren beharra	21
2.3.2. Gaitasun zentralak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa	23
2.3.3. Gaitasun kolektiboak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa	27
3. Tokiko Garapen Agentziak (TGA)	31
3.1. Jatorria eta garapena	31
3.2. Tokiko Garapen Agentzien(TGA) ezaugarri nagusiak	32
3.2.1. Antolaketa eredia	32
3.2.2. Garapen estrategia	33
3.2.3. Ezaugarritze taula	37
4. Analisi enpirikoa	38
4.1. Metodologia	38
4.2. Analisi objektiboa: Analisisirako bi esperientzien aurkezpena	39
4.2.1. Beterri Garapen Integraleko Agentzia	39
4.2.1.1. Jatorria eta bilakaera	39
4.2.1.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioko lan lerroa	40
4.2.1.3. Ezaugarritze taula	42
4.2.2. <i>Agència de Desenvolupament del Berguedà</i>	43
4.2.2.1. Jatorria eta bilakaera	43
4.2.2.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioko lan lerroa	43
4.2.2.3. Ezaugarritze taula	45
4.3. Analisi subjektiboa: Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta Tokiko Garapen Agentzien gaitasuna Tokiko Giza Garapena sustatzeko. Bi esperientzia.	46
4.3.1. Elkarrizketa fitxa	46
4.3.2. Analisi subjektiboaren emaitzak	48
5. Ondorio nagusiak	50
6. Bibliografia	53
7. Eranskina: Elkarrizketa fitxa	55

0. Sarrera

Lan honetan aurrera eraman dugun ikerketak gaur egungo ekonomia, garapen eta gobernantza eredu zalantzatan jarri eta norbanako guztien ongizatea bermatuko duen ekonomi, garapen eta gobernantza eredu berritu baterako gakoak ematea bilatzen du. Horretarako, sektore pribatu eta publikoaren arteko aliantza beharrezko eta posible dela ikusarazi nahi izan dugu. Eraberritze honetan, hiru zutabe nagusiren gainean garatu da gure hipotesia: Tokiko Giza Garapena garapen eredu gisa, Ekonomia Sozial eta Solidarioa garapenerako euskarri edo jarraitu beharreko paradigma ekonomiko gisa eta euskarri ekonomiko hau oinarri duten Tokiko Garapen Agentziak sektore publikotik eragingo duten tresna instituzional gisa.

Helburuei dagokienez, helburu teorikoak eta helburu praktikoak bana ditzakegu. Garrantzitsua irudi zaigu, marko teorikoa osatzeko erabili ditugun proposamen teorikoak, analisi enpiriko batekin kontrastatzea. Helburu teorikoei dagokienez, lehen mailako helburu gisa hurrengoak ezarri ditugu: batetik, Tokiko Garapenaren gaineko kritika egin eta Tokiko Giza Garapenaren beharra arrazoitzea bilatu dugu; horrez gain, teorikoki arrazoitu nahi izan dugu Ekonomia Sozial eta Solidarioak, Tokiko Giza Garapena sustatzeko ahalmena duela eta Tokiko Garapen Agentziak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa Tokiko Giza Garapenera sustatzeko aliatu garrantzitsuak izan daitezkeela. Bigarren mailako helburu teorikoa, gaur egungo gobernantza globalaren porrota ikusirik, gobernantza eredu berritu baten beharra ikusarazi eta eredu berritu bat definitzeko gakoak ematea izan da. Helburu praktikoei dagokienez, lehen mailako helburu gisa marko teorikoan proposatutako hipotesi nagusiak baieztatzea bilatu dugu. Hau da, Tokiko Giza Garapena sustatzeko Ekonomia Sozial eta Solidarioak, euskarri gisa, eta paradigma ekonomiko hau oinarri duten Tokiko Garapen Agentziak, tresna gisa, duten gaitasuna neurtu nahi izan dugu. Era honetara marko teorikoan arrazoitutako hipotesian berretsi nahi izan gara. Horrez gain, bigarren mailako helburu praktiko gisa hurrengoak ezarri ditugu: Tokiko Garapen Agentziek bultzatzen dituzten Ekonomia Sozial eta Solidarioko egitasmoek, norbanako, proiektu edo agente ezberdinei eskaintzen dizkieten aukera eta mehatxuak ezagutu, eta egitasmoa hauek, eta agentziak oro har, dituzten indargune eta ahuleziak ezagutzea. Bestalde, analisi subjektiboak elkarrizketatutako agente ezberdinek Tokiko Giza Garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gainean duten ezagutza eta iritzia ere neurtu nahi izan dugu.

Lanaren egiturari dagokionez, hasteko, gaur egungo gobernantza eredu globalaren egoeraren gaineko analisi bat egin eta gobernantza eredu berrituaren diseinua nola eman beharko zen proposatu dugu. Behin gobernantza eredu berrituaren gaineko oinarrizko premisak definiturik, garapen ereduaren nolakotasuna definitzera pasa gara. Tokiko Garapenaren -egungo garapen eredu hegemonikoa- gaineko kritika eginez, Tokiko Giza Garapenaren beharra azaleratu eta garapen eredu integral honetan Ekonomia Sozial eta Solidarioak joka dezakeen papera aztertu dugu. Garapen ereduaren aldatetaz gain, eredu ekonomikoaren eraldaketa ezinbesteko dela ikusi dugu eta Tokiko Giza Garapena oinarritu beharko zen paradigma ekonomiko Ekonomia Sozial eta Solidarioa dela defendatu dugu. Lan honetan ikusi ahal izango dugunez paradigma sozioekonomiko alternatibo honek ekarpen esanguratsua egiten dio Tokiko Giza Garapenari,

norbanako ororen ahalduntzean lagunduz, beti ere, ongizatearen dimentsio kolektiboa kontuan izanez.

Tokiko Giza Garapenerako euskarria Ekonomia Sozial eta Solidarioa dela defendatu dugu, hala ere, hirugarren faktore bat sartzearen beharra ikusi dugu eraldaketarako proposamen honetan, Tokiko Garapen Agentziak. Gobernantza ereduaren gaineko hausnarketan, deszentralizazioaren eta garapen endogenoaren beharra azaleratu da. Horregatik, Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako programak dituzten agentziak proposatu ditugu Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna instituzional gisa. Tokiko Garapen Agentziak, Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako ehun sozioekonomiko berri baten ernamuin izan daitezke, Tokiko Giza Garapena erdigunean jarriz. Hau da, Tokiko Garapen Agentziak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa Tokiko Giza Garapena sustatzeko aliatu garrantzitsuak izan daitezkeela da gure hipotesia.

Metodologikoki hiru metodo erabili ditugu: marko teorikoaren berrikuspena eta analisi enpirikoa osatzeko balio izan diguten Tokiko Garapen Agentziak aztertzeko erabilitako *ezaugarritze taula* eta analisi subjektiborako erabili dugun *elkarrizketa fitxa*. Teorikoki proposatu eta defendatu dugun honetan berresteko analisi enpiriko bat gauzatzea beharrezko ikusi dugu. Garrantzitsua iruditu zaigu teoria errealitatearekin kontrastatzea. Errealitatearen azterketa honetarako, Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako programak dituzten bi Tokiko Garapen Agentzia hartu ditugu aztergai eta analisi enpirikoa bi ataletan banatu dugu - analisi subjektiboa eta analisi objektiboa- . Analisi objektiborako esperientzia bakoitzaren *ezaugarritze taula* osatu dugu agentziek beraiek emandako informazioaren bitartez. Analisi subjektiboan ostera, esperientzia bakoitzeko hiru agente ezberdin elkarrizketatu ditugu, era horretan, ikuspegi ezberdinetatik analisi osatuago bat lortzeko. Analisi enpiriko honek asko lagundu digu Tokiko Giza Garapenerako proposatu ditugun euskarri -Ekonomia Sozial eta Solidarioa- eta tresnaren -Tokiko Garapen Agentziak- benetako gaitasuna ezagutzeko eta gure hipotesian berresteko.

1. GLOBALIZAZIOA ETA GOBERNANTZA EREDUA

Globalizazio neoliberalak, kapitalismoaren akumulazio fase berriaren izen abizenak dira. Pakto keynesiar sozialdemokrata apurtu zenetik, ekonomiaren prozesu globalizatzaileak, enpresa multinazionalen boterearen hazkundak eta gobernantza globalerako Bretton Woodsetik irtendako nazioz gaindiko instituzioen ahultasunak ekarri gaitu egungo egiturazko krisian murgiltzera. Horregatik, garapen ereduaz eta instituzio publikoek dituzten tresna konkretuez-Tokiko Garapen Agentziak kasu honetan- hitz egiten hasi aurretik garrantzitsua iruditu zaigu gobernantza globalaren eta gobernantza maila ezberdinen egoera ezagutzea egungo testuinguruan sozioekonomiko eta politikoan. Azterketa honetatik, Tokiko Giza Garapena gauzatzeko beharrezko izango zen gobernantza ereduaren nolakotasunaren ideia bat edo gako nagusiak ateratzea da asmoa.

1.1. GOBERNANTZA GLOBALA

Gobernantza globala, mundu mailako gai politiko, ekonomiko eta sozialak kudeatzea helburu izanik, komunitate internazionalak eta agente pribatuak ezarritako lege eta instituzioen sistema da. Gobernantza global egoki batek askatasuna, giza segurtasuna, dibertsitatea, berdintasuna, elkartasuna eta pobrezia eta giza bazterketaren aurka bezalako baloreak bultzatu beharko lituzke. Horrez gain, hurrengoak bermatzeko ardura ere izango luke: Giza Eskubideen eta nazioarteko arauen errespetua; demokrazia eta parte hartzea; estatuen arteko kooperazioa; aktibitate enpresariala indartzea; erantzukizun, efikazia eta subsidiarotasun printzipioak errespetatzea (Comisión mundial, 2004).

Gaur eguneko egiturazko krisiaren jatorria, hein handi batean, egungo gobernantza globalaren kudeaketa ezegokiaren ondorio dela esan dezakegu. II. Mundu Gerra ostean, gobernantza globalari dagokionez izugarritzko krisi instituzionala bizi izan zen, eta merkatuek eta enpresa multinazionalak bete zuten instituzioek utzitako hutsunea. Egoera honi irtenbide emate aldera, Nazio Batuen Erakundea (NBE) sortu zen 1944ean eta 1945ean erakunde honek antolatutako Bretton Woods-eko konbentziotik irten ziren gobernantza ekonomiko globalaz arduratuko ziren organismo nagusiak, Nazioarteko Diru Funtsa (NDF) eta Munduko Bankua(MB).

Hala ere, gobernantza globalerako sortutako instituzioek ez dute izan gaitasunik enpresa multinazionalen boterea geldiarazteko, alderantzikoa egin dutela esan dezakegu, beraien interesak defendatu. Maila globalean alor sozioekonomikoan egondako erregulazioaren garapen ahulak eta politika ekonomikoen gabeziak izugarritzko ondorio sozial, ekologiko eta ekonomikoak izan ditu (Zurbano, Gainza eta Bidaurratzaga, 2014).

Merkatu global eta agente pribatuen nagusitasunaren ondorioz, nazioz gaindiko instituzioek eta estatuek ekonomian eta politikan eragiteko ahalmena nabarmen galdu dute. Gainera gizarte zibilak ez du asmatu egoera iraultzeko herri sektore desberdinen artikulazioa ematen eta horren ondorioak pairatzen ari gara. Mundu mailako erronka nagusia enpresa multinazionalen botere

globalaren eta bere interes hegemonikoen aurka egitea da (Zurbano, Gainza eta Bidaurratzaga, 2014).

Gobernantza globalaren definizioan azaltzen diren oinarriko baloreak bat datoz Tokiko Giza Garapenaren ikuspuntuak bilatzen duen gaitasun pertsonal eta kolektiboen garapenarekin. Hala ere, gaur eguneko gobernantza globalak ez du baldintzarik eskaintzen balore hauek maila globalean bermatzeko eta sustatzeko.

Gobernantza globala maila makro batean beharrezkoa dela kontuan harturik eta egungo gobernantza sistemak funtzionatzen ez duela ikusirik, garrantzitsua dela uste dugu egungo egoera irauliko duen gobernantza eredu berri baten diseinuaren gainean hausnartzea eta proposamenak egitea.

Mesaren (2012) ustetan, beharrezkoa da gobernantza globalaren nolakotasuna modu demokratiko multilateral batean birdefinitzea gaur eguneko hutsunea gainditze aldera. Prozesu multilateral honen oinarriko premisa, gobernantza maila ezberdinen existentzia onartzea izan beharko litzateke. Hau da, erregulazio marko geografiko desberdinen - lokal, probintzial, nazional, kontinental eta mundiala- aitortza egin eta egungo problematiken erantzunak hurbileneko mailatik ematea -subsidiarotasun printzipioa-. Horrez gain, parte hartze eta aitortza espazio berriak zabaltzea ere ezinbestekoa ikusten du. Bizikidetzan eta giza garapenean zer esana izan dezaketen komunitate politikoak eta agente ez estatalak (NGE, herri mugimendu eta mugimendu sozialak) prozesu multilateral honetan ezinbestekoak izango dira (Mesa, 2012).

Mesak (2012) gobernantza eredu berriaren diseinurako ideia batzuk ematen dizkigu, baina, krisi instituzional hau gainditze aldera, bi ikuspuntu edo joera nagusi daude. Alde batetik, akordio instituzional multilateral formalaren bidea dago egungo marko legalaren - Nazio Batuen Erakundeko (NBE) sistemaren barnean dauden Bretton Woods-eko instituzioak eta Mundu Merkataritza Erakundea (MME)- barnean. Hau da, instituzio hauen birdefinizio funtzional bat da proposatzen dena. Ez da sakoneko analisirik eta aldaketarik egiteko asmorik erakusten, orain arte organismo hauek edukitako gabezi funtzionala, defizit demokratikoa eta emaitza txarrak ikusita ere. Ondorioz, ikuspuntu hau oso kritikatu izan da. Beste aldetik, artikulazio ez formalaren bitartez gobernantza globala definitzearen bidea defendatzen dutenen ikuspegia dugu. Formatu ez instituzionalei eta sare transnazional ez formalen garrantziaz hitz egiten da eta estatuek pisu handiagoa izan beharko luketela (Zurbano, Gainza eta Bidaurratzaga, 2014). Ikuspegi honetatik abiatuta bide onean doazen esperientzia berriak aurki ditzakegu. Esaterako, enpresa transnazionalen kontrolerako "Herrien Nazioarteko Ituna"¹.

Orain arteko instituzio internazionalak gobernantza globalean izan dituzten gabezi estruktural eta funtzionalak ikusirik, guri gehien interesatzen zaiguna bigarren bidea dela uste dugu.

¹ Herrien Nazioarteko Ituna: Enpresa transnazionalen estatuetako eta nazioarteko ekoizpen normatiboa zuzenean eta zeharka baldintzatzen duten agente indartsu izatera pasa diren honetan eta zuzenbide korporatibo Global berria (*lex mercatoria* deitutakoa) osatzen duten arau, hitzarmen, itun eta akordio ugariren bitartez babesten dituzten bitartean, ez dago transnazionalen boterea mugatu eta gizartean, lanean, kulturaren eta ingurunean duen eragina kontrolatuko duen kontrol mekanismo eraginkorrik. Egoera hau iraultzeko, *Herrien Nazioarteko Ituna* enpresa multinazionalen kontrola mugatzeko proposamen alternatibo gisa aurkeztzen da.

Beharrezkoa da botere erregulatzailerik legitimizazio politiko (nazional) eta sozialik ez duen orain arteko teknokrazia autonomoari kendu eta beste esparru batzuetara delegatzea.

Rodrikek dionez Giza Eskubideen ikuspuntutik beharrezkoa da lege komunean, komunitate politiko transnacionalean eta erantzukizun mekanismo berrietan oinarritutako "gorputz politiko global" (*cuero politico global*) bat artikulatzea (Rodrik, 2011). Lehen aipatutako adibidea, "Herrien Nazioarteko Ituna", bide hori garatzen ari dela esan dezakegu.

Esparru berriez eta espazio hauen artikulazioaz hitz egiten hasita, ezinbesteko iruditu zaigu gobernantza globalaren dimentsio eskalarra edo mailakatua onartzea eta aztertzea. Horregatik, hurrengo atalean gobernantza maila ezberdinen inguruan hausnartu eta proposamenak egingo ditugu.

1.2. GOBERNANTZA MAILAKATUA ETA DESZENTRALIZAZIOA

Gobernantza globalaren eraikuntza berriak esan bezala, gobernantza maila ezberdinen aitortza izan behar du oinarritzeko premisa gisa. Hala ere, prozesu honetan ezin da formula zehatz bat diseinatu. Gobernantza maila desberdinen - lokal, probintzial, nazional, kontinental eta mundiala- funtzioak eta erregulazio ahalmenak etengabe doaz aldatzen eta berrantolatzen akumulazio fase desberdin bakoitzeko.

Estatua izan da historikoki prozesu ekonomiko eta sozialen definiziorako limite territorial garrantzitsua. Kapitalismoaren fase desberdinetan eraldaketa sozioekonomiko garrantzitsuenak marko estatalean eman dira. Estatua zen beste herrialdeekin espazioa mugatzen zuena eta prozesu edo eraldaketa hauen erregulatzailerik zena. Hala ere, honek ez du esan nahi ordea nazioarteko transakziorik ez zegoenik. Hainbat alorretan ekonomia globala irekiagoa eta integratua zegoen 1870 eta 1914 urte artean (Hirst Y Thompson, 1996). Hala ere, erreferentziarako markoa estatua zen eta berau zen herrialde baten bizitza ekonomiko eta sozialaren antolaketaz arduratzen zena (Unceta, 2003).

Azken hamarkadetan, ekonomiaren globalizazio prozesu azkarra bizi izan dugu eta prozesu ekonomiko eta sozialak erregulatzeko eskumena ere globalizatu egin da. Estatuek paper politiko bat mantentzen badute ere, oso mugatuak daude esparru ekonomikoan eragiteko.

Nazioarteko kapital handien mugimenduek, produkzio kate globalek eta lan merkatu globalizatuak enpresa transnacionalei ematen die boterea, eta nahiz eta erregulazioak estatalak izan, enpresa hauek aukera dute nahi duten erregulazioa aukeratzeko. Ondorioz, herrialde desberdinetako erregulazioetan eragiten du transnacionalen botereak eta influentziak.

Bestalde, ezin dugu ahaztu azken urteetan ematen ari diren nazioz gairako espazio ekonomiko berrien sorrerak. Area ekonomiko berriak ari dira sortzen nazioen mugak gaindituz eta aliantza multilateralak egikaritzuz. Hor dugu Europar Batasunaren kasua. Ondasun, pertsona eta kapitalen zirkulazio librea, moneta komuna, instituzionalizazio maila altua eta politika komunak ditu.

Gainera, azken urteetan nazioz gairako espazio berri hauen sorreratik haratago bloke edo area ekonomiko ezberdinen bateratzea helburu duten akordio desberdinak (TTIP, CETA, TISA,

NAFTA...) ari dira diseinatzen eta adosten. Bloke ekonomiko hauek bateratzearen helburua, globalizazio ekonomiko eta sozialaren prozesua indartzea da. Area ezberdinetako merkatuen homogenizazioa bilatzen da enpresa multinazionalen onura argia eginez. Homogenizazio prozesu honetan gainera, estatuek ez dute zer esanik izango, herrien subiranotasunaren galera nabarmena jasango da.

Berrantolaketa sozioekonomiko, politiko eta instituzional honetan joera espazio eta instituzio internazionalen geroz eta pisu gehiago hartzea da. Harveyk (1989a) dioen bezala, kapitalismoak jarraitzeko muga geografiko oro suntsitzea bultzatuko du, horrela, enpresa transnazionalen akumulazio prozesurako lehengai eta langile merkeagoak eta inbertsiorako merkatu berriak izango dituzte (Harvey, 1989a).

Hala ere, ekonomia mundiala ez da guztiz homogeneoa, argi izan behar dugu akumulazio prozesua espazio sozial determinatu -nazio, probintzia edo hiri- batean ematen dela eta espazio bakoitzak bere ezaugarri konkretuak dituela. Espazio geografiko bakoitzeko baldintzek definitzen dute nola emango den akumulazio prozesua eremu horretan, era berean, akumulazio prozesuak ere birdefinitzen du espazio geografikoaren egituraketa eta antolaketa soziala. Kapitalak egituraketa sozio-espazial finkoak (zonalde urbanizatuak, zonalde industrializatuak, banaketa eta kontsumo sareak, instituzio erregulatuak...) behar ditu bere hedapenerako eta akumulazio prozesua egikaritzako. Etengabeko harreman dialektiko bat dago lokalaren eta globalaren artean (Gainza, 2009).

Harreman dialektiko honetan, joera globalizatzaileak indar gehiago badu ere beharrezkoa dela uste dugu espazio lokalaren eta gobernantza lokalaren berrindartze bat bultzatzea. Gobernantza global multilateral informal indartsu nahi badugu ezinbestekoa premisa izango da tokian tokiko gobernantza eredu garatuak izatea eta Tokiko Giza Garapenak zentralitate hartzea. Subsidiarotasun printzipioa eta gobernantza mailakatuak dira gako nagusiak. Gobernantza globalaren diseinua tokian tokiko indar ekonomiko eta sozialen interes eta beharrei egokitu behar zaie. Komunitate lokalak orduan eta ahalduko eta indartsuago egon, orduan eta baldintza hobetoak egongo dira giza garapenaren ikuspegitik gaitasun pertsonal eta kolektiboak hobetzeko. Balantza maila lokalaren alde dagoenean soilik egongo dira baldintzak gobernantza globalak bultzatu beharreko balore eta printzipioak bultzatzeko.

Planteamendu hau ez da teorikoa soilik ordea, espazio lokalaren birbalorazio edo berrindartze hau ematen ari da dagoeneko hainbat estaturen barnean. Estatu desberdinen barnean dauden hainbat komunitate edo nazio desberdinetako herritarrak deszentralizazio prozesuak ari dira bultzatzen gobernu zentralarekiko. Mugimendu deszentralizatzaileen helburua nagusiki subiranotasuna eta autonomia irabaztea da, eta askotan, talka politikoak sortzen dira gobernu zentralarekiko. Beste mugimendu batzuek ordea, pausu bat haratago joan eta gobernu zentralarekin haustura ere proposatzen dute. Hor ditugu Euskal Herria, Eskozia, Katalunia ... eta beste hainbat adibide Europar Batasunaren barnean. Europako estatu desberdinetako gobernu zentralak globalizazio eta botere zentralizazio prozesua bultzatzen duten bitartean, estrategia deszentralizatzaileek gero eta legitimizazio gehiago irabazten dute. Deszentralizazio prozesu instituzional eta administratiboak gobernantza lokala hauspotzen dute termino politikoetan, komunitatearen identitatea eta bere autogestio ahalmena indartuz.

Esan genezake, behetik gorako logika bat jarraitzen duen gobernantza mailakatu izango litzatekeela formula egokiena. Beste era batera esanda, gobernantza globalaren maila ezberdinen arteko artikulazioa gobernantza lokalean -subsidiaritasun printzipioa- egon beharko zen oinarritua. Gobernantza lokala agente sozial, instituzional eta ekonomikoen parte hartze aktiboan oinarritu beharko da eta geroz eta ahalduago egon eraginkorragoa izango da bai maila mikro bai makroan. Oinarritik indartuko dira gaitasun pertsonal eta kolektiboak baina horretarako tokian tokiko komunitateak tresnak sortu beharko ditu (Zurbano, Gainza eta Bidaurratzaga, 2014).

Subsidiaritasun printzipioak, gobernantzarik egokiena eta eraginkorrena maila territorial hurbilenekoa dela esaten du eta espazio horretatik gora dauden marko instituzionalek soilik espazio territorial horretan egikaritu ezin diren zereginen ardura hartu behar dutela. Honek ez du esan nahi arazo guztien emaitzak maila geografiko hurbilenean emango direnik egokien, baina bai erantzuna emateko eskumenaren preferentzia maila baxuenak izan behar duela (Kazepov,2010).

2. TOKIKO GIZA GARAPENA(TGG) ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA(ESS)

2.1. TOKIKO GIZA GARAPENAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

Aurreko atalean, gobernantza globalaren gaur egungo erronkez aritu gara eta argi geratu da behetik gorako gobernantza mailakatu eta deszentralizatu dela garatu beharreko gobernantza eredu ideala.

Behin, Tokiko Giza Garapena bultzatzeko beharrezkoa izango zen gobernantza ereduaren gainean hausnartuta, garapen eredu bera definitzen saiatuko gara. Tokiko Giza Garapena bi erreferentzia teorikotan dago oinarritua, tokiko dimentsioa eta gaitasunen ikuspegia. Tokiko dimentsioa, territorialitatean zentratzen da, hau da, garapena estrategia aurrera eramango den espazioaren definizioan eta ezaugarritzean. Gaitasunen ikuspegia, giza garapenaren proposamena osatzen laguntzen duen ekarpen teoriko garrantzitsuenetako da. Esan dezakegu, Tokiko Giza Garapenean esparru sozialean jarraitu beharreko erreferentzia dela.

Hurrengo orrialdeetan azalduko ditugun bi erreferentzia teoriko hauek dira Tokiko Giza Garapenaren eredu osatzen laguntzen duten bi zutabe nagusiak.

2.1.1. Tokiko dimentsioa

Tokiko dimentsioak lanaren 1.2 atalean aipatutako subsidiariorotasun printzipioa duela oinarri esan dezakegu eta tokiko dimentsioaz hitz egitean auzo, herri, hiri edota eskualdeetako maila territorialaz ari gara, ez maila probintzial edo erregionalaz (Autonomi Erkidegoa gure kasuan). Giza garapena oinarri duten aldaketa-prozesuak aztertzeko tokiko dimentsioak emaitzak adierazgarriagoak lortzeko erraztasunak emango dizkigu. Behin, tokiko dimentsioa garapen estrategia aurrera eramateko territorio edo espazio gisa definiturik, garapen ereduaz hitz egitea tokatzen zaigu.

Ezinbestekoa da argi ustea Tokiko Garapena eta Tokiko Giza Garapena garapen eredu ezberdinak direla, nahiz eta oinarri batzuk elkarbanatu. Tokiko Garapenaren ikuspegiak, garapen dimentsio ikuspegi anitzak barneratzen baditu ere, oinarri material produktiboan zentratzen da soilik. Hau da, Tokiko Garapenaren ikuspegiak garapen ekonomikoa du ardatz. Gainera, garapenaren neurgailu gisa Barne Produktu Gordina (BPG) eta utilitatea bezalako neurgailuak hartzen ditu hizpide eta giza garapena, esaterako, ez da kontuan hartzen.

Tokiko Giza Garapenaren gaineko hainbat ikuspegi badaude ere, ekonomia kapitalistaren logika globalizatzailearekin moztu duten ikuspegi kritikoak hartuko ditugu gure lana elikatzeko.

Tokiko Giza Garapena bultzatzeko politika eraginkorrak aurrera eramateko hainbat autorek hurrengo irizpideak proposatzen dituzte (Rodriguez, Bernal eta Cuervo,2012):

- Integraltasuna: Ikuspegi integrala izatea, esparru desberdinetatik(soziala,ekonomikoa, kulturala...) aldi berean ekarpena egitea.
- Malgutasuna: Estrategia integrala hainbat esparrutatik elikatuko den heinean eta garapen esperientzia bakoitzak bere bidea izango duenez, osagai edota praktika desberdinak uztartzen asmatu beharko da.
- Deszentralizazioa: Subsidiariorotasun printzipio izan behar da oinarri, beti ere, gobernantza maila goragokoen baldintzatasuna kontuan hartuz.
- Aniztasuna: testuinguru historiko, sozial eta instituzional desberdinetara egokitzeko eta agente desberdinen artean harremantzeko gaitasuna izan.
- Ekintza kolektiboa: agente desberdinen koordinaziorako eta talde-lanerako gaitasun kolektiboak edo trebetasun sozialak funtsezkoak izango dira.
- Jasangarritasuna: TGGaren strategiaren emaitzak jasotzeko hamarkada bat edo bi pasa beharko dira. Epe motzean emaitza onak lor daitezke, baina strategiaren jarraikortasun jasangarria bilatu behar da eta bere epe ertain- luzeko izaera kontuan izan strategiaren diseinuan.

Aurreko irizpideekin bat eginez, ikuspegi kritiko desberdinek elkarbanatzen duten oinarrizko premisak bi dira Duboisen (2014) ustetan. Batetik, ikuspegi integralaren beharra. Ekonomia tradizionalak proposatzen duen ikuspegi ekonomikotik haratagoko dimentsioak (soziala, politikoa, kultural, ekologikoa...) ere kontuan hartu behar dira, garapen ekonomikotik haratago doan eredu bat. Beste aldetik, garapen endogenoaren premisa gehitzen du. Hau da, tokian

tokiko agente eta baliabideei ematea zentralitatea eta beraien esku ustea beraien esparru geografikoaren garapena (Dubois,2014).

Garapen endogenoa

Garapen endogenoa izateko ezinbestekoa da tokitik bertatik irtetea bere garapen estrategiaren proposamena, ezin du eremu geografiko horretatik kanpo dagoen agente batek diseinatu Tokiko Giza Garapeneko estrategia. Nor den edo zer den lurraldekoa edo tokikoa definitzea garrantzitsua da, zalantzarik ezin baita egon afera honetan. Definizioz, hurrengoa da "tokikoa": *Tokiko lurraldea bizipenezko produktu historiko, kultural eta soziala izango da, eta bere morfologia zein adierazpideak gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko elkarreagin guztien emaitza izango dira.* Aurretik aipatu dugun bezala, kasu honetan tokiko dimentsioaz hitz egiten ari garenean auzo, herri, hiri edota eskualdeez ari gara, ez maila probintzial edo erregionalez (Autonomi Erkidegoak gure kasuan). Gainera, tokian tokiko dinamika endogenoak garatzeko eraketa politiko eta sozialerako eremua ere izango da lurraldea edo tokiko dimentsioa (Dubois,2014). Aurreko atalean hausnartu dugun gobernantza ereduarekin lotura zuzena du honek.

Garapen estrategia tokiko agente ezberdinek diseinatutako proiektu politiko komunitario konplexu eta anitza izan behar da. Endogenotasuna ordea, ezin da modu hermetiko batean ulertu. Jakina da munduko ekonomiaren joera nagusiek eta gobernantza lokalaren goitik dauden instituzioen erabakiek nabarmen mugatzen eta eragiten dutela Tokiko Giza Garapenaren strategiaren diseinuan eta eboluzioan. Horregatik, ezinbestekoa izango da lurraldea gobernantza maila ezberdinekin eta lurraldetik kanpo dauden agente politiko, sozial eta ekonomikorekin harremantzea. Kontuan hartu beharko dugu goragoko gobernantza mailek duten botereak suposatzen duen baldintzapena. Gakoa baldintzapenaren eta subsidiariorotasun printzipioaren² arteko etengabeko harreman dialektikoan dago. Helburua talka honetan, Tokiko Giza Garapenarentzat goragoko mailetatik datozen baldintzapenak murriztu eta subsidiariorotasun printzipio gailentzea izan behar da (Dubois,2014).

2.1.2. Gaitasunen ikuspegia

Tokiko Giza Garapenaren proposamena definitzeko, tokiko dimentsioaren erreferentzia teorikoaz gain, gaitasunen ikuspegia daukagu. Tokiko garapenaren proposamenari gaitasunen ikuspegia txertatzea funtsezkoa da, izan ere, hazkunde ekonomikoak modu zuzenean ez du garapena sortzen, giza garapena ez behintzat. Gehiago esan dezakegu, tokiko garapeneko proposamen desberdinek hazkunde ekonomikoaren paradigma izan dute ardatz eta garapen eredu honek izugarritzko kostu sozial eta ekologikoak sortu ditu. Gaitasunen ikuspegiak, giza garapena jartzen du zentroan eta ez hazkunde ekonomiko hutsa. Tokiko Giza Garapenak pertsonen garapena izan behar du helburu eta ez gizakiak medio gisa erabili ustezko "garapena"

² Subsidiariorotasun printzipioa: tokian tokiko problematika konkretuei aurre egiteko, tokiko edo hurbileneko gobernantza maila da eraginkorrena.

lortzeko. Giza garapena beraz, gaitasunen ikuspegia oinarri izanik, gizakiaren bizi kalitatea eta oinarrizko justizia soziala neurtzen dituen garapen eredua da (Jubeto eta Larrañaga, 2013).

Giza garapena eta gaitasunen ikuspegia sinonimo bezala erabili izan dira maiz, baina argitu beharra dago ez direla gauza bera. Giza garapena, gaitasunen ikuspegia barneratzen duen garapen eredu proposamen bat da, eta nahiz eta ikuspegia hau zentrala izan garapen eredu honetan, beste hainbat ekarpen teorikotatik ere elikatzen da (Dubois, 2008).

Tokiko Giza Garapena beraz, tokiko dimentsioa - territoria (tokikoa) eta garapen endogenoa- eta gaitasunen ikuspegia -giza garapena- oinarri dituen garapen eredua da. Hala ere, gaitasunen ikuspegiaren sakontzen jarraituko dugu, izan ere, oso garrantzitsua da gaitasunen ikuspegiaren beharra ezagutu eta bere bilakaera ulertzea.

Amartya Senek (1990) proposatutako gaitasunen ikuspegiak PNUDe³ bultzatutako giza garapenaren oinarri teorikoa finkatzen du. Hala ere, 1990ean Giza Garapenaren lehen informea atara zenetik, giza garapenaren gainean asko idatzi da eta aurrerapen asko eman dira esparru teoriko eta politikoa. Proposamen honek, hazkunde ekonomikoa oinarri duen garapenaren eredu konbentzionala gainditu nahi du eta garapenaren eredu alternatibo bilakatu (Dubois, 2008). Ikuspegi hau sortu zenetik, azken urteetan Mahbub ul Haq, Amartya Sen eta Martha Nussbaum izan dira, hein handi batean, kontzeptu honen teorizazioaren oinarriak definitu dituztenak. Marko teorikoa, Martha Nussbaum hartuko dugu ardatz, nahiz eta, beste autoreak ere aipatuko ditugun, euren artean Ingrid Robeyns, Senen dizipulu ezagunenetakoa (Jubeto eta Larrañaga, 2013).

Gaitasunak, edo funtsezko askatasunak⁴ -Senek (1990) definitzen dituen moduan- aukeren multzo bat (elkar-harremanetan normalean) dira eta zuzenean lotuak daude eskubideen ikuspegiarekin - pertsona bakoitzak zer nolako bizitza izan nahi duen aukeratzeko eskubidea du. Aukeren multzo hau izateko, beharrezkoa da pertsonen gaitasunak garatzea, horrela, pertsona bakoitzak bere bizi ikuskera pertsonaletik bere bizitza antolatzeke gaitasuna edo askatasuna izango du (Nussbaum, 2012; Nussbaum, 2002).

Laburpen bat eginez, orokorrean oinarrizko gaitasun gisa hartzen direnak - bizi luze eta osasuntsua bat bizitzea, kalitatezko hezkuntzara sarrera, komunitatean parte hartzeko errekurtsioak izatea etab. - oso garrantzitsuak dira, izan ere, gaitasun hauek gabe aurretik aipatutako aukeren multzoa nabarmen mugatzen da. Hala ere, giza garapena gaitasun hauetatik haratago doa eta bizitza kalitatea bermatzeko beste esfera batzuk ere hartzen ditu kontuan. Giza-eskubideak, giza segurtasuna, bizitzaren eta planetaren zaintza - beste batzuen artean- funtsezko bermeak izan behar dira pertsona oso bat eraikitzeke komunitate baten barnean. Giza garapena, gizakien, gizakientzako eta gizakiarentzako garapena da (Jubeto eta Larrañaga, 2013).

³ PNUD (Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo) : Nazio Batuen Garapenerako programa da. 1965ean sortu zen eta bere funtzioa nagusia Nazio Batuen Erakundearen barnean dauden herrialdeetako norbanakoen bizi kalitatea hobetzea da. 1990etik Giza Garapenaren inguruko informea ateratzen ditu.

⁴ Funtsezko askatasunak: "Askatasun instrumentala" (*Libertades instrumentales*) bezala ere definitzen ditu Senek. Funtsezko askatasun hauek, gaitasun zentralak indartzen laguntzen dute eta politika publikoen bitartez sustatu daitezke. Bost askatasun mota definitzen ditu: a) Askatasun politikoa, b) Erraztasun ekonomikoak, c) Aukera sozialak, d) Gardentasun bermea, e) Segurtasun sarea.

Pertsona oso bat eraikitzeko beharrezko gaitasunak garatze aldera, Senek gizakiaren "agentzia"⁵ terminoa erabiltzen du, gaitasunen ikuspegia dago zentroan eta askatasunarekin lotzen du zuzenean. Kontzeptu hau, oso lotua dago Hegoaldeko mugimendu feministetatik proposatzen eta bultzatzen duten ahalduntze estrategiarekin (*estrategia de empoderamiento*). Ahalduntze estrategiak, genero asimetria indartzen eta birproduzitzen duten botere egitura -legeak, jabetza eskubidea eta instituzioak- oro eraldatu nahi du. Ahaldundu gabe daudenak ahalduntzeko edo boterea eskuratzeko prozesu (izateko eta espresatzeko gaitasun gisa ulertuz boterea) bezala ulertu behar dugu.

Genero ikuspegia funtsezkoa da gaitasunen ikuspegia lantzerako orduan, bi arrazoirengatik. Alde batetik, zalantza ezina da genero asimetriak duen garrantzia, ezin da ukatu hainbat eremu geografikotan konkretuki ,eta baita mundu osoan ere, desoreka eta zapalkuntza nabarmen bat dagoela. Gainera genero asimetriaren asimilazio honek arazo bat suposatzen du garapen klabetan, izan ere, emakumeei aukerak sistematikoki ukatzeak herrialde askoren garapena oztopatzen du. Beste aldetik, genero ikuspegiak gaur egungo garapenaren ikuspegi konbentzionalaren gabeziak nabarian usteko balio duelako eta gaitasunen ikuspegiaren egokitasuna baieztatzen laguntzen duelako (Nussbaum, 2012).

Gaitasunen ikuspegia zenbait berria den heinean, etengabe ari da elikatzen korrante eta autore desberdinen eskutik. Jonathan Wolff eta Avner De-Shalit autoreek politika publikoen eta gaitasunen garapenaren gainean egindako ekarpen berriak esaterako aipatzekoak dira. "Gaitasunen segurtasuna" kontzeptua proposatzen dute eta politika publikoek gaitasun pertsonalen garapenean izan beharreko papera definitzen du. Ikuspegi honek dio politika publikoak ez direla mugatu behar gaitasunak pertsonen proportzionatzera, etorkizunean gaitasun horrek izateko erraztasunak eman behar dizkiela baino. "Gaitasunen segurtasuna" kontzeptuak aztergai jarri nahi du, zein puntutara arte gelditzen diren gaitasunak babestuen merkatuko interesen eta interes politikoen aurrean (Wolff eta De-Shalit ,2007; Nussbaum, 2012). Hau da, zalantza honek, zer nolako antolaketa politiko-instituzionala edo gobernantza eredu behar dugun hausnartzera eramaten gaitu berriro ere eta uste dugu subsidiarioritasun printzipioa eta garapen endogenoa oinarri dituen behetik gorako gobernantza eredu mailakatu eta deszentralizatu dela jarraitu beharreko bidea gaitasunak bermatze aldera.

Bi autore hauek beste bi kontzeptu -"funtzionamendu emankorra"(*funcionamiento fértil*) eta "desabantaila korrosiboa"(*desventaja corrosivoa*)- ere proposatzen dituzte gaitasunen elkar-harremanaren gainean hausnartzeko. Funtzionamendu emankorra duen gaitasuna edo praktika, beste gaitasun batzuk indartzen lagun dezakeena izango da. Esaterako hezkuntza, argi dago hezkuntzak beste gaitasun batzuk potentzializatzen laguntzen duela. Desabantaila korrosiboa ordea, alderantzizkoa izango zen. Adibide argi bat jartzearren, emakumeen aurkako biolentzia emakume guztientzat desabantaila korrosibo bat da, hainbat gaitasun garatzen usten ez duena. Bi kontzeptu hauek hausnarketan zehar mahai gainean izatea interesgarria izan daiteke politika publikoak diseinatzeari begira (Nussbaum, 2012).

⁵ Agentzia: norbanakoek beraien helburu edo baloreak modu aske eta autonomo batean lortzeko duten ahalmena da. (Sen, 1985)

2.1.2.1. Gaitasunen ikuspegiaren bilakaera

Aurretik esan bezala, gaitasunen ikuspegiak, Senek 1990ean egindako lehen definiziotik gaur egunera arte ekarpen esanguratsuak jaso ditu ikuspegiaren bilakaera ezagutzea ere garrantzitsua iruditu zaigu. Hainbat izan dira gaitasunen ikuspegiaren gainean egindako ekarpenak, baina baita izandako eztabaidak ere. Eztabaida korapilatsuenetako bat ongizatearen dimentsio kolektiboaren gainekoa izan da.

PNUDEk esaterako, oraindik, giza garapenaz hitz egitean Senen gaitasunen ikuspegi zaharkitua hartzen du erreferentzia gisa eta hainbat autorek Senen gaitasunen ikuspegi hau kritikatu izan dute, bereziki, ez duelako ongizatearen dimentsio kolektiboa bezain beste kontuan hartzen edo ez duelako egoki lantzen. Senek, pertsonaren gaitasunen sustapenean jartzen du enfasia ongizatea lortzera bidean eta dimentsio pertsonala kolektiboaren gainetik jartzea kritikatzeko diote. Sen gaitasunen ikuspegiaren aitzindaria izan arren eta ekarpen handi egin arren, hasierako proposamenaren izaera indibidualista da zalantzatan jarri dena azken urteetan. (Dubois, 2008)

Robeynsek, Senen ikuspegi etika indibidualista duen proposamen gisa ikusten du, hala ere, honek ez duela inplikatzeko pertsonak indibiduo atomizatu bezala onartzea ere defendatzen du. Gainera, Senen proposamenak dimentsio sozialaren eta indibidualaren arteko oreka lortzen duela dio. Etika indibidualistari buelta ematea beharrezko ikusten du ordea, eta horretarako dimentsio kolektiboa aztertzeke marko analitiko berriak sortzea proposatzen du (Robeyns, 2005).

Robeynsek proposamenari jarraiki, hainbat autorek - Nelson (2004), Gasper y van Staveren (2003) eta Nussbaum (2002 eta 2003) - dimentsio kolektiboaren gaineko proposamenak egin dituzte. Autore hauek hainbat puntutan desadostasunak izan arren, denek kritikatzeko dute Senen "funtsezko askatasunen" proposamena - bakoitzak bere ustez duina den bizitza bat bizitzeko gaitasuna-. Askatasunaren kontzientzia, norbanako bakar gisa dugun kontzientzia da eta ikuskerak honek desberdintasunen aferan arrisku nabarmenak sor ditzake. Izan ere, non hasi eta bukatzen da bataren eta bestearen askatasuna. Adibide argiena emakumeena edo ingurumenarena da, biak ala biak dira egunerokotasunean erasotutako askatasunaren izenean.

Nelsonek (2004) askatasunaren kontzeptioak giza nortasunaren (*condición humana*) funtsezko gaitasun bat aipatzen du, afiliazioa - hau gabe ezin da ulertu askatasuna-. Afiliazioak, norbanako bakoitzak beste gizakiekin eta orokorrean mundu sozialarekin erlazionatzeko duen kontzientzia definitzen du eta ekonomia feministan askotan aipatu izan den gizakien arteko *interdependentzia* kontzeptua barneratzen du. Afiliazioa eta askatasuna ordea ez dira gauza isolatu bezala hartu behar, osagarriak izan behar dira beraien artean eta bietako baten faltak ondorio esanguratsuak ekar ditzake. Gasper eta van Staveren (2003) gaitasunak, ongizateak eta baloreek ezaugarritze edo definizioa pluralistagoa izan behar dutela defendatzen dute. Gainera, Senen *Desarrollo y libertad* (2000) lanean askatasunaren kontzeptuak pisu gehiago hartzen duela kritikatzeko dute, gaitasunen gakoa ia alde batera utziz. Bukatzeko, askatasunaren

kontzeptuaren definizio ezak ongizatea neurtzeko izan dezakeen gaitasun falta nabarmentzen dute (Dubois, 2008).

Nussbaum (2003) pausu bat haratago joaten da, justizia soziala eta genero arteko justizia (*justicia de genero*) helburu izango dituen ongizatea definitzearen beharra ikusten du. Senek justizia sozialarekiko duen konpromisoa aipatzen du, hala ere, bere proposamenari justizia soziala lortzera bidean berdintasuna helburu politiko gisa jartzea eta gaitasunen arteko berdintasuna bilatzea falta zaizkiola nabarmentzen du. Gainera, *Desarrollo y libertad (2000)* lanaren gainean, aurretik aipatu ditugun kritikak bere egiten ditu eta zein askatasun ez diren egokiak edo onak - justizia sozialaren aurka doazenak - definitzea falta dela gehitzen du. Ildo honetan, autore honek dio justizia lege bat definitu behar dela, eta ez soilik gizarte bakoitzean, baita munduko herrialde desberdinetako egoera eta praktikak ebaluatu eta alderatzeko ere. Era honetara, errazagoa izango da garatu beharreko gaitasunak sustatzeko politika publikoak diseinatu eta praktikara eramatea. Justizia legeak erreferente gisa balio dezake justizia soziala eta ongizatea lortzera bidean, nahiz eta bi kontzeptu hauek ere definitu beharra dagoen. Behin kontzeptu hauek definituta, zein gaitasun edo praktika bultzatu eta garatu - eta zeintzuk ez-behar ditugun erabaki beharko da. Garapenak azken finean, norbanako guztiek bizitza duin bat izateko aukera eta baldintzak eskaini behar ditu (Dubois, 2008).

Lan honen hurrengo bi ataletan, autore ezberdinek proposatzen dituzten garatu beharreko gaitasunen zerrendak hartuko ditugu aztergai.

2.1.2.2. Gaitasun pertsonalak

Nussbaumek (2002) uste du, duintasunaren ideiak esangura nabarmena eta indar intuitibo handia duela kultura desberdinen artean. Hori dela eta, kulturaz gaindiko (*transcultural*) gaitasunen zerrenda bat definitzea posible dela uste izan du, hala ere ez da zerrenda itxi bat proposatzen duena, landu beharreko zerrenda bat dela dio.

Lan honetarako, Nussbaumen (2002) eta Robeynsen (2011) gaitasun zentralen kategorizazio zerrendak hartuko ditugu aztergai. Hala ere, bere egokitasunagatik Ingrid Robeynsenen (2011) proposamena erabiliko dugu analisi subjektiboa gauzatzeko. Bi proposamenetan bizitza duin baterako gakoak definitzen saiatzen dira eta biak gaitasun zentral guztiak elkar-harremanetan daudela dute oinarri. Nussbaumek gorputzaren eta buruaren osasuna, osotasun fisikoa, zentzumenak, jokua...) eskubideak nabarmentzen ditu, baina aldi berean, erlazioei ere garrantzi esanguratsua ematen die, bai pertsonen artekoari eta baita espezien artekoari ere (zentzumenak, emozioak, afiliazioa, beste espezieak, ingurumenaren gaineko kontrola). Robeynsek gaitasunen zerrenda berritsuago bat egiten du, gaur eguneko iparraldeko herrialdeen errealitatera egokituz. Robeynsek lanerako -lan produktibo ordaindua zein lan erreproduktibo ez ordaindua- sarbideari ematen dio garrantzia nabarmena, zaintza lanen ikusezintasuna eta ordainketa eta balorazio eza mahai gainean jarritz. Honekin batera, deboraren erabileraren gainean erabakitze boterea gehitzen du gako gisa eta Nussbaumek proposatzen dituen kategoria batzuk ere desglosatzen ditu (Jubeto eta Larrañaga, 2013).

Hurrengo orrialdeko bi tauletan ikus ditzakegu bi autoreek egindako proposamenak.

MARTHA NUSSBAUMEN GAITASUN ZENTRALAK
<ol style="list-style-type: none">1. Bizitza: Iraupen normaleko bizitza bukaerara arte bizi ahal izateko gaitasuna, aurretiaz hil gabe edo bizitza pena merezi ez duen zerbait bihurtzeko mugara heldu gabe.2. Osasuna: Osasuntsu bizitzeko gaitasuna, osasun erreproduktiboa, elikadura egokia eta etxebizitza eskubidea ere barnebilduz.3. Osotasun fisikoa: Leku batetik bestera modu libre eta seguruan mugitzeko gaitasuna izatea.4. Zentzumena, imajinazioa eta pentsamendua: Zentzumenak erabiltzeko eta gizaki bezala imajinatzeko, pentsatzeko eta arrazontzeko gaitasuna izatea. Gaitasun hau hezkuntza egoki batekin elikatzen da.5. Emozioak: Inguruko pertsonekin lotura afektiboak izateko gaitasuna.6. Arrazonomendu praktikoa: Ongiaren ideia egoki bat osatu eta bizitzaren planifikazioaren gaineko hausnarketa kritiko bat hasteko gaitasuna.7. Afiliazioa: Beste pertsona batzuekin errespetuz -berdintasunez eta duintasunez- bizitzeko gaitasuna. Errespetatua izan eta errespetuz tratatu.8. Beste espezieak: Animaliekin, landareekin eta naturarekin arduratuz eta harremanduz bizitzeko gaitasuna.9. Jolasa: Aisialdiko aktibitateekin barre egin, jolastu eta gozatzeko gaitasuna.10. Ingurugiroaren gaineko kontrola (politikoa eta materiala): Gai politikoen gaineko erabakiak hartzeko eta jabetza izateko gaitasuna.

1.taula. Iturria: Lan honetarako egina, Nussbaum (2002) oinarri hartuta.

INGRID ROBEYNSSEN GAITASUNAK
<ol style="list-style-type: none">1. Bizitza eta osasun fisikoa: Osasun fisikoa izan eta iraupen normaleko bizitzaz gozatzeko gaitasuna.2. Ongizatea eta osasun mentala: Ongizatea bermatuko dizun osasun mentala edukitzeko gaitasuna.3. Osotasun eta segurtasun fisikoa: Edozein eraso edo aginduren aurrean babestu eta seguru bizi ahal izatea.4. Harreman sozialak: Sare sozialen baten parte izan eta sostengu soziala eman eta hartzeko gaitasuna.5. Ahalduntze politikoa: Erabakigune politikoetan parte hartu eta eragiteko gaitasuna izatea.6. Hezkuntza eta jakintza: ikasteko, ikasitako irakatsi eta ikasitakoaren bitartez jakintza sortu ahal izateko gaitasuna.7. Etxeko lana eta zaintza lan ez ordaindua: umeak hezi, etxeko lanak egin eta ingurukoak zaintzeko gaitasuna.8. Lan ordaindua (enplegua) eta beste proiektuak: Lan merkatuan edota bestelako proiektu ekintzaileetan -artistikoak edo kulturalak esaterako- lan egiteko gai izatea.9. Etxebizitza eta ingurumena: Ingurune seguru eta egoki batean seguru bizi ahal izateko gaitasuna.10. Mugikortasuna: mugikortasun askatasuna izatea.11. Aisialdi ekimenak: Aisialdi ekimenetan parte hartzeko aukera izatea.12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena

13. Errespetua: errespetuz eta duintasunez tratatua izateko eta tratatzeko gaitasuna.
14. Erlijioa: erlijio bat aukeratu eta izateko edo ez izateko askatasuna.

2.taula. Iturria: Lan honetarako egina, Robeyns (2011) oinarri hartuta.

2.1.2.3. Gaitasun kolektiboak

Gaitasunen ikuspegiaren bilakaeran ikusi dugun bezala, garapenaren dimentsio kolektiboak hasiera batean, gaitasunen ikuspegian ez zuen berebiziko zentralitatea hartu ongizatea lortzera bidean - Senen gaitasunen ikuspegian ez baitzen egoki barneratzen ongizatearen dimentsio kolektiboa-. Hala ere, bere lekua eginez joan da eta hainbat ekarpen berri aurki ditzakegu ikuspegi honen baitan.

Dimentsio kolektiboaz hitz egiten dugunean, ongizatearen taldeko dimentsioaz ari gara eta hau lortzeko jarraitu beharreko prozesu kolektiboaz. Ongizatearen taldeko dimentsioari dagokionez, *gaitasunak garatzeko*⁶-gaitasun indibidual eta kolektiboetatik haratago, gizarte osoaren gaitasuna barneratzen du- proposamenak Tokiko Giza Garapenaren alderdi kolektiboa aztertzeari bide eman dio.

Nussbaumen arabera, ongizatearen lorpenerako prozesu kolektiboen baitan gaitasun zentralen garapena ezin dugu prozesu kolektibo bezala ulertu, izan ere, gaitasun hauek norbanako bakoitzaren eta hurbilenekeo taldeen (familia, komunitatea...) arteko harremanetara egiten diete erreferentzia. Aipatu beharra dago, gaitasunen ikuspegiak, pertsonaren kontzeptzioa politikoa hartzen duela kontuan, eta pertsona animalia sozial eta politiko bezala kontsideratzen duela. Hau da, etengabeko harremanean dagoen norbanakoa gisa hartzen du eta beste norbanakoekin helburu sozial bateratuak ditu. Ongizate pertsonala beraz, ezin dugu gaitasun zentraletara mugatu eta prozesu zabalago batean barnean kokatu behar dugu, ongizatea lortzeko dimentsio kolektiboko prozesuaren barnean kokatu behar dugu (Nussbaum, 2007:166).

Prozesu kolektibo hau hurrengo erara ulertu behar da:

- Tresna: Tresna gisa ulertu behar dugu, izan ere, prozesu honen faltan ezinezkoa da norbanakoentzat ongizate lortzea.
- Helburua: Helburua da bere baitan, balore eta gaitasun kolektiboak ongizatearen parte direlako.

⁶ Gaitasunen garapena (*capacity development*): gaitasun oro hobetzeko, osatzeko eta garatzeko prozesua da. Trebetasunen eta gaitasunen arteko lotura egin behar da gaitasunak sustatzeko eta indartzeko (Baser eta Morgan, 2008).

Gaitasun kolektiboetaz hitz egiterako orduan, ekarpen interesgarrienetako bat, Baser eta Morgan (2008) autoreek egin da. Gaitasunak garatzeko eta ongizate soziala lortzeko prozesu kolektibo honen baitan, gaitasun kolektiboak definitzearen beharra nabarmentzen dute, eta horrela definitzen dituzte gaitasun kolektiboak: talde edo erakunde batek egunez egun gauzak egiteko eta mantentzeko duen trebezia, jarrera eta motibazio desberdinen multzoa. Sistemak edo gizarteak bere osotasunean daukan gaitasun gisa ere uler dezakegu gaitasun kolektiboa. Hau da, sistema batek balio publikoa sortzeko duen trebetasun orokorra edo gizarte batek etorkizuna zehaztu eta garatzeko daukan ahalmena. Balio publikoaren sorrera hau ordea, ezin da gaitasun kolektiboetara mugatu, izan ere, gaitasun indibidual (zentral) eta kolektiboen arteko nahasketa batetik sortzen da.

Balio publikoa sortzera bidean, hurrengo gaitasun kolektiboak proposatzen dituzte Baser eta Morganek (2008). Nabarmendu beharra dago, gaitasun bakoitza elkarlotua -guztiak dira beharrezkoak eta elkarren artean eragiten eta elikatzen dira- dagoela besteekin eta gaitasun kolektibo integrala sistemak edo gizarteak daukan trebetasun kolektiboa izango dela (Dubois, 2014).

BASER ETA MORGANEN GAITASUN KOLEKTIBOAK

1. Konpromisoa eta erakarpenean: Jarduera desberdinen garapenean parte hartu eta konprometitzeko gaitasuna; baita, talde edo erakunde ezberdinek jarduerak eta espazioak sortu eta sustatzeko duten gaitasuna ere - konpromisoa, ausardia eta identitate kolektiboa oinarri-.
2. Zeregin edo funtzio logistikoak betetzea, zerbitzuak eta teknikak eskaintzea: Komunitatearen garapenean bidean, erakundeek, dituzten dinamizazio zeregin logistikoak betetzeko borondatea izatea eta beharrezkoak diren zerbitzu eta teknikak eskaintzeko gaitasuna izatea.
3. Harremanak edukitzea eta laguntzak eta baliabideak lortzea: Funtsezkoa da testuinguru bakoitzeko beste eragileekin harremanak edukitzea eta mantentzea, bizirik irauteko eta garapenerako beharrezkoa diren laguntza eta baliabideak lortzeko.
4. Egokitzea eta berritzea: Testuinguruaren aldaketei aurre egiteko edo era egoki batean erantzuteko beharrezkoa den gaitasuna da. Gaitasun hau, zuzenki lotua dago taldearen - eta bertako norbanakoen- ikasteko ahalmenarekin, barne hausnarketak izateko gaitasunarekin, erakundearen berreraberritze ahalmenarekin, edota ideia berriak sortzeko gaitasunarekin.
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea: Etengabeko harreman dialektikoan bizi dira bi kontzeptu hauek, eta erakunde edo taldeek bi aldagai hauen arteko etengabeko tentsioa orekatzeko eta kudeatzeko gaitasuna izan behar dute. Hau da, gaitasun, interes, nortasun, ikuspegi eta pentsatzeko hainbat modu izanik ere komunitatearen barnean, zatiketa ekiditeko gaitasuna izatea. Erakundeak gaitasunen arteko oreka mantendu behar dute maila desberdinetan- barnealdera zein kanpoaldera begirakoak, epe laburreko zein luzeakoak...-.

3.taula. Lan honetarako egin, Baser eta Morgan (2008) oinarri hartuta

2.2. EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA (ESS)

Ekonomia publikoaren eta ekonomia kapitalista ordinararioaren artean kokatzen diren enpresa eta erakundeen mugimendu sozioekonomikoa da. Mundu mailan gaur egun, oso terminologia anitza dago mugimendu honen bariante desberdinak definitzeko, baina aurreko definizio orokorrak denak barnebiltzen ditu.

Espainiar Estatuan hainbat dira erabiltzen diren terminoak: *ekonomia soziala, ekonomia sozial eta solidarioa, ekonomia alternatibo eta solidarioa...* eta Euskal Herrian Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen kontzeptua ere hasi da erabiltzen azken urteetan.

Terminologia anitza izanik argipen batzuk egitea komeni da inongo azalpenetan hasi aurretik. Espainiar estatuan, ekonomia soziala eta ekonomia solidario edota alternatiboa bereiztea komeni da, ez baitira gauza bera.

Ekonomia soziala legez arautua dago Espainiar estatuan, 2011ko Ekonomia Sozialaren Legea daukagu kontzeptua definitzeko. Lege honek, 5. artikuluan jasotzen dituen hurrengo entitateak - kooperatibak, sozietate laboralak, enplegurako zentro bereziak, asoziazio eta fundazioak, integrazio enpresak eta bestelako entitate konkretu batzuk- dira ekonomia soziala. 4.artikuluan, ekonomia soziala izateko bete beharreko 4 printzipioak azaltzen dira: a) Pertsonak eta helburu soziala gailentzea kapitalaren gainetik; b) Irabaziak egindako lanaren arabera banatu langileei eta soberakinak helburu sozialera bideratu; c) Barneko eta gizartearekiko elkartasuna bultzatu. Hurrengo puntuekiko konpromisoa: tokiko garapena, genero berdintasuna, kohesio soziala, egoera larrian dauden pertsonen integrazioa, kalitatezko enpleguen sorrera, jasangarritasuna eta bizitza pertsonal, familiar eta laboralaren kontziliazioa; d) Botere publikoekiko independentzia. Hala ere, hurrengo printzipioek ere barnebiltzen ditu ekonomia sozialak: e) Entitatearen kontrol demokratikoa; f) Atxikitze askatasuna, nahi denean entitatean sartu eta irteteko eskubidea.

Espainiako Ekonomia Sozialeko Legeak ematen digun definizioak ez du alde handirik Europa mailan erabiltzen diren terminoekin. Europako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (CESE) esaterako hurrengo erara definitzen du ekonomia soziala: "modu formalean antolatutako enpresa pribatuak dira, erabakitze autonomiarekin eta atxikitze askatasunarekin, bazkideen premiak merkatuaren bitartez asetzeko sortuak, ondasun eta zerbitzuak sortuz, aseguratuz edo finantzatur; bazkideen arteko ondasunen edo soberakinen behin-behineko banaketa eta erabakiak hartzeko prozesua ez daude zuzenean kapitalarekin edo bakoitzak ekarritako kotizazioekin lotuta, eta haietako bakoitzari boto bat dagokio".

Ekonomia sozialaren legeak ekonomia sozialeko entitate bat izateko bete behar diren ezaugarri eta printzipioak azaltzen dizkigu, baina praktikan ez dira printzipioen zati handi bat errespetatzen, izaera juridikoa izatearekin aspektu teknikoak betetzearekin nahiko da. Gainera, XX. mende bukaeratik hona *merkatuko isomorfismo*⁷ prozesu bat bizi izan du ekonomia

⁷ Merkatuko isomorfismoa: Merkatuan jarduten duten Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateek pairatzen duten joera da. Joera honek Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipio eta baloreak galtzea dakar eta merkatuko logika pixkanaka barneratzea, beste enpresa konbentzional baten erara funtzionatzera heltzeko arriskuarekin. Beste era batera esanda, helburu soziala bigarren planora pasa eta helburu ekonomikoari gero eta garrantzia gehiago ematea.

sozialeko entitate askok, oinarrizko baloreak galduz eta merkatu kapitalistako joera ezegokiak barneratuz.

Ekonomia sozial eta solidarioak edo ekonomia solidarioak hein handi batean ekonomia sozialaren bilakaera merkantilista ikusirik, joera hau irauli eta praxi eraldatzaileko aldagai berriak sartzea du helburu.

Ekonomia Solidarioaren kontzeptualizazio teorikoaren aldetik mundu mailan bi joera nagusi daudela defendatze dute hainbat autorek (Chavez eta Monzon, 2006; Guerra, 2004). Batetik, *joera europarra* dago eta bere erreferentziatzko herrialdeak Frantzia, Belgika eta Quebec dira. Kontzeptuaren sorrera eta bilakaerak lotura zuzena du ekonomia sozialak eta bere antolaketa ereduek izan duten instituzionalizazio prozesuarekin eta oinarrizko baloreen galerarekin, hau da, merkatuko isomorfismo prozesuarekin. Ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren bilakaera honen erantzun gisa sortzen da. Beste aldetik, *joera latinoamerikarra* dugu eta batez ere Txile, Argentina eta Brasil izan dira erreferente. 80.hamarkadan hasten da mugimendu hau azaltzen eta indar handia lortu du aipatutako herrialdeetan. Hainbat iturritatik "C" faktorea⁸, korrante kritiko eta eraldatzaileak, COLACOT⁹...- elikatu da mugimendu sozioekonomikoa azken hamarkadetan eta askotan "Herri Ekonomia" (*Economía Popular*) edo "Lanaren Ekonomia" (*Economía del Trabajo*) bezalako kontzeptuekin ere izendatzen da, sinonimo gisa hartzera arte iritsiz, nahiz eta autore batzuk ez egon horrekin ados (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014; Guridi, Etxezarreta eta Perez de Mendiguren, 2008).

Joera europarra jarraituz, Espainiar estatuan, REAS¹⁰ sarea izan da logika irauli eta ekonomia solidarioaren parametrotan mugitu dena. Gainera, *Ekonomia Alternatibo eta Solidarioa* erreferente bilakatzea lortu dute. Euskal Herrian ere, izan du bere eragina joera europar honek. REAS sarea, nahiz eta, EAE mailan eta Nafarroan antolatuta egon, *Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea* izena hartu duen mugimendu berri bat sortu zen 2014an Euskal Herrian. Mugimendu hau, *Olatukoop* izeneko sarearen bitartez artikulatzen da eta horrela definitzen dute mugimendua: "Ekonomian eta ekintzailatza ekonomikoan modu eraldatzailean jarduten dugun enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatzen dugu *OlatuKoop* sarea. Kideen arteko elkartasuna, jendartearen ongizatea, eta gure jarduera ekonomikoak ondare komunari ekarpen bat egitea dira gure helburuak. Horregatik enpresa proiektuak komunitate bezala izendatzen ditugu, ohiko enpresak baino askoz gehiago baitira eredu honetan." Mugimenduaren helburua, Euskal Herrian ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako hirugarren olatu kooperatibo bat bultzatzea da. Sare desberdinak izan arren, REAS eta Olatukoopek elkarlanean jarduten dute, izan ere, kooperazioa ezinbesteko premisa da ekonomia solidarioan.

REASek, ekonomia alternatibo eta solidarioaren sareak, oso ongi definitzen du ekonomia solidarioa zer den. Ekonomia solidarioa, kapitalismoarekiko alternatiboak diren eta ingurunea

⁸ "C" faktorea: Luis Razeto irakasleak ekonomia solidarioaren gainean egindako azterketatik ateratako kontzeptu bat da. "C" faktorea deitzen dio, ekonomia solidarioko printzipio eta balore gehienak letra horrekin hasten direlako. Batzuk aipatzearen (gaztelaraz): cooperación, compañerismo, comunidad, coordinación...

⁹ COLACOT: Hegoamerikako kooperatiba eta mutualitateen konfederazioa. 1975ean sortu zen Caracasen (Venezuela).

¹⁰ REAS: Ekonomia alternatibo eta solidarioko sareen sarea da. 500 entitatetik gorak osatzen dute probintzia mailako eta sektorekako sareetan antolatuz. Espainia mailan dago saretua eta RIPESS (Red Internacional de Promoción de la Economía Social y Solidaria) sare internazionalaren barnean dago. Irabazi asmorik gabeko asoziazio gisa dago egituratua eta ez du inongo erlijio edo afiliazio alderdikoirik.

eraldatuko duten printzipio¹¹ eta balore¹² batzuetan oinarrituak egongo diren praktika ekonomikoaren multzoa da. Mugimendua bera, mugimendu ekonomiko sozial eta politiko bat bezala definitzen da eta helburu gisa, beste sare eta mugimenduekin batera, gaur egungo gizarte lokala eta globala behetik gora eraldatzea da.

	EKONOMIA KONBENTZIONALA	EKONOMIA SOLIDARIOA
Helburua	Irabaziak maximizatzea	Pertsonen bizi Kalitatea
Bitartekoak	Giza Baliabideak	Errentabilitate ekonomikoa

4. taula. Iturria: REAS

Gaur eguneko ekonomia konbentzionalaren logikarekin hautsi behar dela uste dute praktika ekonomiko alternatiboak sortu nahi badira. Horretarako, aktibitate ekonomikoaren helburua irabazien maximizatzea izatetik, pertsonen eta kolektiboaren bizi kalitatea izatera pasa behar da. Ekonomia solidarioan ezin ditugu pertsonak giza baliabide bezala hartu eta kapital metaketa mugagabea aurrera eramateko bitarteko gisa erabili, gaur eguneko enpresa konbentzionaletan gertatzen den bezala. Pertsonen bizi kalitatea edo ongizatea izan behar du helburu ekinbide ekonomikoak eta enpresaren errentagarritasun ekonomikoa izango da hau bermatuko duen bitartekoa (REAS, 2011).

Ekonomia solidarioa etengabeko eztabaida eta autokritikan bizi den mugimendua da eta duen konplexutasuna da aberasgarri egiten duena. Eraldaketa sozioekonomikoaren eta ekonomia eredu alternatiboak eraikitzeke eztabaida bultzatzen du eta beste korrante ekonomiko kritiko - ekonomia feminista¹³, ekonomia ekologikoa¹⁴, ekonomia instituzionalista¹⁵, ekonomia komunitarioa¹⁶...- batzuetatik ere elikatzen da. Etengabeko autokritika, eztabaida eta elikadura honi esker benetako praxi eraldatzaile bat ari da garatzen Ekonomia Solidarioaren inguruan.

Eguneko ekonomia kapitalistaren logikak esparru produktiboaren garapena baino ez duela bilatzen ikusirik, uste dugu Ekonomia Sozial eta Solidarioa -bere espresio guztietan- izan daitekeela Tokiko Giza Garapena sustatzen lagundu dezakeen mugimendu sozial eta ekonomikoa. Arrazoi nahiko ditugu dagoeneko ikuspegi ekonomiko honen balioa defendatzeko Tokiko Giza Garapenaren klabetan, hala ere, arrazoiketan sakontzen jarraituko dugu.

¹¹ REASen ekonomia solidarioaren gutuneko sei printzipioak: a) Ekitate printzipioa; b) Lanaren printzipioa; c) Ingurumen-iraunkortasunaren printzipioa; d) Lankidetzaren printzipioa; e) "Irabazi asmorik gabeko" izatearen printzipioa; f) Inguruarekiko errespetuaren printzipioa.

¹² REASk defendatzen dituen baloreak: Ekitatea, justizia, anaitasun ekonomikoa, elkartasun soziala eta demokrazia zuzena.

¹³ Ekonomia feminista: lanaren kontzepzioa lan erreproduktiboaren eta zaintzaren eremura zabaltzea; bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jarri (Carrasco, 1994; Perez Orozco,2004).

¹⁴ Ekonomia ekologikoa: Sistema ekonomikoa irekia da, ez itxia. Ekonomia gizartearen azpimultzo bat da eta gizartea biosferaren azpimultzoa. (Georgeus-Roegen,Daly, Martinez, Naredo, Max-Neef)

¹⁵ Ekonomia instituzionalista eta ekonomia instituzional berria: Merkatua erakunde bat dela diote - azken emaitzak baldintzatuak direlarik - eta beraz jarduera ekonomikoak jarduera instituzionalizatutzat hartu behar dira.(Vleben, Mitchel, Commons, North, Coase, Willimanson, Hodson)

¹⁶ Ekonomia komunitarioa: Eredu ekonomiko berri bat proposatzen du - bizitza modu berri bat, orekan, harmonian, bizitzaren errespetuan oinarritua, elkarrekikotasun, birbanaketa eta arrazionaltasun printzipioen gainean.

Jordi Garcia (2010) autoreak ongi azaltzen du ekonomia solidarioaren ikuspegia, eta gainera, Tokiko Giza Garapena bultzatzeko gako edo tresna garrantzitsuak ematen dizkigu. Hurrengo moduan definitzen du ekonomia solidarioa Garciak: "oinarrizko baloreetan -kooperatibismoa, solidaritatea, demokrazia, berdintasuna eta jasangarritasuna- oinarrituz , beharrianen asebetetzea eta ez irabazi asmoa bilatzen duten praktika ekonomikoen -produkzioa, komertzializazioa, kontsumoa eta kreditua- multzoa da" (Garcia,2010).

Autore honek aurretik azaldu ez den, beharrianaren kontzeptua sartzen du, gaitasunen ikuspegiarekin zuzenki loturik dagoena. Wolff eta De-Shailtek (2007) gaitasunen segurtasuna terminoa proposatzen digute eta esan dezakegu ekonomia solidarioak oinarrizko beharrian ohiek kolektiboki asetzea bermatzen duela, ostean, gainontzeko gaitasunak garatu ahal izateko. REASen definizioan agertzen zen pertsonen bizi kalitatea helburu izatea ere zuzenki lotua dago beharrian asebetetzearekin eta ongizate pertsonal eta kolektiboaren lorpenarekin. Ekonomia ulertzeko modu honek, Tokiko Giza Garapena bezala, ongizate pertsonal eta kolektiboa duela helburu esan dezakegu. Gainera, Garciak (2010) gehitzen du, ekonomia solidarioaren praktika ekonomikoen hazkuntzak pertsonen bizi kalitatea hobetzeaz gain, bere ingurumenarena ere hobetzen laguntzen duela dio. Praktika ekonomiko hauen hazkuntzak, azken finean, ekonomia solidarioaren baloreak - kooperatibismoa, solidaritatea, demokrazia, berdintasuna eta jasangarritasuna- gizarteratzen, ongizate pertsonal eta kolektiboa lortzen eta kohesio soziala indartzen laguntzen du. Komunitatea sortzen du eta ekonomia justuago, demokratikoago eta jasangarriago bat posible dela erakusten du. Tokiko Giza Garapenaren garapen ereduaren logikaren bat egiten duela Ekonomia Sozial eta Solidarioak esan dezakegu.

Garciak hainbat ahultasun eta indargune ikusten dizkio ekonomia solidarioari, hala ere, indarguneak handiagoak direla nabarmentzen du. Ahultasunei dagokienez, hurrengoak zerrendatzen ditu: a) Kudeaketan defizita ; b) Jarrera ez kooperatibistak eta indibidualismorako joera ; c) Finantzazio arazoak eta administrazio publikoekiko gehiegizko dependentzia; d) autoestima edo konbentzimendu falta; e) Alternatiba hauen ezagupen urria gizartean; f) Integrazio ekonomiko eta soziopolitiko falta; g) praktika ekonomiko puntualen jarraikortasun falta, hauek proiektu bihurtu eta indartzeko zailtasunak (Garcia,2010):

Ahuleziak ahulezi, ekonomia solidarioak etorkizuneko gizarte justuago baten bidean enbrioi, eskola, subjektu sortzaile, laborategi eta eredu izatearen papera betetzen duela dio Garciak (2010).

- Etorkizuneko ekonomia post-kapitalistaren enbrioi izango dira ekonomia solidarioko entitateak. Sektore honetako enpresek dituzten printzipio, balore eta funtzionamendu ereduak etorkizuneko egitura ekonomikoetako enpresak nolakoak izan beharko ziren erakutsi ahal digu.
- Ekonomia solidarioa hiritar aktiboak hezten dituen eskola da eta komunitate izaera sortzen du. Praktika ekonomiko hauek, ikaskuntza eraldatzaileko espazioak sortzen dituzte eta baloreetan ere hezten dute.
- Sektore honen jardunak balore kontra-hegemonikoak sortzen dituen, eraldaketa sozialerako subjektu askatzaile bat osatzen lagun dezake.

- Ekonomia post-kapitalistak aurkituko dituen erronkei (indibidualismoa, krisi ekologikoa...) aurre egiteko erantzunak bilatzen dituen laborategi bezala funtziona dezake ekonomia solidarioak.
- Entitate demokratiko eta sozialak hauek eredu dira beste ekonomia bat posible dela erakusteko. Honek, geroz eta jende gehiagok eraldaketa sozioekonomikoan sinestea ekar dezake.
- Inspirazio gisa balio dezake kapitalismoa eraldatu nahi duten ikertzaile desberdinentzat. Egungo sistema barrutik aldatzeko ekonomia solidarioak izan ditzakeen ahuleziak, aukerak eta indarguneak ikusiz hurrengo 7 ildo estrategikoak ere proposatzen ditu: a) Enpresen kudeaketan hobekuntza lortu. Kudeaketa txarra askotan ekonomia konbentzionalako enpresek duten funtzionatzeko modua kopiatzearen gertatzen da. Jarrera hauek ezabatu eta kudeaketaren gaineko formazioa eman behar zaie mugimenduko kideei. ; b) Ekonomia Solidarioko entitateen sorrera bultzatu; c) Sektore honetako enpresak gizartearentzat kontsumitzeko, lan egiteko eta finantziatzeko enpresa konbentzionalak baino hobekak direla erakutsi; d) Kontsumo arduratsuko eta aurrezki etikoko praktikak orokortu; e) Interkooperazioa bultzatu *merkatu soziala* sortzeko bidean; f) Ekologismoaren eta zerbitzu sozialaren sektorean egin apustu; g) Politika publiko aktiboagoak bilatu.

Gure helburua ez da garapen estrategia bat diseinatzea, baina, Garciak (2010) proposatzen dituen pausu estrategiko hauek ekarpen garrantzitsua egiten diote Tokiko Giza Garapenaren klabeetan gobernantza lokaletik garatu daitezkeen estrategien diseinuari. Izan ere, dagoeneko argi esan dezakegu, Ekonomia Sozial eta Solidarioa garapen eredu honen bidelagun egokia dela.

Behin, ekonomia solidarioaren oinarriak ezaguturik eta bi oinarri teorikoen -Tokiko Giza Garapena eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa- arteko bateragarritasuna ikusirik, hurrengo atalean bi paradigmaren arteko harremanen azterketan sakontzen jarraituko dugu.

2.3. TOKIKO GIZA GARAPENA (TGG) ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA (ESS)

Tokiko Giza Garapenaren zutabe nagusi den gaitasunen ikuspegiaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren artean sor litezkeen aliantzak edota sinergiak aztertzea izango da atal honen helburua. Hau da, zein ekarpen egin dezakeen Ekonomia Sozial eta Solidarioak zentral eta kolektiboak sustatze aldera. Hala ere, atal honen lehen puntuan, beharrezko ikusten dugun, eredu ekonomikoaren paradigma aldatetan ekonomia sozial eta solidarioak izan dezakeen gaitasuna ezagutuko dugu (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

2.3.1. Ekonomia konbentzionalaren printzipio eta ikuspegiari kritika eta paradigma aldatetaren beharra

Ekonomia konbentzionalak -globalizazio neoliberal- eta bere pentsamendu dominatzaile hegemonikoak finkatzen ditu modu sistematikoan gaur eguneko merkatuko printzipio eta arauak. Hau da, eredu ekonomiko honek du gaur eguneko sistema sozioekonomikoan botere araugilea, berak finkatzen ditu gizabanako, talde, komunitate eta herrialdeen arteko truke

prozesu guztiak antolaketarako oinarrizko printzipio edota arauak (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

Kontsumitzaileek esaterako, modu egoista eta arrazionalen *-gizon ekonomikoa (homo economicus)*¹⁷- jardungo dute eta kontsumoari ez zaio inongo mugarik jarriko aurrekontua dagoen bitartean; produkzioan, etekin indibiduala maximizatzeko modu libre eta arrazionalen jardungo dute enpresariak, - eskaria eta eskaintza orekaren printzipioa oinarri- gizartean eta ingurumenean sor dezaketen eragina kontuan hartu gabe. Norbanakoek horrela jardutea ez da zerbait naturala ordea, inposatutako sistemaren printzipiok barneratu dituztelako jokatzan dute horrela. Alor juridikotik adibidez, ondasun pribatuaren eta enpresa askatasunaren eskubideen bitartea aurretik aipatutako jarrerak bultzatu eta arautzen dira instituzio publikoen bitartez. Gainera, eredu honen funtzionamendua eta biziraupena bermatzeko izugarriko egitura politiko-juridiko-ekonomikoa (estatua, nazioz gairikoa instituzioak, epaitegiak, enpresa multinazionalak, mass-media...) dago martxan.

Beste alde batetik, aipatzekoa da ekonomia kobentzionalak logika utilitarista bati jarraitzen diola, eta premisa honetan oinarrituz denak duela truke-balioa (*valor de cambio*). Dena da merkantzia, gizakia eta giza gaitasunak, natura, ezagutza eta baita giza harremanak (afektua, zaintza edota kultura) ere. Beraz, lan honetan defendatzen ari garen garapen ereduak -Tokiko Giza Garapena- zailtasunez egin dezake bat gaur egungo ekonomia kobentzionalaren printzipio eta arauekin.

XIX. mendearen bukaeratik, hainbat ikuspuntu edo korrante ekonomiko egon dira kapitalismoa eredu gisa zalantzatan jarri dutenak edota bere aurkako joera nabarmena adierazi dutenak, euren artean dago Ekonomia Sozial eta Solidarioa. Ikuspegi ekonomiko honek, XIX.mende amaierako korrante ideologiko desberdinetan - sozial-kristau, sozialista, anarkista- du jatorria. Badira ordea berriagoak diren -XX. mendean zehar garatuak- korrante ekonomiko kritikoak ere. Euren artean ditugu: Ekonomia feminista¹², ekonomia ekologikoa¹³, ekonomia instituzionalista¹⁴ edota ekonomia komunitarioa¹⁵ (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

Korrante kritiko hauekin batera, garapen ereduaren gaineko eztabaida ere egon da, dena baitago elkarlotua. Esaterako, XX. mendeko azken hamarkadatik aurrera gorpuzten joan den - eta lan honetan ardatz dugun- giza garapenerako gaitasunen ikuspegia. Aurretik azaldu bezala, gaitasunen ikuspegiak garapen eredu kobentzionalari buelta eman nahi dio eta garapen eredu alternatibo - hazkunde ekonomikoaren ordez giza garapena helburu duena - izan. Esan bezala, Sen (1990) eta Nussbaum (2002) izan dira ikuspegi honen oinarriak jarri dituztenak, baina bereziki Nussbaum. Autore honek, Senek proposatzen zuen ikuspegi zehaztugabearen aurrean arauko erreferentzia objektibo erradikalago bat jartzen du mahai gainean. Nussbaumek (2010) ongizatea eta justizia soziala lortzera bidean, gaitasunen zerrenda definitu bat egiten du eta zerrenda berriak ere proposatu dira, Robeynsenena (2005) kasu. Gainera, hedatu beharreko gaitasun eta funtzionamendu edo praktiken gainean ere hausnartzen du (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

¹⁷Homo economicus (Gizon ekonomikoa): *Izaki hori maskulinitasunaren estereotipoa da, eta, deskribapenaren arabera, gizon autonomoa da, egoista merkatuan eta altruista etxean. Gainera, erabakiak modu arrazionalen hartzen ditu, bere interesei emanez lehentasuna modu jarraituan, eta alde aurretik definitutako lehentasun eta gustuak ditu, denboran zehar egonkorrak direnak. Ekintzaren bat egiten duenean, bere erabilera pertsonala maximizatzen du, eta, normalean, bere testuinguru sozialetik isolatuta dago (Jubeto, 2011).*

Ekonomia Sozial eta Solidarioa ekonomia konbentzionalaren aurkako korrante alternatibo eta kritika ezberdinetatik elikatu da -eta elikatzen jarraitzen du- eta horietako batzuk bere oinarri teorikoan barneratuz joan da. Coraggiok (2011) Ekonomia Sozial eta Solidarioa ekintza espazio gisa definitzen du eta bertan beste eredu ekonomiko batean sinesten duten era askotako norbanako, talde, entitate eta komunitateak aurki ditzakegu, ez da ezer zurruna. Ekintza espazio honetako praktika ekonomikoak beste balore batzuetan -solidaritatea, berdintasuna, lankidetzan- oinarrituz garatzen dira eta ekoizten dutena beraien, edota beraien komunitatearen, premiak asetzeko egiten dute, kapital metaketarako inongo asmorik gabe.

Coraggiok (2011) ekonomia kontsumo, ekoizpen, banaketa, zirkulazio prozesuen sistema gisa ulertzen du. Prozesu horiek, garaiko komunitate edo gizarteak definitzen ditu, printzipio, erakunde eta praktiken desberdinen bitartez; betiere, gaurko eta etorkizuneko belaunaldien premiak eta nahiak asetzera, eta pertsonen, komunitateen eta naturarekiko oreka mantentzea bilatuz.

Definizio honetan oinarrituz, uste dugu Ekonomia Sozial eta Solidarioa izan behar dela aktibitate edo prozesu ekonomiko ororen euskarria. Ekonomia Sozial eta Solidarioa, ekonomia konbentzionalak inposatutako ekonomiaren antolaketarako oinarritzko printzipio eta arauak - *homo economicus*, jabego pribatua, enpresa askatasuna, logika utilitarista...- ordezkatuko dituen eredu sozioekonomikoa izan liteke. Garciak (2010) aurretik aipatu bezala, etorkizuneko gizarte justuago baten bidean enbrioi, eskola, subjektu sortzaile, laborategi eta eredu izatearen papera betetzen du ekonomia sozial eta solidarioak.

Esan dezakegu, argi geratu dela, paradigma aldaketa bat beharrezkoa dela eta ondorioz, uste dugu Ekonomia Sozial eta Solidarioa izango dela Tokiko Giza Garapenaren euskarri izango den ikuspegi ekonomikoa. Horregatik, hurrengo bi puntuetan ikuspegi ekonomiko honek gaitasun zentral eta kolektiboak bermatzeko eta indartzeko duen gaitasuna aztertuko dugu.

2.3.2. Gaitasun zentralak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Ekonomia Sozial eta Solidarioak, proposatzen dugun garapen ereduarekin bat egiten du, eta horregatik, uste dugu ikuspegi ekonomiko honen praxiak Tokiko Giza Garapenerako beharrezkoak diren gaitasunak bermatzen eta indartzen laguntzen duela. Analisi subjektiborako Robeynsen (2005) gaitasunen zerrenda -2.taula- erabiliko badugu ere, atal honetan, Nussbaumek (2002) proposatzen dituen hamar gaitasun zentralen zerrenda -1.taula- hartuko dugu aztergai eta ikuspegi ekonomiko honek gaitasun zentral bakoitzari egin diezaiokeen ekarpena edo bulkada aztertzen saiatuko gara REAS sareak eskaintzen digun *Ekonomia Solidarioaren Gutuneko* printzipioak oinarri hartuz (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

Nussbaumek hamar gaitasunetatik bi nabarmentzen ditu: arrazoi praktikoa eta afiliazioa (Nussbaum, 2008). Bi gaitasun hauek, beste guztiak bere baitan hartzen dituzte. Hala ere, beharrezkoa da gaitasun guztiak zerrendatzea eta hizpide izatea, ezin ditugu gainerako gaitasun guztiak bi hauetan txertatu eta horretara mugatu gaitasunen garapena. Afiliazioak, beste pertsona batzuekin bizitzeko -berdintasun eta duintasun tratua- bat oinarri izanez- gaitasuna adierazten du. Beste norbanakoen kezkek edota arazoak ulertu, bere lekuan jarri eta

beraiengatik kezkatzeko gaitasuna izatea esan nahi du honek. Pertsona duin gisa errespetuz tratatua izateko oinarri soziala izatea ere nabarmentzen da, era horretara, diskriminazio oro - arraza, sexu, sexu orientazio, erlijio , etnia edota jatorria- gainditzeko gaitasuna izanez. Arrazoi praktikoak ordea, ongiaren ideia egoki bat izan eta bizitzaren planifikazioaren gaineko hausnarketa kritiko bat egiteko gaitasuna aipatzen du.

Bi gaitasun zentral hauek zuzenean loturik daude Ekonomia Sozial eta Solidarioaren hainbat oinarriekin (REAS, 2011). REASen definizioan horrela aipatu dugu lehenago: "aktibitate ekonomikoaren helburua irabazien maximizazioa izatetik, pertsonen eta kolektiboaren bizi kalitatea izatera pasa behar da. Ezin ditugu pertsonak giza baliabide bezala hartu eta kapital metaketa mugagabea aurrera eramateko bitarteko gisa erabili". Ekonomia Sozial eta Solidarioaren logika orokorrak gaitasunen ikuspegiarekin bat egin arren, REASen ekonomia solidarioaren gutuneko hainbat printzipioak, zuzenean bi gaitasun zentral hauek indartzen laguntzeko oinarriak zehazten dituzte. Ekitate printzipioak, norbanako guztiek duintasun bera dutela dio , eta denak dutela menpekotasun harreman baten azpian ez egoteko eskubidea beren egoera soziala, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar edozein izanik ere. Horrez gain, gaitasun hauei ekarpena egiten dieten beste hainbat kontzeptu ere -elkarrenganako aitortza, aukera berdintasuna, parte hartze eskubidea, gardentasuna edota elkartasun antolatua- aipatzen dira ekitate printzipioaren baitan.

Ingurumenaren iraunkortasuna eta inguruarekiko errespetua printzipioek ere ekarpen esanguratsua egiten dute gaitasun zentralak indartzera bidean. Bi printzipio hauek hirugarrenenganako - gizartea eta natura- errespetua dute oinarri ,eta honek, berdintasunezko eta duintasunezko harremanak bultzatzeaz gain, ongiaren ideia egoki bat egiten lagun dezakete. Bi gaitasun zentral hauetaz gain, Nussbaumen zerrendatutako beste gaitasun batzuk -bizitza, osasuna, osotasun fisikoa edota beste espezieak- bermatzen eta sustatzen ere lagun dezakete bi printzipio hauek eta Seni egindako etika indibidualistaren gaineko kritika gainditzeko dutela ere esan dezakegu. Izan ere, ongizatearen dimentsio kolektiboa kontutan hartzen dute.

Beste alde batetik, lanaren printzipioa daukagu, Ekonomia Sozial eta Solidarioak lana jartzen du jardun ekonomikoaren eta giza jardueraren erdigunean. Lanari, giza dimentsioa ematen zaio, faktore produktibo huts bezala hartu beharren, norbanako bakoitzak gaitasunaren garapenerako beharrezko duen faktore gisa hartzen da. Gainera, gizartean integratzeko eta norbanakoen autoestimurako funtsezko faktore ere bada, bizitzaren esparru guztiekin du lotura. Lanak, *dimentsio sozial* bat ere badu ordea, izan ere, norbanako bakoitzaren gaitasunak gizartearen zerbitzura jartzen dira, edozein motatako lan jarduera delarik ere -jardun produktiboa ordaindua, erreproduktibo (etxeko lana eta zaintza) ez ordaindua edota lan boluntarioa-.

Lanaren dimentsio politikoari dagokionez, ikuspegi ekonomiko honetan oinarritzen den jarduera ekonomiko orok norbanakoaren eskubide politikoak aitortzen dituela dio REASek. Jardun ekonomikoaren gaineko erabaki politiko guztiak - ekoizpen baliabideen jabetzan eta erabakietan parte hartzeko eskubidea, laneko eta gizarte-elkarrizketarako oinarritzko eskubidea, komunitatea asetzeko produzitu beharrekoa planifikatzeko parte hartze eskubidea- hartzen dira modu demokratiko eta parte hartzailean Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateetan. Dimentsio ekonomikoan, pertsonen premia ekonomikoak asetzeko lan baldintza duinak eta

kalitatezko enplegua defendatzen ditu. Oinarrizko beharrianak aseak izateak gaitasunak garatzeko zorua eskainiko digu.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago, korrante ekonomiko honek ekonomia konbentzionalak merkatuan ezarrita duen lehiakortasunaren aurrean, *lankidetza* -norbanakoen artean, enpresaren barruan zein kanpoko agente pribatu eta publikoekin eta gizartean oro har - duela joko-arau (REAS, 2011). Ekonomia Sozial eta Solidarioaren garapena, etika parte hartzaile eta demokratikoan oinarritu behar dela defendatzen dute, eta horretarako, *lankidetzaren kultura* sustatzen du. Horretarako, enpresa kooperatiboak eta enpresen arteko sare horizontalak bultzatzen ditu. Era honetara, egitura eta harreman parte hartzaile, demokratiko, solidario, garden eta konfiantzazkoak sortzen eta sustatzen ditu. Gainera, aurretik esan bezala, lankidetza prozesu hauek eremu guztietara -herri, eskualde, autonomi erkidego, estatu eta mundu-zabaltzea bilatzen du. Lankidetzaren printzipioa, gaitasunen ikuspegiaren bilakaeran azaltzen den dimentsio kolektiboaren -ongizatearen dimentsio kolektibo- beharrezkin bat dator. Hau da, Senek proposatutako funtsezko askatasunaren ideiak duen etika indibidualista gainditu, eta gaitasun kolektiboaren eta ongizate kolektiboaren beharra defendatzen du.

Lankidetza kultura sustatze aldera, Silvak hezkuntza kooperatiboaren eta balioetan oinarritutako hezkuntzaren beharra gehitzen du. Balore indibidualista eta lehiakorretan hezten duen hezkuntza ereduak alde batera ustea ezinbestekoa dela dio eta lankidetza bizi baldintza hobek sortzeko tresna eraginkorra dela erakutsi beharko lukeela hezkuntzak (Silva, 2010).

Beste alde batetik, ingurumenaren gaineko kontrola izatearen gaitasuna aipatzen du Nussbaumek eta bi alderdi -politikoa eta materiala- dituela gehitzen du (Nussbaum, 2008). Alde batetik, gai politikoen gaineko erabakiak hartzeko eskubidea dugu, hau da, parte hartze politikorako eskubidea edukitzeko gaitasuna. Bestetik, ingurumenaren gaineko kontrol materiala dugu, jabetzak -lurra edota ondasuna- izateko gaitasuna edo eskubidea.

Ekonomia konbentzionalean, geroz eta gehiago bilatzen da langilearen parte-hartzea eta inplikazioa enpresan, baina parte hartze hau, lanpostuaren antolamendu teknikora mugatzen da eta ez zaio benetako aitortza politikoa ematen langileari. Ekonomia Sozial eta Solidarioak autokudeaketa ekonomikoa du sustraian, eta parte hartzea, modu zabalago eta koherenteago batean ulertzen da. Modu zabalagoan eramaten da praktikara parte hartze eskubidea edo ingurumenaren gaineko kontrola. Praktika ekonomiko hau jarraitzen duten entitateen barnean, hurrengoak bermatzen da: enpresaren jabetzan, kudeaketan eta gobernu organoetan parte hartzeko eskubidea. Hala ere, ikuspegi ekonomiko honek parte hartze eskubidea bizitzaren esparru guztietara - gizartea, kultura, ekonomia, politika, etab.- zabaltzea defendatzen eta bultzatzen du. Ingurunearen gaineko kontrolean parte hartzeko gaitasunarekin lotura zuzena eginez, informazio eskubidea ere aipatzen da. Izan ere, beharrezkoa da edozein parte hartze mailatan parte hartu eta erabakiak hartzeko beharrezkoa den informazioa eskuragarri izatea. Informazio eskubidea, Ekonomia Sozial eta Solidarioko berdintasun printzipioarekin (REAS, 2011) ere lotu dezakegu. Pertsonak guztiek izan behar dute ingurunearen gaineko kontrolean parte hartzeko eskubidea edo gaitasuna, eta horretarako, beharrezkoa da pertsona orok informazio berdintsua izatea, modu orekatuan parte hartu eta erabakiak hartu ahal izateko.

Edonola ere, parte hartzea praktikara eramateak entitateetan baditu hainbat arrisku, zailtasun eta erronka (Lanki, 2004). Beste edozein esparrutan bezala teorian izan beharko zena eta praktikan dena ez dira berdinak. Ekonomia konbentzionalarekin etengabeko harremanean jarduteak, merkatu kapitalistako joerak barneratzea du ondorio. Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateek, ekonomia konbentzionaleko logikak barneratzeko eta instituzionalizazio prozesu bat izateko joera nabaria izan dute historikoki, eta are gehiago sektore lehiakorretan jarduten duten edota negozio bolumen handia izatera heldu diren entitateen kasuetan. Fenomeno hau, aurretik aipatu dugun merkatuko isomorfismoa bezala ere ezagutzen da. Joera nagusi bezala, hurrengoak aipa ditzakegu: korrante ekonomiko bereko gainontzeko enprekin harremanik ez izatea - gizarte proiektu zabalago direla ahaztu eta lankidetzaren printzipioa alde batera utziz; demokraziaren ordezkaria teknokrazia bilakatzea -jardun enpresarialean geroz eta erabaki azkarragoak eta konplexuagoak hartu behar dira, eta honek, langileak erabaki organoetatik aldentzea eta erabaki teknikoak, oro har, zuzendaritza teknikoari delegatzea ekar dezake - ; helburu ekonomikoa helburu sozialaren gainetik ezartzea; parte hartze eskubiderik ez duten behin behineko langileen kontratazioaren hazkuntza.

Merkatuko kapitalistako logikak barneratzearen joera hau beti egongo da, ekonomia konbentzionalan jarduten den bitartean, ondorioz, parte hartzea sustatzea etengabeko lana da. Horretarako, informazio gardentasuna, parte hartze sistema berriak eta etengabeko hezkuntza beharrezkoak izango dira (Lanki, 2004).

Azkenik, *beste espezieekin* - animaliekin, landareekin eta naturarekin- errespetuz eta tentuz bizitzeko gaitasuna dugu (Nussbaum, 2008). Gaitasun hau, ekonomia solidarioaren ingurumen-iraunkortasunaren printzipioarekin zuzenean loturik dago (REAS, 2011). Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegitik, jarduera ekonomiko oro naturarekin dago lotuta, era batera edo bestera, eta ondorioz, naturarekin harreman ona edukitzea aberastasun ekonomikoa dela defendatzen da (Coraggio, 2011). Ikuspegi ekonomiko honek, ekonomia ekologikotik egindako ekarpen esanguratsuenak ere barneratzen ditu, euren artean, ekonomia ez dela sistema itxi bat. Ikuspuntu ekologikoa bere egiten duen heinean gainera, beharrezkoa ikusten du jardunbide ekonomiko guztietan hirugarrenen gaineko eragina ebaluatzea (arrasto ekologikoa) eta eragina murrizteko - edo eraginik positiboa egiteko- borondatea izatea.

Ingurumen iraunkortasunaren ideia modu anitzetan eramaten da praktikara Ekonomia Sozial eta Solidarioan. Praktika egoki batzuk aipatzearen: ekoizpen garbia babestu eta sustatzea; energia berriztagarrien erabilera edo kutsaduraren murrizpena; hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena; kontsumo arduratsua; ingurumenaren babesa oinarri duten hezkuntza prozesuak eta ikerketak bultzatzea; elikadura burujabetzaren aldeko apustua; etab. Praktika guzti hauek bide egokian doaz eta mugimendu ekonomiko hau garapen iraunkorraren sustatzaile izan arren, ez da nahikoa. Praktika hauek asko hedatu behar dira oraindik, bai mugimenduaren barnealdean -zenbaitetan bigarren mailara pasatzen baita ingurunearen iraunkortasun printzipioa- zein kanpoaldean ere, eta eredu ekonomikoa bera eraldatu ezean, zaila izango da ekosistemaren iraunkortasuna mantentzea.

2.3.3. Gaitasun kolektiboak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Giza garapena eta ongizate pertsonal eta kolektiboa lortzera bidean gaitasun zentralak indartzen nola lagun dezakeen Ekonomia Sozial eta Solidarioak ikusi dugu aurreko atalean. Hala ere, lanaren 2.1.2.3. puntuan azaldu dugun moduan ongizatea lortzeko ezinbestekoa da gaitasun zentralak gain, sistemak berak balio publikoa sortzeko duen gaitasuna indartzea eta horretarako beharrezkoak diren gaitasun kolektiboak garatzea ezinbestekoa da. Ongizatea lortzeko bidea ezin da prozesu pertsonal bat izan, prozesu kolektibo bat da. Atal honetan, prozesu kolektibo honetan, Ekonomia Sozial eta Solidarioak gaitasun kolektiboak nola indartu ditzakeen aztertuko dugu. Horretarako, Baser eta Morganek (2008) proposatutako gaitasun kolektiboen zerrenda eta REASen ekonomia solidarioaren gutuneko printzipioak hartuko ditugu aztergai (REAS, 2011).

Aurretik aipatu bezala, gaitasun kolektibo guztiak elkarren artean loturik daude eta elkar elikatzen dira, ondorioz, gaitasunen kolektiboen eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko harremana aztertzean, ikuspegi ekonomiko honen printzipio eta praktika konkretuek gaitasun kolektibo bat baino gehiagorekin izango dutela elkarlotura aipatu behar dugu. Hurrengo taulan ikus dezakegu elkarlotura hori.

5. taula. Iturria: Lan honetarako egina, Guridi eta Perez(2014) oinarri hartuta

Baser eta Morganen (2008) proposatutako zerrendan, lehena - konpromisoa eta erakarpena-funtsezko gaitasuna izango da. Gaitasun honi esker lortuko dugu espazioak sortu, jabetza eduki,



erabakigarritasuna izan eta nortasun kolektibo indartsua lortzeko trebetasuna. Ekonomia Sozial eta Solidarioak guztiz bat egiten du gaitasun kolektibo honek azaltzen duenarekin, konpromisoa eta erakarpena etengabe bilatzen eta sustatzen den zerbait da. Ikuspegi ekonomiko honek, entitate edo erakundeetan parte hartzea eta beraien parte izatea bultzatzen du (REAS, 2011), eta behin kide izanda, informatuta egoteko eta parte hartzeko - jabetzan eta erabakiguneetan- eskubidea edukitzea defendatzen du. Proiektu komun baten parte izan, eta proiektu hori modu demokratiko eta parte hartzailean aurrera eramateak, nortasun kolektiboa sortzen du.

Eguneroko lanerako estimulu gehiago dituzte, modu kolektiboan pentsatzen dute, informatuago daude... eta honi esker erakundearen jardueraren gainean konpromiso hartzeko eta parte hartzeko gaitasuna sustatzen dute. Horregatik esan dezakegu, Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateen funtzionatzeko eta antolatzeko moduak *de facto* indartzen duela gaitasun kolektibo hau.

Gainera, ikuspegi ekonomiko honek pertsonak eta lana jartzen ditu prozesu ekonomikoan erdigunean (REAS, 2011) eta paradigma enpresarialaren aldaketa -enpresa konbentzionalan kapital metaketa erdigunean- honek hainbat gaitasun sustatu eta indartzeari ematen dio bide. Pertsonak eta beraien lana erdigunean jartzeak, pertsonen ahalduntzea bultzatzen du, izan ere, beraien ekimenerako eta sorkuntzarako gaitasunak - hausnartzeko, kritikatzeko, kudeatzeko, komunikatzeko, taldean lan egiteko, arriskuak hartzeko, ikertzeko... gaitasunak- indartzen ditu. Kide ahaldundu izateko gaitasunak indartzen ditu Ekonomia Sozial eta Solidarioaren logika enpresarialak eta sortzen duen nortasun kolektibo horri esker konfiantzan eta konpromisoan sustraitutako harremanak - barnera zein kanpora begira- sortzen dira. Paradigma enpresarial alternatibo honi esker, nortasun kolektibo ahaldunduago bat sortzen da eta kolektiboaren garapenaren bidean, zeregin logistikoak betetzea eta zerbitzuak eta teknikak eskaintzea errazagoa izango da entitatearentzat (Baser eta Morgan, 2008).

Honekin zuzenean loturik, lankidetzaren printzipioa daukagu (REAS, 2011). Lehiakortasunaren logikarekin apurtu eta lankidetzaren oso modu zabalean- pertsonen, erakundearen edota esparru desberdinetako agente desberdinen arteko elkarlana- ulertzen du ekonomia solidarioak. Konfiantza, konpromiso eta nortasun kolektiboan oinarritutako harremanei esker, pertsona eta entitate ezberdinen arteko elkar ikaskuntza eta lankidetzaren kooperatiboa -errekurtso, jakintza eta teknologiak elkarbanatu, elkarrekin jardun merkatuan, arriskuak hartzen lagundu...- sustatzen dute eremu guztietan.

Pertsona eta lana erdigunean jartzeak eta lankidetzaren printzipioa oinarri izatea, zuzenean lotua dago hirugarren gaitasun kolektiboarekin -harremanak edukitzea eta laguntzak eta baliabideak lortzea- eta laugarrenarekin -egokitzea eta berritzea- (Baser eta Morgan, 2008). korrante ekonomiko honetako enpresa bat, beste enpresa edo agente desberdinekin harremanak egoteak -aurrerik aipatutako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren balore eta printzipioen parametroetan-, gaur eguneko testuinguru aldakor eta konplexuetan bizirik irauteko eta garatzeko beharrezkoak diren ideia berri, laguntza edota baliabideak errazago lortzen laguntzen du. Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateak, etengabeko egokitze eta berritze prozesu batean aurrera egiteko gaitasuna izan beharko dute gainera, eta berau sustatzeko eta indartzeko ahaleginak egin. Egokitzapen eta berritze hauek, testuinguruaren aldaketan ondorio izango dira eta aldaketa hauek hainbat entitateri eragingo die aldi berean, ez soilik erakunde bati. Ondorioz, garatu beharreko egokitze eta berritzeak errazago eramango dira aurrera harreman sareko elkarlanaren bidez.

Egokitze eta berritze gaitasuna, argi erakutsi du Ekonomia Sozial eta Solidarioak azkenengo egiturazko krisiaren aurrean izan duen erresistentzia gaitasuna erakutsiz. EAEn ekonomia sozialaren bilakaera eta ekonomia konbentzionalaren bilakaera alderatuz¹⁸, argi eta garbi esan

¹⁸ Kooperatiba eta sozietate laboralen -ekonomia sozialaren errepresentazio esanguratsuen- entitate eta enpleguen bilakaera begiraturaz, argi ikus dezakegu ekonomia konbentzionalarekin duen aldea. 2010ean, 2.313 entitate ziren eta 65.408 pertsonari

dezakegu ekonomia sozialak askoz hobeto eutsi diola krisiari eta hobeto jakin duela bere burua egokitzen krisi garaietara (OVES-GEEB, 2014). Gainera, ezin dugu ahaztu, langabezia egiturazko arazotzat hartzen den gizarte honetan, Ekonomia Sozial eta Solidarioak lanpostuak sortzeko, mantentzeko eta babesteko ahalmena berezko bokazio duela (Lanki, 2004).

Aurrekoaren haritik tiraka, ekonomia solidarioaren gutuneko ingurunearekiko konpromisoaren printzipioa ezinbestean aipatu behar dugu (REAS, 2011). Printzipio honek, gaitasun kolektiboak indartzen laguntzen du, izan ere, tokiko garapen iraunkor eta komunitarioa bultzatzen du, eta horretarako, bere ingurunean eragiten eta ekarpena egiten saiatzen da egitura sozial eta ekonomikoetako gainontzeko erakundeen sareetan parte hartuz. Hau da, ingurunearen eraldaketa sozioekonomikoarekin konprometitu dago eta horretarako hainbat irtenbide edo praktika sozioekonomiko -merkatu soziala bultzatu, finantza etikoen bidez finantzatu, kontsumo arduratsua izan, energia berriztagarriez hornitu, etab.- garatzen ditu. Ekonomia Sozial eta Solidarioak ingurunearekin duen konpromisoak, zuzenean laguntzen du erakundeetako konpromisoa eta parte hartzea sustatzeko, eta erakundearentzat -eta beste erakunde batzuentzat- espazioak sortzeko eta indartzeko gaitasunak lortzen (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

Honez gain, aipatu beharra dago beste era batera ere ematen diola Ekonomia Sozial eta Solidarioak tokiko garapen endogenoari bulkada. Mugimendu honetako entitateen artean, joera nagusia sortzen diren etekinak lurraldean bertan berrinbertitzen da eta metaketa prozesua ere bertan ematen da. Era berean, tokian tokiko baliabideak edo errekurtsuak - ezagutza, giza kapitala, konfiantza, ospea, etab.- mobilizatzeko gaitasuna ere badu. Gainera, izugarriko potetzialitatea du ikuspegi ekonomiko honek kultura ekintzailea -soziala edota ekonomikoa- bultzatzeko, eta honi esker tokiko premiei erantzungo dieten subjektu berriak sortzeko hazia ereiten da. Ekonomia Sozial eta Solidarioak beraz, estatuen deszentralizazio prozesuan paper esanguratsua joko dezakeela esan dezakegu, eta lurraldeei autonomia handiago lortzen lagun diezaiekeela.

Bukatzeko, aniztasunaren eta koherentziaren arteko oreka kudeatzeko erronkari aurre egingo dion gaitasun kolektiboa daukagu (Baser eta Morgan, 2008). Geroz eta zailagoa da gaur eguneko testuinguru konplexuetan bizirautea, eta are gehiago erakundeen barneko zatiketak ekidinda. Izan ere, entitateen barnean zein entitateen arteko sare desberdinetan, interes, nortasun, ikuspegi eta pentsatzeko modu desberdinak daude, eta kasu askotan zaila egiten da aniztasunaren eta koherentziaren arteko oreka hori mantentzea (Guridi eta Perez de Mendiguren, 2014).

Ekonomia Sozialaren legeak esaterako, instituzio publikoekiko autonomia izatea eskatzen du - orokorrean-, hala ere, mugimenduaren parte diren hainbat entitatek laguntza publikoak jasotzen dituzte. Honek ez du esan nahi, euren printzipioekiko koherenteak ez direnik entitate hauek, baizik eta oreka horren bila diru laguntza batzuk jasotzea ongi ikusi dutela. Beharrezkoa da koherentzia, ikuspegi ekonomiko honen pean dena posible izan ez dadin, baina ez da muturreraino eramanda ulertu behar koherentzia eta askotan koherenteagoa izan daiteke aniztasuna onartzea. Gainera, ezin dugu ahaztu gaitasun, interes, nortasun, ikuspegi eta

ematen ziren enplegua; 2013an berriz, 2.210 entitate ziren eta 62.770 enplegu (OVES-GEEB, 2014). Ekonomia konbentzionalen desagertu eta suntsitu diren enpresa eta enplegu kopurua askoz handiagoa da (INE).

entsatzeko modu ezberdinek ere aberastasun handia ekartzen dutela eta aniztasun horretatik gauza berriak jaiotzen direla. Ekitatearen printzipioak entitateetako norbanako denak parean jartzen ditu eta parte hartze mekanismoen bitartez bermatzen da aniztasuna. Beraz, aniztasun horretatik denen artean erabakitakoa koherentea izango dela esan dezakegu.

Koherentziaren izenean, Euskal Herriko mugimendu kooperatiboak, hein handi batean, ezin izan du bateratasun hori mantendu. Mondragon esperientzia kooperatiboak¹⁹ esaterako ezin izan du oreka hau mantendu, eta ondorioz, *Mondragon* taldeko sektore batetik *Ner Group*²⁰ jaio da . Beste adibide bat aipatzearren -nahiz eta bilakaera desberdina izan-, *Olatukoop* sarearen sorrera daukagu. Sare honek, ekonomia sozial eta eraldatzailea kontzeptua sortu eta praktikara eraman du -Euskal Herrian ekonomia sozialak hartu duen norabidea ikusirik- eta ikuspegi edo korrante berri honetan oinarritutako hirugarren olatu kooperatibo bat bultzatzea du helburu. Hala ere, ez da negatiboa sare edo mugimendu bat baino gehiago egotea eta koherentzia mantentzen dela esan dezakegu, izan ere, demokratikoki onartutako banaketak dira.

¹⁹ MCC (Mondragon Corporación Cooperativa): 1956an osatu zuten Jose Maria Arizmendiarretak -urte batzuk lehenago(1943) eskola bat sortu zuen- eta beste 4 kidek ULGOR kooperatiba sortu zutenean. Arizmendiarreta izan zen lehenengo olatu kooperatiboa ekarri zuen ideologoa. Urte luze hauetan aldaketa asko bizi izan ditu kooperatiba taldeak eta gaur egun 260 entitatek, 74.117 langilek eta 15 zentro teknologikok osatzen dute taldea.

²⁰ *Ner Group*: Mondragon taldetik irtendako kooperatiba ezberdinek sortu zuten 2012an *Ner Group*. Talde honek, giza garapen justu eta jasangarri baten aldeko apustua egiten du. Aldaketa oro sozioen eta langileen artean erabakitze da eta hurrengoak dira beraien printzipio edo baloreak: Etika, transparentzia, komunikazioa eta informazioa, konfidantza, talde autokudeatuak, askatasuna, erresposabilitatea, erabaki justuak, etorkizuneko ikuspegia, elkartasuna, ordu extrarik ez, ustaren banaketa, kaleratzerik ez eta gizarteko integrazioa (<http://www.nergroup.org/>).

3. TOKIKO GARAPEN AGENTZIAK(TGA)

Lan honen lehenengoko puntuan -Globalizazioa eta gobernantza eredua- gobernantza globalerako Bretton Woodsetik irteerako instituzioen gaitasun ezak -globalizazio neoliberalak dakarren merkatuaren eta agente pribatuen indarraren hazkuntzaren ondorioz- sortutako krisi instituzionala aipatu dugu. Hau da, merkatuaren joera globalizatzaileak eta nazioz gaindiko agente pribatuen nagusitasunak, nazioz gaindiko instituzio hauek, eta estatuek oro har, ekonomia eta politikan eragiteko duen ahalmenaren galera nabarrian utzi du.

Gobernantza globalaren krisiak eta globalizazio neoliberalaren oldarraldiak, gobernantza maila desberdinez eta deszentralizazioz hitz egitera eraman gaitu. Izan ere, ekonomia globala ez da guztiz homogenea oraindik eta espazio geografiko bakoitzeko baldintzek definitzen dute nolakoa izango den akumulazio prozesua tokian toki. Kapitalaren akumulazio prozesu bakoitzak egituraketa sozio-espazial finko bat -territorioa- izango duela aipatu dugu aurretik eta ondorioz, gobernantza maila ezberdinen etengabeko talka horretan lehiatu beharko dira gobernantza globala eta lokala, nahiz eta joera globalizatzaileak indar korrelazioan gailentzen den.

Gobernantza maila ezberdinen arteko harreman dialektiko honetan, joera globalizatzaileak indar gehiago badu ere beharrezkoa ikusten dugu espazio lokalen eta gobernantza lokalaren berrindartze bat bultzatzea. Izan ere, garapen ereduz hausnartzen aritu garenean, Tokiko Giza Garapen estrategia jasangarri bat garatuko bada tokiko dimentsioan -garapen endogenoa eta subsidiarotasun printzipioa- gauzatuko dela ezinbesteko premisa dela ikusi dugu.

Bide honetan, Tokiko Garapen Agentziak gobernantza lokaleko tresna eraginkorrak izan daitezkeela uste dugu. Horregatik, aurrerago aztertuko ditugun Tokiko Garapen Agentzien biak objetiboki aztertze, agentzien jatorria, bilakaera eta ezaugarri nagusiak ezagutuko ditugu, ostean bi esperientzien ezaugarritze bat egin ahal izateko.

3.1. JATORRIA ETA GARAPENA

Tokiko Garapen Agentziak gobernantza lokalaren garapen instituzionalaren emaitza dira eta Espainiar estatuan koiuntura konkretu batean jaiotzen dira, botere politikoa "goitik behera" -probintzia, eskualde eta udaletxeak- eta "behetik gora" -instituzio europarren sorrera- birbanatzen den momentuan bereziki.

1978an bizitako trantsizioarekin batera autonomi erkidegoak eta udaletxe demokratikoak sortu ziren eta administrazioaren maila desberdinetan eskumenen banaketa berri bat eman zen. Autonomi Erkidegoek botere edo eskumen gehiago hartu zituzten bere gain, hau da, administrazioko funtzioen eta fondo publikoen atal handi bat hartu zuten bere gain. Udaletxeek, aldez, boterearen deszentralizazio urriago bat bizi izan zuten eta botere gutxiago bereganatu

zuten (Gainza, 2009). 2006an, Boschek (2006) egindako ikerketa baten arabera, administrazioko gastu publikoaren kopurua hurrengo erara banatzen da Espainiar estatuan: %52 estatu zentralak, %35 autonomi erkidegoek eta %13 udaletxeek. EAEn kasuan ordea, aurrekontu publikoaren banaketari dagozkion portzentajeak desberdinak dira, Eusko Jaurlaritza eskumen gehiago baititu gainontzeko erkidegoekin alderatuz (Nafarroa salbu) eta administrazioan maila bat gehiago dagoelako, diputazioak -aurrekontu publikoaren bilketan eta erabilpenean eskumenak dituzte-. EAEn beraz, diputazioen maila kenduta, kalkulatzeko da udaletxeek aurrekontuaren %16 eta %20 artean kudeatzen dutela (Bosch, 2006). Azken urteetan gainera, ongizate estatuaren galeraren ondorioz, udaletxeek bere eskumenen gaintik dauden funtzioak bere gain hartu behar izan dituzte. Funtzio hauen artean aurki ditzakegu zerbitzu sozialen eskaintza, kulturaren kudeaketa, sustapen ekonomikoa edota herritarren parte hartzea bultzatzea (Gainza, 2009).

Aldi berean, "behetik gorako" joera hori ere ematen da ordea, lan honetako lehen atalean argi azaldu dugun bezala gobernantza globalaren gaia jorratzean. Europar Batasunak ordura arte estatuarenak izan ziren eskumenak bere gain hartu zituen, horien artean tokiko garapenarekin lotutako hainbat ekinbide. Gainera, nazioz gairako instituzio europarrek Europako Gizarte Funtza (EGIF) eta Europako Garapen Funtza (EGAF) sortu eta erabili dituzte tokiko garapena bultzatzeko.

3.2. TOKIKO GARAPEN AGENTZIEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Tokiko Garapen Agentzia desberdinak aztertzeke bi lerro nagusitan banatuko dugu analisia: Batetik, agentzien antolaketa eredua edo egituraketa aztertzeke ezaugarri konkretu batzuk -jatorria, tamaina, izaera juridikoa, ekintza esparrua eta erreferentzia teorikoa- aurkeztuko ditugu eta bestetik agentziaren garapen estrategia nolakoa den aztertzen lagunduko diguten aldagaiak -funtzioak eta lehentasunak, ehun enpresarialarekin harremana eta garapenerako foro estrategiko lokalak- zerrendatuko ditugu.

3.2.1. Antolaketa eredua

Tamaina

Agentzien egituraketa ezaugarritzerakoan, tamaina kontutan hartu beharreko aldagaia da eta bi neurgailu hauek erabil ditzakegu tamaina neurtzeko, aurrekontua eta langile kopurua.

- Aurrekontua. Aurrekontu osoa neurgailu esanguratsua izan daitekeela uste dugu eta lau taldetan banatzea proposatzen dugu: handia, ertain-handia, ertain-txikia eta txikia. Hala ere, aurrekontu totala ez litzateke adierazle bakarria izan behar, izan ere, agentziaren eraginpean dagoen biztanleriaren kopurua eta aurrekontu osoa izan behar dira kontuan. Horregatik, interesgarria ikusten dugu, per capita aurrekontua, neurgailu gisa gehitzea aurrekontu osoari. Beste alde batetik, aurrekontua zein esparrutara

bideratzen den aztertzea ere beharrezkoa ikusten dugu, kasu batzuetan esparru jakin batera bideratzen baita soilik - enplegua eta formazioa esaterako-.

- Langile kopurua. Tokiko Garapen Agentzietan dauden langile kopuruak ere agentziaren tamaina neurtzen lagun dezakegu.

Izaera juridikoa

Lehengoko sailkapen bat egiteko garapen agentzia zeinek egituratzen duen sailkatu behar dugu, hurrengo taldetan: udaletxeak, mankomunitateak edota erakunde autonomoek osatutakoak aurrekontu publikoaren partizipazioarekin. Eta talde hauen barruan hurrengo izaera juridikoak aurki ditzakegu:

- Sozietate anonimoak
- Erantzukizun mugatuko sozietatea
- Erakunde autonomo lokalak

Jatorria

Tokiko Garapen Agentziak, fase desberdinetan joan dira sortzen bai EAEn, Nafarroan eta baita Espainiar estatu osoan ere, faseak oso antzerakoak izan dira leku guztietan. Atal honetan, EAEko agentzien egituratze fase desberdinak eta zein joera jarraitu duten hartuko ditugu ardatz.

Aurretik aipatu bezala, bi joeratan oinarrituak sortu dira Tokiko Garapen Agentziak: behetik gorako instituzionalizazioa -ekinbide lokala- eta goitik beherako instituzionalizazioa - *supra-lokala* - .

Joeraz gain oso zaila egiten da jatorriaren arabera sailkatzea , izan ere, hein handi batean agentzia guztiak udaletxeetatik sortu dira. Ia kasu denetan, alkateak izan ziren agentzia hauek sortzea erabaki zutenak, beti ere, beste instituzio batzuen -Diputazioa, Eusko Jaurlaritza, Enpleguko Institutu Nazionala (EIN), diru-funts europarrak- laguntzarekin. Desberdintasuna ordea, laguntza instituzio *supra-lokaletatik* sortuak diren agentzien eta finantzaketa fondo desberdinak erabili dituztenen artean dago.

Hurrengoak dira EAE mailan, Tokiko Garapen Agentzien sorrerari dagokionez, bereiz ditzakegun fase desberdinak:

- 1.fasea (1985-1992): Lehen Tokiko Garapen Agentziak, 80.hamarkadako erdialdetik aurrera, sortu ziren garaiko krisi ekonomiko gogorrari -langabezi tasa oso altuak-erantzuna emateko asmoarekin. Behetik gorako prozesua izan zen. Herri desberdinetako alkateek langabeziaren egoera lazgarriari erantzuna emateko alternatiba gisa sortu zituzten lehen Tokiko Garapen Agentziak Euskal Herrian ,eta hori dela eta, enplegu planak garatu zituzten bereziki. Garapen instituzional berritzailetzat jo ziren eta herri babesa nabarmena eduki zuten. Izaera juridikoaren eta formaren gainean hainbat eztabaida egon ziren, udalerrri batzuetan udaletxearen egituraren barneko sail bezala integratu zituzten Tokiko Garapen Agentziak, beste kasu batzuetan ordea, finantzazio publikoarekin instituzio autonomo bezala sortu zituzten eta forma juridiko desberdinetan egikaritu ziren.

- 2.fasea (1993-1999): Hurrengo urteetan zehar langabezia tasa jaisten joan zen pixkanaka- pixkanaka. 90.hamarkadaren erdialdetik aurrera, instituzio eredu hau erreferentziatzat hartzen joan ziren beste hainbat udalerrri eta eskualde ere, eta beste hainbat agentzia sortu zituzten -bereziki Gipuzkoan-. Tokiko ikuspegia zuten berregituraketa sozioekonomirako tresna egokiak zirela ikusi ziren eta aurreko faseko ereduak oinarri hartu beste hainbat sortu ziren. Gipuzkoaren kasuan esaterako, Diputazioak plan estrategikoak -agentziak sortzea helburu zutenak- eta agentzia berriak sortzeko finantzazioa eman zuen. Araba eta Bizkaian aldiz, ez zen apusturik egin mota honetako garapen instituzional lokalean ,eta ondorioz, era honetako agentzia gutxi sortu ziren. Beste alde batetik, aipatu beharra dago, garai honetan europatik fondo asko jarri zirela tokiko garapena eta enplegu planak sustatzeko. Azkenik, ekintza esparruari dagokionez pixkanaka zabaltzen joan ziren Tokiko Garapen Agentziak, enprekin geroz eta harreman gehiago mantentzen ziren eta autoenplegurako lehenengoko planak ere azaldu ziren.
- 3.fasea(2000-...): Azken fase honetan goitik beherako joera aldaketa bat egon dela esan dezakegu EAren kasuan. Izan ere, Bizkaian esaterako, Bizkaiko Foru aldundiak eta BBKk Behargintza programarekin Tokiko Garapen Agentziak sortzeko finantzazioa eman du eta Bizkaian asko hedatu dira horri esker. Azken fase honetako bereizgarria, agentzia ezberdinak ekintza esparrua zabaltzen doazela errealitate berrietan eta eskari sozialean oinarrituz -zerbitzu sozialak, mikroenpresen sorrera, berrikuntza, etab.- eta tokiko giza garapenaren eta tokiko garapenaren inguruko teoria eta eredu berriak barneratuz eta praktikara eramanez doazela da.

Ekintza esparrua

Ekintza esparruaren arabera sailkatzeko hurrengo banaketa egoki ikusten dugu:

- Metropolia. Hiriburuetan lan egiten duten Tokiko Garapen Agentziak.
- Eskualdea. Maila honetan bi azpitalde bereiz ditzakegu
 - Eskualde tradizionalak: Eskualde mailako instituzioak osatuak daudenean.
 - Udalerrien elkartzea: Eskualde mailako instituziorik ez egon arren, espazio sozial eta funtzional bat elkarbanatzen duten udalerrri desberdinen elkargoa.
- Udalerria. Herri mailara mugatzen diren agentziak.

Organigrama

Garapen agentziek antolatze hainbat modu izan ahal dituzte eta antolaketa ereduaren organigrama ezagutzea aldagai garrantzitsua dela uste dugu. Organigramak, garapen agentziaren nolakotasuna ezagutzen eta garapen estrategia aurrera eramateko duen gaitasuna ezagutzen lagunduko digu. Eguneroko funtzionamenduan antolaketa eredu horizontal edo bertikala duen agentziak jakitea faktore esanguratsua da. Tokiko Garapen Agentziaren organigrama eta funtzionamendua ,esaterako, bertikala baldin bada, zaila izango da agentzia horretatik Tokiko Giza Garapenean oinarritutako estrategia bat garatzea.

Organigrama ezagutzeko arduradunaren balorazioan eta agentziako dokumentazioan oinarrituko gara.

3.2.2. Garapen estrategia

Tokiko Garapen Agentziak ezaugarritzerako edo sailkatzerako orduan, zein garapen estrategia daramaten aurrera jakitea oso garrantzitsua da. Estrategiaren nolakotasuna ezagutzeko, interesgarria iruditzen zaigu hiru aldagai hauek aztertzea: funtzioak eta lehentasunak; ehun enpresarialarekin harremana; eta garapenerako foro estrategiko lokalak.

Funtzioak eta lehentasunak

Enplegua izan da tradizionalki Tokiko Garapen Agentzien ekintza esparru nagusia, izan ere, hasiera batean, Tokiko Garapen Agentziak 80.hamarkadako krisi gogorrari aurre egiteko jaio ziren eta *enplegu eta formazio* politiketan jarri zuten lehentasuna. Denborak aurrera egin ahala, egoera sozioekonomikoak hobera egin zuen eta ekintza esparru berriak barneratuz joan dira Tokiko Garapen Agentziak. Hainbat esparru berritan hasi ziren eragiten: mikroenpresen sustapenean, enpresentzako zerbitzuetan, turismoan, komertzioan, ingurugiroan edota zerbitzu mankomunatu edo sozialetan.

Hein handi batean, lehentasunak beharren arabera daudela finkatuak esan dezakegu, izan ere, agentzia hauek tokiko gizartearen eta ekonomiaren problematika edo behar konkretu batzuei erantzuteko asmoz sortuak dira. Hala ere, garaiko eta tokiko problematika eta beharretik haratago, beste hainbat faktore esanguratsu egon dira Tokiko Garapen Agentzien funtzio eta lehentasunak zehaztu dituztenak. Esaterako, udaletxeek agentziei esleitutako funtzioak.

Funtzio eta lehentasunen neurgailu gisa hurrengo bi hauek erabil ditzakegu: batetik, esparrukako aurrekontuaren banaketa; eta bestetik, arduradunaren balorazioa.

Programa nagusiak

Kasu gehienetan, funtzio eta lehentasunen arabera, Tokiko Garapen Agentziek, ekintza esparruka programa nagusiak zehazten dituzte. Agentzien politikak programa hauen bitartez bideratzen dira. Hau da, programa hauek dira garapen estrategiak egikaritzeko egitasmo zehatzen multzoak. Lan honetan aztertuko ditugun bi esperientziak bereziak dira, ekonomia sozialeko programa nagusiak baitituzte eta arrazoi horregatik hartzen ditugu aztergai.

Programa nagusiak zeintzuk diren jakiteko eta beraien nolakotasuna ezagutzeko agentziako arduradunaren balorazioan eta agentziako dokumentazioan oinarrituko gara.

Ehun enpresarialarekin eta mugimendu/eragile sozialekin harremana

Garapen agentziek agente lokalekin eta tokiko enpresekin duten harremana neurtzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Ea ehun enpresarialarekin eta territorioko mugimendu edota eragile sozialekin harreman iraunkor bat mantentzeko gaitasuna duen edo ez. Edukitzekotan, aspektu garrantzitsu bat, erlazioa duten enpresa eta eragile sozialen tipologia aztertzea da. Ehun enpresarialari dagokionez, normalean erraztasun gehiago izaten da tokiko mikroenpresa edota komertzioekin harremanak mantentzea. Enpresa handiekin harremana izatea zailagoa izaten da, izan ere, hauek, beste agente edo erakunde - ISEB(Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako

Baltzua) edota probintzietako sustapen ekonomikoko saila- batzuegana jotzen dute. Beste alde batetik, enpresen sektorearen arabera ere desberdina izango da harremana.

Hala ere, oso zaila da harreman hauek sailkatzea eta ezin dugu neurgailu homogenea bat ezarri harremanak neurtzeko. Hala ere, neurgailu gisa proiektuaren arduradunaren balorazioa hartuko dugu.

Garapenerako foro edo sare estrategiko lokalak

Azken aldagai esanguratsu eta bereizgarria, garapenerako foro estrategiko lokalak martxan jartzea da. Azken urteetan, esparru akademikotik, foro estrategiko hauen beharra azaleratu da eta Tokiko Garapen Agentzietatik ere foro hauen potentzialtasuna nabarian utzi da. Beharrezko ikusten dute foro hauen bitartez sareak sortu eta sare hauek izatea tokian tokiko lehentasunak eta ekintza esparruak zeintzuk izan behar diren definitzen dituztenak.

Sareez hitz egiten dugunean, izaera estrategikoa duten sareez ari gara eta ez Tokiko Garapen Agentziek beren politikak garatzeko duten harreman sareaz. Adibide bat jartzearren, Agenda 21 programa diseinatzeko eta aplikatzeko agentziak tokiko agente desberdinekin biltzen dira. Modu funtzionalean erabiltzen dituzte sare hauek, hala ere, sare hauek ez dute izaera estrategikorik eta ez dute eragiten garapen lokalaren aspektu estrukturaletan.

Hori dela eta, enpresa, formazio zentro, agente sozial, eta instituzio publikoak bilduko dituen elkarlan espazio bat sortu behar da. Espazio de foro hauen betebeharra izango da garapen lokalaren prozesua diseinatzea -lehentasunak eta politikak zehaztu-, sustatzea eta gidatzea. Foro estrategiko lokal hauetatik sortuko dira garapen lokalerako elkarlan sareak edo "clusters lokalak" eta honi esker komunitatea bera izango bere territorioaren gidaritza hartuko duena.

Neurgailua kasu honetan beraz, Tokiko Garapen Agentziek izaera estrategikoa duen sare edo egitura bat sortu duen edo ez izango da.

Erreferentzia teorikoak

Beste aldagai garrantzitsuetako bat Tokiko Garapen Agentzia bakoitzak hartzen duen oinarri edo erreferentzia teorikoa da. Interesgarria da jakitea ea garapen agentziak industrializazio garaiko garapen territorialeko ereduak - barruti industrialak, ingurune berritzaileak, etab.- hartu dituzten erreferentzia gisa, eta ea aurrerago tokiko garapeneko eredu, teoria eta diskurtso berriak joan diren erreferentzia gisa hartzen. Azken urteetan sortutako hainbat garapen agentziek esaterako, ekonomia sozial eta solidarioaren ekarpen teorikoa barneratu dituzte eta horretan oinarrituz estrategia desberdinak garatu dizute. Erreferentzia teorikoek zehaztuko dute hein handi baten garapen estrategia.

3.2.3. Ezaugarritze taula

Tokiko Garapen Agentzien ezaugarriak ikusgarriago azaltzeko hurrengo ezaugarritze taula (3.taula) erabiliko dugu. Taula honetan antolaketa eredu eta garapen estrategia barnebilduko ditugu eta bi esperientzien ezaugarriak argiago ikusteko balioko digu

EZAUGARRITZE TAULA

	ANTOLAKETA EREDUA					GARAPEN ESTRATEGIA				
	Tamaina	Izaera juridikoa	Jatorria	Ekintza esparrua	Organigrama	Funtzioak eta lehentasunak	Programa nagusiak	Ehun enpresialarekin eta mugimendu/eragile sozialekin harremana	Sare edo foro estrategikoak	Erreferentzia teorikoak
EZAUGARRIAK	- Handia - Ertain-handia - Ertain-txikia -Txikia	Mankomunitate a, Udaletxea,Erak unde autonomoen elkargoa -Sozietate anonimoak -Erantzukizun mugatuko sozietateak -Erakunde autonomo lokalak	-Behetik gora/Goitik behera -Fasea	-Metropolia -Eskualdea -Udalerria	- Antolaketa ereduaren organigrama - Horizontal/bertikal	-Enplegua eta formazioa - Mikroenpresen sustapena -Turismoa -Komertzioa - Zerbitzu sozialak - ...	- Funtzio eta lehentasunen arabera martxan dauzkaten programa nagusiak	-Enpresa desberdinekin eta mugimendu/eragile sozialekin harremanik duen edo ez. - Enpresen sektorea -Zein Mugimendu/eragile sozialekin harremana -Enpresa mota	-Sare edo foro estrategikorik martxan jarri duen edo ez. -Egitura, foro edo sarearen izena.	Tokiko giza garapeneko, tokiko garapeneko edota bestelako teoria eta eredu berriak barneratzen ditu edo ez. Zeintzuk?
NEURGAILUAK	-Aurrekontu osoa/Aurrekontua per capita -Langile kopurua	Mankomunitate a, Udaletxea,Erak unde autonomoen elkargoa -Sozietate anonimoak -Erantzukizun mugatuko sozietateak -Erakunde autonomo lokalak	-Sorrera urtea -Behetik gora edo goitik behera	-Metropolia -Eskualdea -Udalerria	Arduradunaren balorazioa eta agentziaren dokumentazioa	-Aurrekontuaren banaketa esparruko -Arduradunaren balorazioa	Arduradunaren balorazioa eta agentziako dokumentazioa	Arduradunaren balorazioa	Sare lokalaren egitura formala	Tokiko giza garapeneko, tokiko garapeneko edota bestelako teoria eta eredu berriak barneratzen ditu edo ez. Zeintzuk?

6.taula. Lan honetarako egina, Gainza (2009) oinarri harturik

4. ANALISI ENPIRIKOA

4.1. METODOLOGIA

Marko teorikoa oinarri, analisirako bi Tokiko Garapen Agentziren esperientziak aukeratu ditugu: Beterri Garapen Integraleko Agentzia eta *Agència de Desenvolupament del Berguedà*. Bi esperientzia hauek aukeratzearen arrazoia hurrengoa da: Tokiko Garapen Agentzien gehiengoak tokiko garapena du garapen eredutzat, hau da, hazkunde ekonomikoaren paradigma dute ardatz -izugarrizko kostu sozial eta ekologikoak sortu dituen paradigma- eta hazkundeko ekonomikoak bere horretan, garapena sortzen duela uste du. Tokiko garapenak beraz, ez du giza garapena -gizakiaren bizi kalitatea eta oinarrizko justizia soziala- kontuan hartzen, hori dela eta Tokiko Giza Garapenaren ikuspegia Ekonomia Sozial eta Solidarioaren bitartez txertatu duten garapen agentziak hartuko ditugu aztergai. Bi esperientzia hauek, ez dute Tokiko Giza Garapenaren filosofia zuzenean barnebiltzen, hala ere, Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako programa edota politikak garatzen dituzte, eta gure hipotesiaren arabera, paradigma ekonomiko hau euskarri gisa hartzeak Tokiko Giza Garapena sustatzen du.

Analisiaren helburua nagusia, Tokiko Garapen Agentziek eta Ekonomia Solidarioak aliatu gisa Tokiko Giza Garapen sustatzeko duten gaitasuna neurtzea da. Hasteko, gaitasunen ikuspegiari oinarrituz gaitasun zentral eta kolektiboak bultzatzeko duten gaitasuna neurtu. Horrekin batera, agentziek tresna instituzional gisa norbanako, kolektibo edota proiektu ezberdinei eskaintzen dizkieten aukerak eta mehatxuak ezagutzea. Hau da, Ekonomia Sozial eta Solidarioak euskarri ekonomiko gisa eta Tokiko Garapen Agentziak tresna instituzional gisa Tokiko Giza Garapena sustatzeko duten gaitasuna neurtzea. Bigarren mailako helburu gisa, garrantzitsua irudi zaigu elkarrizketatuek Tokiko Giza Garapenaren gainean duten ezagutza eta iritzia ezagutzea.

Analisi hau burutzeko metodologia bitan banatuko dugu: Analisi objektiboa eta analisi subjektiboa. Analisi objektiboarekin hasteko, esperientzia bakoitzaren aurkezpen edo azalpen bat egingo da esperientziak ezagutzeko. Aurkezpen honetan, agentzia bakoitzaren jatorria eta bilakaera azalduko dira laburki; ostean, agentzia bakoitzak dituen Ekonomia Sozial eta Solidarioko programa edo egitasmoak zerrendatuko dira; eta azkenik, "Tokiko Garapen Agentzien ezaugarri nagusiak" atalean proposatu dugun agentzien *ezaugarritze taula* -6. taula- beteko da agentziek eta bertako arduradunak eskainitako informazioaren bitartez.

Behin esperientzien aurkezpena eginik eta beraien Ekonomia Sozial eta Solidarioko egitasmoak eta ezaugarriak azalduta, analisi subjektiboarekin sartuko gara. Interesgarria iruditu zaigu garapen agentzien ekintza esparruan jardun duten subjektu ezberdinak elkarrizketatzea. Hau da, Ekonomia Sozial eta Solidarioko programetan modu batera edo bestera parte hartu duten agenteak. Horregatik, egoki ikusi dugu analisi subjektiborako *elkarrizketa fitxa* bat diseinatu eta hiru subjektu desberdinei elkarrizketen bitartez fitxa hau betetzera gonbidatzea. Elkarrizketatu ditugun hiru subjektuak hurrengoak izango lirateke: Ekonomia Sozial eta Solidarioaren saila edo programa daraman arduraduna, agentziaren Ekonomia Sozial eta Solidarioko programaren batean sartua den talde edo norbanakoren bat eta egitasmo edo programa hauei esker bere

entitatea sortu eta martxan duen talde edo norbanakoren bat. Sei fitxa izango dira beraz analisi kualitatibotik aterako ditugunak.

4.2. ANALISIRAKO BI ESPERIENTZIEN AURKEZPENA

Aurreko atalean azaldu bezala, bi Tokiko Garapen Agentzia aztertzea da -Beterri Garapen Integraleko Agentzia eta *Agència de Desenvolupament del Bergueda*- analisi enpiriko honen funtsa. Atal honetan esperientzia bakoitzaren aurkezpen bat eta ezaugarritze objektibo bat egingo da garapen agentziek esleitutako informazioan oinarrituz.

4.2.1. Beterri Garapen Integraleko Agentzia

4.2.1.1. *Jatorria eta bilakaera*

Buruntzaldea-Beterrin sortze bidean dagoen Garapen Agentziaren ekintza eremua edo esparrua Buruntzaldeako eskualdea da -Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil- eta eskualde hau eskualde mailako egitura edo instituzio egonkorrik ez duen bakarra da Gipuzkoa mailan. Eskualde mailan egiturarik ez eduki arren ordea, udalerrien arteko elkarlana nabaria izan da betidanik esparru ezberdinetan egindako hitzarmenak medio. Batzuk aipatzearren: Kirolaren eremuan lankidetzak sustatzeko hitzarmena; Euskara bultzatzeko lortutako akordioa ; Eskualde mailako Turismoaren Plan Estrategikoa burutzeko lankidetzak plana; Eskualdeko Enplegu Plana.

Lankidetzarako plan guzti hauen atzean udaletxe ezberdinen arteko elkarlana egon da, hala ere, mota honetako hitzarmenen kompetentzia goragoko instituzio publikoek -Europar Batasuna, Espainiar Estatuak, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Diputazioa- dute eta egitura hauetatik lortzen da lankidetzak hitzarmen hauek martxan jarri ahal izateko finantzazioa. Udalerriez gaindi aurkitzen diren egitura hauek dira garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzeko politiken erreferentzia eta berauek dute eskala desberdinetan jardunbide hauek artikulatu eta antolatze eskumena.

Eskualde mailako lankidetzak akordio hauek sustatu eta koordinatzeko eskualdeko mailako egitura bat sortzeko beharra ikusi zen. Behar hau, esplizituki Eskualdeko Enplegu Plana diseinatzean ikusi zen, agente ekonomiko desberdinek eta instituzioek garapen ekonomikoa bultzatu eta bideratzeko eskualde mailako egitura bat behar zela esan zutenean.

Beharra ikusirik, diru laguntza bat eskatu zen aditu bat kontratatu (Andoni Egia) eta eskualdeko garapenerako egituraren eta prozesuaren Gobernantza Eredu berria diseinatu zezan. Urte beteko lanaren ostean, garapen prozesuaren proposamen tekniko eta proposatutako Tokiko Garapen Agentziaren formula juridikoaren txosten teknikoak -Juan Landaberea abokatuak egina- aurkeztu ziren eskualdeko hautetsi guztien aurrean, proposamen tekniko eta juridikoaren negoziaketa politikoaren fasea irekiz. Aipatu beharra dago, negoziaketa oso baldintzatuta egon

zela hauteskundearen egutegiarengatik, hilabete gutxitan 2015eko hauteskunde lokalak ospatuko baitziren. Hauteskunde giro honetan alderdien arteko bata bestearenganako blokeo politikoaren ondorioz, eta proposamen juridikoan, Tokiko Garapen Agentziaren botere banaketan zentratu zen eztabaida, akordioa erdietsi gabe.

Akordio politikoa erdietsi gabe geratu zen arren, teknikoki aurreikusiak zeuden proiektuak burutzen joan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiaren ebazpen foralen finantzazioaren bidez batez ere. Edonola ere, egitura juridikorik ez edukitzeak izugarritzko “prekarietate funtzionala” ekarri zien funtzionatzeko orduan, diru laguntzak, kontratazioak etab...egiterako orduan zailtasun handiak aurkitzen baitituzte.

Hauteskundeak pasa ostean, eta eskualdeko udalen kolore politikoa asko aldatu ostean, negoziaketa politikoa berreskuratu zuten, Enpleguaren eta Sustapen Ekonomikoaren inguruko Lankidetzaren Hitzarmena negoziatzen aurkitzen direlarik oraintxe bertan, Tokiko Garapen Agentziaren aurrekaria izango dena, hain zuzen ere.

4.2.1.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioko lan larroa

Agentzi honen hasierako diseinuan, helburua esparru honetan, kooperazio sozialean oinarrituko den egitura ekonomiko berri bat sortzea eta saretzea da. Horretarako, beharrezkoa ikusten du ehun ekonomiko, instituzional eta soziala barneratuko dituen prozesuak martxan jartzea. Horrela, tokiko komunitatearen garapena lortzea bilatzen da.

Ekonomia soziala tokiko giza garapena bultzatzeko tresna egokia dela uste du hurrengo arrazoiengatik:

- Kooperatibek helburu soziala dute oinarri eta eskualdeko behar sozialak asetzen lagun dezakete.
- Tokiko ekintzaileek sortutako inizatibak dira eta ez dira deslokalizatzen.
- Kooperatiben erreserba ekonomikoen zati bat banaezina da eta diru hori territorian gelditu eta banatzen da.
- Kooperatibek erabakiak hartzeko duen modu demokratikoak tokiko jendartearen garapen politiko eta sozialean eragin dezaketelako.
- Inter- kooperazioak ehun ekonomiko eta soziala indartzea dakarrelako, agenteen arteko elkarlanean sakonduz eta garapen endogenoa bultzatuz.
- Kooperatibek territorioaren garapen jasangarria lortzen laguntzen dutelako.
- Bertako errekurtsio edo baliabideak erabiltzen dituzte beren jardunbide ekonomikora.

Arrazoi hauengatik, garapen endogenorako ekonomia sozialaren gaitasuna nabarrian gelditzen da eta horregatik, hurrengo proiektu eta prozesuak garatzeko asmoa du Beterriko Garapen Integraleko Agentziak behin bere osotasunean egituratzen denean.

Agentzia martxan hasi zenetik lau programa nagusi jarri -*Kooperatzen, Eraldatzen, Urberritzen* eta *Beteberritzen*- ditu martxan eta programa hauek bi ildo nagusi izan dituzte: Batetik, ekintzailetasun kooperatiboa sustatu, horretarako bitartekoak eskaini (formakuntza, aholkularitza, finantzazioa, *co-working* espazioa...) eta eskualdeko entitateen arteko saretzea bilatu; eta bestetik, garapen ereduaren eta berrikuntza sozialaren gainean hausnartzeko eta formatzeko espazioak sortu.

Martxan dauden programak aurrekoak badira ere, hauek dira agentziaren hasierako diseinuan azaltzen diren lan egitasmoa Ekonomia Sozial eta Solidarioaren esparruan:

Beterri Garapen Integraleko Agentzia: Lan egitasmoa
<p>1. Eskualde kooperatiboa sortzeko hezkuntza/difusio/sortze kanpaina.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza, formazio eta dibulgazio orokortua. - Bisibilizazioa eta komunikazio kanpaina.
<p>2. Egitasmo kooperatiboetan oinarritzen den subjektuaren eraketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egitasmo ekonomiko kooperatiboaren eskualde mailako mapa parte-hartzaile bat osatu. - Egitasmo kooperatiboaren saretze prozesua eragin, Eskualde kooperatiboaren proiektua babestu eta bultzatzeko helburuarekin. - Herri bakoitzean Eskualde Kooperatiba garatuko duen lantaldearen eraketa. - Eskualde mailako Ekonomia Sozialaren mahia osatu.
<p>3. Ekonomia Sozialaren diagnostikoa eta prozesu estrategikoa egin.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskualdeko ekonomia sozialaren diagnostikoa egin eta elkarbanatu. - Eskualdeko ekonomia sozialeko agenteekin prozesu estrategikoa diseinatu. - Prozesu estrategikoan adostutako ekintza plana ezarri. - Prozesu estrategikoaren jarraipena, ebaluazioa eta beharrezkoak diren aldaketak egin.
<p>4. Ekintzailetasun kooperatiboaren zerbitzua sortu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekintzailetasun kooperatiboaren zerbitzua eta zerbitzu finantzarioak eskaintzen dituzten enprekin elkarlanerako hitzarmena sinatu formazio, finantzazio eta jarraipen zerbitzuak eman ditzaten. - Eskualdeko eragile sozialekin hitzarmen bidezko harremanak sortu eta ekintzailetasun zerbitzuarekin sare lana egiteko. - Ekonomia Sozialeko enpresei hobekuntza teknologikorako, merkaturatzeko... zerbitzuak eskaini.
<p>5. Merkatu sozial eta pribatua sortu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Udaletxe guztietako teknikarien mahaia sortu, erosketa eta kontratazio publiko guztien Klausula Sozialen irizpideak barneratu daitezzen. - Merkataritza sailarekin batera, eskualde dendetan, eskualdean bertan ekoiztu diren produktuak lehenesteko kanpaina burutu. - Herrietako eragileekin, kontsumitzaileen kooperatibak sortzeko kanpaina egin, eskualdeko produktua merkaturatzeko. - Eskualdeko produktuak/zerbitzuak eskainiko dituen web orrialdea sortu.
<p>6. Ekonomiaren berlokizazio prozesua eragin.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tokiko sistema finantzarioa sortu (<i>Fiare</i> eta <i>Koop57</i> bidez). - Tokiko sistema energetikoa sortu (<i>Goienar</i> kontsumo kooperatibaren bidez). - Eskualdeko <i>Gerriko Agroekologikoa</i> sortzearen bidez, bertako elikagaien ekoizpena eta kontsumoa bultzatu. - Tokiko azpiegituren berreskuperapena. - Tokiko komunikazio sistema eraiki.

7.taula. Iturria: Beterri Garapen Integraleko Agentzia

4. Analisi enpirikoa

4.2.1.3. Ezaugarritze taula

	ANTOLAKETA EREDUA					GARAPEN ESTRATEGIA				
	Tamaina	Izaera juridikoa	Jatorria	Ekintza esparrua	Organigrama	Funtzioak eta lehenetasunak	Programa nagusiak	Ehun enpresarial arekin eta mugimendu/eragile sozialekin harremana	Sare edo foro estrategikoak	Erreferentzia teorikoak
EZAUGARRIAK	Txikia	Momentuz ez dauka izaera juridiko konkreturik arazo batzuk tarteko, baina <i>udaletxeen elkargoa</i> bilakatzea du xede.	-Goitik behera -3.fasea	Eskualdea	Momentu honetan ez du organigrama zehatzik. Programak a eta lan sailka antolatzen da agentzia eta praktikan udaletako teknikariak dira jarduerak garatzen dituztenak. Hala ere, badaude agentziarako espreski lanean dabilten bi teknikari	Autoenpleguaren sustapena/ Ekintzailetasunaren sustapena/ Enpresei zerbitzuak/ Komertzioa/ Turismoa	Autoenpleguaren sustapena/ Ekintzailetasunaren sustapena/ Enpresei zerbitzuak/ Komertzioa/ Turismoa	Ehun enpresarialarekin harremana: Bai, sektore gehienetako enpresek Mugimendu sozialekin harremana: Bai	Eskualdeko berrikuntza Soziala garatzeko: Urberritzen eta Betereberritzen /Fabricación 4.0: enpresa enpresariaren foroa./ Foro soziala: eskualdeko zerbitzu sozialeko zuzendari, teknikari, eta 3. sektoreko eragileekin./ Enpresa angroindustrialen sarea	Québec-eko CRISES Berrikuntza Sozialeko egitura/ Ekonomia Sozial eta eraldatzailea/G arapen endogeno eta autozentratuar en paradigma/ Giza garapen jasangarriaren paradigma (PNUD, Amartya Sen...)
NEURGA ILUAK	Aurrekontua (2015): 2.296.131,66 € Langile kopurua: 22 pertsona	Momentuz ez dauka izaera juridiko konkreturik arazo batzuk tarteko, baina <i>udaletxeen elkargoa</i> bilakatzea du xede.	- 2015 sortu zen berez, baina arazo burokratiko batzuk medio ez da egikaritu izaera juridiko konkretu bat duen TGA gisa. -Goitik behera	Eskualdea	Momentuz ez dauka organigramarik, baina horrela banatzen dira langileak: -Udaletako teknikariak. -TGAko bi teknikariak	Aurrekontua esparruka(2015): Autoenpleguaren sustapena, 35.705€/ Ekintzailetasunaren sustapena, 18.500€ Enpresei zerbitzuak/ Komertzioa, Turismoa	Ekonomia sozial eta solidarioaren alorra lehenengoko bi programa nagusien -autoenplegua eta ekintzailetasuna- barnean sartzen da.			Garapen eredu berrien proposamenak ditu erreferentzi gisa.

7.taula. Iturria: Lan honetarako egina, Gainza(2009) oinarri harturik.

4.2.2. *Agència de Desenvolupament del Berguedà*

4.2.2.1. *Jatorria eta bilakaera*

2013an *Berguedako* eskualdeko inizatiba publiko eta pribatutik sortutako agentzia da honako hau. Instituzio publikoari dagokionez, *Consell Comarcal*-ak agentzia sortzea eta tokiko garapenarekin erlazionatutako funtzioak bertan esleitzea erabaki zuen eta hori izan da agentziaren ernamuina.

Bergueda eskualdea, Kataluniako Bartzelona probintzian kokatzen da, 31 udalerrri ditu eta hiriburua Berga da. Agentziaren egoitza herri honetan kokatzen da, zehazki, Sant Joan plazan. Berguedako eskualdeko ekonomia historikoki meatzaritza eta ehungintzatiko enpresa handiek osatu dute. Hau da, garapen exogenoa izan du, kanpoko enpresa trasnazionalak izan dira eskualdeko baliabideak ustiatu dituztenak. 80. eta 90. hamarkadetan enpresa trasnazional hauek alde egin zuten eta eskualdea oso egoera tamalgarrian gelditu zen. Kapital handien ihes honek langabezia handia sortzeaz gain, ehun enpresarial gabe utzi zuen Bergueda. Ondorioz, jendeak eskualdetik kanpo (Bartzelonan) bilatu behar izan du lana eta ehun enpresarial oso bat dut eratzeko.

Eskualde mailako agentzia honek, Berguedako norbanakoen eta gizartearen garapenean laguntzea du misiotzat. Enplegua sortzeko eta ekonomia eta turismoa sustatzeko tresna gisa hasi zen, baina pixkanaka badoa garapenaren esparru anitzagoetan eragiten. Garapen hau, beti ere, beharrezkoak diren aliantza estrategiko, kolaborazio -entitate eta agente ezberdinekin- eta ekinbideak martxan jartzeko hautua eginez. Gainera, tresna honek, eraldaketa sozial jasangarria eta norbanakoentzat eta ehun produktiboarentzat aukerak sortzea du helburu.

Azken finean, Tokiko Garapen Agentzia honek, eskualdearen lehiakortasuna eta kohesio sozioekonomikoa bultzatuko duen erreferentzia marka edo erakundea izan nahi du, horrela tokiko agenteen jarduna eta ekosistema indartuz.

4.2.2.2. *Ekonomia Sozial eta Solidarioko lan lerroa*

Atal hau osatzeko erabili dugun informazioa agentzian bertan helarazi digute. Hurrengo dokumentuan azaltzen dute Ekonomia Sozial eta Solidarioko lan lerroaren gaineko informazioa: "Cap a la vertebració d'una caixa d'eines integral d'economia cooperativa, social i solidària; Pla de treball 2015-2016". Dokumentu honetan, ekonomia kooperatibo, sozial eta solidariorako erreminta kutxa integral bat sortzera bidean, 2015-2016 urteetarako lan egitasmoa azaltzen da.

Hurrengo orrialdeko taulan, agentzian bitartez dagoeneko martxan dauden lan egitasmoak zerrendatu ditugu.

Agència de Desenvolupament del Berguedà: Lan egitasmoa
<p>1. Ekonomia kooperatiboaren sustapena eta hedapena.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2015-2018 dinamizazio planaren prorroga eta hedapena. - Ekonomia kooperatibaren tailerrak egin DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta formazio modulu profesionaletan). - Jarraikortasuna eman esparru kooperatiboan eta enpresa sozialen sorreran zentratutako aholkularitza eta informazio zerbitzuei. - Sentsibilizazio eta formazioa irakasle, tekniko eta profesionalei. - Komunikabideetan kanpainak eta web orrialde kooperatiboaren egokitzea. - Jardunaldi ezberdinen antolakuntza eta enpresa kooperatiboen irudikapena. - <i>Co-working</i>-erako espazio berri baten sustapena, formazio eta espezializazio zentro gisa.
<p>2. Ekintzailetasun kooperatiboan oinarritutako inizatibei erraztasunak eta tresnak eman.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sare kooperatiboa osatu eta sinergia enpresarial kooperatiboak lortu. - Finantza entitate publiko eta pribatuekin akordioak lortu kooperatiba eta ekonomia sozialeko entitateen sorrera finantzatzeko (2014an <i>Coop57</i>rekin sinatu zuten akordioa eta 2015 Seira Fundazioarekin). - Enpresa kooperatibo eta sozial seniorren tutoretza edo bideratzea indartu. - Proiektu kooperatibo berrien ernaltzea bilatu, haztegi enpresarialetan, <i>co-working</i> espazioan edota ekintzaileentzako beste espazio batzuetan kokatzeko. - Ekonomia kooperatiboan zentratutako <i>networking</i> trukaketa jardunaldiak antolatu.
<p>3. Kooperazioaren eta enpresa kooperatiboen akzio unitatearen sustapena.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarraikortasuna eman enpresa kooperatiboen sorrera sustatzen dabilen agente publiko eta pribatuen arteko sareari. - Berguedako kooperatibetan adituak direnen kudeaketa. - Berguedako ekonomia kooperatiboaren eta inguruko eskualde eta herrietako gainontzeko kooperatiben artean sinergiak sortu bilera eta esperientzia ezberdinak bisitatuz.
<p>4. Kooperatiba berrien sorrera sustatu sektore konkretuetan: agroalimentarioa eta pertsonenganako harretan.</p>
<p>5. Ekonomia sozial eta solidarioa indartu eta sustatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekonomia sozial eta solidarioaren dinamizazio plana diseinua eta zabalpena
<p>6. Ekonomia sozialeko tresnen sentsibilizazioa eta sustapena.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kontsumo arduratsua sustatzeko, agente publiko eta pribatuetako norbanako eta teknikoentzat jardunaldiak eta aholkularitza antolatu. - Balantze sozialaren hedapena enpresetan. - Ekonomia sozial eta solidarioko produktu eta zerbitzuen sustapena. - Ekonomia sozial eta solidarioaren garrantziaz jabetzeko jardunaldiak. - Merkatu sozialaren edo ekonomia sozialaren merkatua (Sare edo komunitatea). - <i>Cooprout</i>.
<p>7. Ondasun publikoen eta kontsumo kolaboratiboaren sustapena.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskualde mailako espazio publikoak zerrendatu eta ekintzailetasun sozial eta kolektiboaren eskuetan jartzeko - Baratza urbanoen bi proiektu sortzeko aholkularitza. - Espazio birtual bat sortu Tokiko Garapen Agentziaren web orrialdean kontsumo kolaboratiboa eta kontsumo arduratsua indartzeko administrazioaren eta agente pribatuen aldetik. - <i>Co-living</i> proiektua Berguedan.

8. Ordainketa sozialeko sistema.

- Ordainketa digital bidezko sistema praktikara eramatea sustatu (moneta soziala). Horretarako esperientzia ezberdinak trukatzeko jardunaldiak egin.
- Moneta sozialaren eredu desberdinak -hartz marka digitala, telefono mugikor bidezko ordainketa, etab.- eta territoriorako egokitasuna aztertu.
- Moneta sozialaren hedapena egin ekonomia sozialaren tresna gisa.
- Moneta sozialaren ordainketa sistema erabili eta zabalduko duen komunitate baten sorrera.

8.taula. Iturria: Agència de Desenvolupament del Berguedà

4. Analisi enpirikoa

4.2.2.3. Ezaugarritze taula

	ANTOLAKETA EREDUA					GARAPEN ESTRATEGIA				
	Tamaina	Izaera juridikoa	Jatorria	Ekintza esparrua	Organigrama	Funtzioak eta lehentasunak	Programa nagusiak	Ehun enpresarial arekin eta mugimendu sozialekin harremana	Sare edo foro estrate gikoak	Erreferentzia teorikoak
EZAUGARRIAK	Txiki ertaina	Izaera juridiko propioa duen eskualde mailako instituzio publikoen elkargoa da eta ordenamendu publikoaren menpe dago.	Goitik behera/ 3.fasea	Eskualde mailakoa	-Bertikala, Piramidala	Berrikuntza eta enpresa zerbitzua / Enplegu zerbitzua/ Kualifikazio zerbitzua/ Garapen lokala/ Turismoa eta komertzioa	Berrikuntza eta enpresa; Ekintzailetasuna sustatu; Enpresen sorkuntzan laguntzak eta aholkularitza; Hazkuntza ekonomikoa; Ekonomia sozial eta solidarioa Enplegua: Lana, enplegua eta aukera. Kualifikazioa: formakuntza, hezkuntza eta esperientzia Garapen lokala: Territorioa, kooperazioa eta potentzialitatea. Turismoa eta komertzioa: Natura, kultura eta gastronomia.	Ehun enpresarial Bai, sektore guztietan. Mugimendu sozialak Ez, oso gutxi, ez dira lehentasun.	Ez dago eskualde mailako sare egituratu bat.	Ez du erreferentzia teoriko berririk erreferentzi gisa. Administrazio publiko berriaren egituraketa piramidala jarraitzen du, nolabaiteko parte hartze gidatua oinarri duena.
NEURGAILUAK	Aurrekontua: 2,3 milioi €/// Langile kopurua: 35 langile	Izaera juridiko propioa duen eskualde mailako instituzio publikoen elkargoa da eta ordenamendu publikoaren menpe dago.	Goitik behera. 2013an sortua	Eskualde mailakoa	Gobernu organoak: -Batzar nagusia -Batzorde betearazlea -Lehendakariordetzak -Kudeaketa zuzendaritzak -Komisioak	*Ez daukagu esparrukako aurrekontua azaltzen duen daturik.	--	Alor sozialak ez da lehentasuna.	Ez dago eskualde mailako sare egituratu bat..	. Arduradunaren ustetan egitura piramidala ordezkatzeko lukeen proiektuetan oinarritutako ,administrazio <i>deliberatiboko</i> sistema bat (Quim Bruguera, Joan Subirats...)ezarri beharko zen.

9.taula. Lan honetarako egina, Gainza (2009) oinarri harturik

4.3. ANALISI SUBJEKTIBOA: EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN ETA TOKIKO GARAPEN AGENTZIEN GAITASUNA TOKIKO GIZA GARAPENA SUSTATZEKO. BI ESPERIENTZIA.

4.3.1. Elkarrizketa fitxa

Atal honetan, Tokiko Garapen Agentzien programetan modu ezberdinetan parte hartu duten subjektuak elkarrizketatu ditugu. Analisi honen helburua agentzien inguruan mugitzen diren norbanako eta giza talde desberdinen iritzia edo ikuspegia jasotzea da, atal teorikoaz gain, praktikoa ere eduki ahal izateko. Era horretan, Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzen duten Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena bultzatzeko tresna egoki diren edo ez ondoriozta dezakegu eta marko teorikoan egindako baieztapenekin kontrastatu. Garrantzitsua iruditu zaigu, ikuspegi integral bat izate aldera, agente ezberdinen pertzepzioa jasotzea Tokiko Garapen Agentzien -tresna instituzionala- eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren -euskarri ekonomikoa- gaitasuna neurtzeko Tokiko Giza Garapena bultzatzeko orduan.

Esperientzia bakoitzean garatutako Ekonomia Sozial eta Solidarioko programa ezberdinen eragina edota gaitasuna neurtzeko sei elkarrizketa egin ditugu, aurretik aipatu bezala, sei elkarrizketa fitxa beraz, esperientzia bakoitzeko hiru elkarrizketa. Esperientzia bakoitzaren kasuan hiru elkarrizketa egitearen arrazoa ikuspegi integral bat lortzeko nahia izan da. Elkarrizketatuak izan diren subjektu edo agenteak hurrengoak izan dira: a) Agentzian Ekonomia Sozial eta Solidarioaren saila edo lan lerroa daraman arduraduna; b) Ekonomia Sozial eta Solidarioko programaren baten bitartez Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitate bat sortu eta enpresa martxan duen talde bat; d) Agentziako Ekonomia Sozial eta Solidarioko programa baten bitartez Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitate bat sortu berri edo sortzera bidean dagoen talde bat.

Elkarrizketa fitxaren diseinuari dagokionez, hiru zatitan banatu dugu fitxa. Lehen atalean, AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahulezi) metodologia jarri dugu. AMIAren helburua, orokorrean, Tokiko Garapen Agentzietatik garatu diren egitasmoek duten gaitasuna neurtzea da. Ikuspegi ezberdinen arteko kontrastea egiteko ere balio izan digu, izan ere, batarentzat indargune dena bestearentzat ahulezi izan daiteke. Bigarren atalean, gaitasun zentralak eta kolektiboak zerrendatu ditugu eta eskala (1: ez du batere indartzen; 5: guztiz indartzen du) baten bitartez agentzietatik bultzatutako programek eta Ekonomia Sozial eta Solidarioak, oro har, gaitasun bakoitza sustatzeko duen ahalmena edo gaitasuna neurtzea bilatu dugu. Azkenik, galdera orokor zabal batzuk jarri ditugu. Galdera hauen helburua agente ezberdinek Tokiko Giza Garapenaren eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren logika ea barneratua duten edo ez ezagutzea da. Hau da, bi kontzeptu hauen gaienean duten ezagutza eta iritzia ezagutzea.

Espazio kontuagatik, atxikita jarri ditugu elkarrizketatu bakoitzaren aurkezpenak eta elkarrizketa fitxa osatuak lanaren eranskinean. Bestalde, aipatzekoa da, fitxa hau eta dokumentazio

gehigarria (oinarri teorikoen azalpena) elkarrizketa aurretik bidali zaizkiela elkarrizketatu guztiei. Hurrengo orrialdean ikusi dezakegu elkarrizketa fitxaren diseinua.

**(1: ez du batere indartzen; 5: guztiz indartzen du)*

ELKARRIZKETA FITXA		Ebaluazioa	Oharrak
AMIA		(bakoitzetik pare bat gehienez)	
TGAetatik sustatuko ESSko programek zein...	Aukera		
	Mehatxu		
	Indargune		
	Ahulezi		
Gaitasun zentralak		(1-5)*	
1. Bizitza eta osasun fisikoa			
2. Ongizatea eta osasun mentala			
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa			
4. Harreman sozialak			
5. Ahalduntze politikoa			
6. Hezkuntza eta jakintza			
7. Etxeko lana eta zaintza lana			
8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak			
9. Etxebizitza eta ingurumena			
10. Mugikortasuna			
11. Aisialdi ekimenak			
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena			
13. Errespetua			
14. Erljioa			
Gaitasun kolektiboak			
1. Konpromisoa eta erakarpeta			
2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea			
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea			
4. Egokitzea eta berritzea			
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea			
Galdera orokorrak			
ESSoak ahalduntze pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?			
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?			
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue territorioaren garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?			

4.3.2. *Analisi subjektiboaren emaitzak*

Analisi subjektiborako egindako sei elkarrizketen emaitzak helaraztea garrantzitsua iruditu zaigu eta bi esperientzietako agente ezberdinek betetako elkarrizketa fitxak lanaren eranskinean badaude ere, atal honetan sei elkarrizketa fitxa hauen emaitzak laburbildu eta zerrendatu ditugu elkarrizketa fitxaren atalen arabera:

1. AMIA. Atal hau esperientziaren arabera banatuko dugu, izan ere, bi esperientzietako artean ezberdintasun nabariak daude.

- **Betteriko Garapen Integraleko Agentzia:**
 - Aukerak: a) Tokiko Garapen Agentziak Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatuz, etorkizuneko sistema sozioekonomiko berri baten ernamuina eratu dezakete; b) kooperazioa edo elkarlana oinarri duen Ekonomia Sozial eta Solidarioko sare baten barne egoteko aukera.
 - Mehatxuak: a) Lehiakortasuna nagusitzen den merkatu kapitalista globalizatu batean eragiteko ahalmen urria, "minoritasuna"; b) Erabilitako terminologia edo hizkuntzak sor ditzakeen traba edo zailtasunak.
 - Indarguneak: a) Hierarkia eza, horizontaltasuna agentziaren eta norbanako edota proiektu ezberdinen artean; b) Sare osatu bat edukitzea eta saretzea sustatzea; c) Proiektu berriei eskainitako laguntza edo tresnak: *coworking* espazioa, aholkularitza, ezagutza edo formazioa...
 - Ahuleziak: a) Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateen bideragarritasun ekonomikoa lortzeko zailtasunak; b) Sozializazio falta; Botere politikoaren menpekotasunaren ondorioz jasandako agentziaren izaera juridiko falta. c) Esperientzien aniztasun falta, esparru produktibora mugatu Ekonomia Sozial eta Solidarioko egitasmoak.
- **Agència de Desenvolupament del Berguedà**
 - Aukerak: a) Eskualdeko ehun enpresarial ahula ehun kooperatibo indartsu batekin eraberritzeko aukera. b) Egungo politikariek Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gainean duten jarrera eta diskurtso positiboa. c) Oinarri sozial asoziatu zabala.
 - Mehatxuak: a) Gobernantza mailen arteko baldintzatasuna, burokrazia geldoa eta astuna eta agentziako egituraren hierarkizazioa. b) Kooratiben gehiegizko estimatizazioa ere aipatu da elkarrizketa batean.
 - Indarguneak: a) Proiektu berriei eskainitako laguntza edo tresnak: finantzazioa, aholkularitza; b) Sozializazio lan handia; c) Agentziaren egitura indartsua eta errekurtsu tekniko eta humano asko izatea.

-
- Ahuleziak: a) Garapen endogenoa sustatzeko gaitasun falta; b) Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateen arteko foro edo sare baten falta.

2. Gaitasun zentral eta kolektiboak:

- Atal honetan bereziki ezberdintasun nabariak egon dira esperientziaren arabera eta elkarrizketatutako agente ezberdinen arabera, hala ere, tendentzia positiboa dela esan dezakegu eta orokorrean gaitasun zentral eta kolektiboak sustatzen eta indartzen laguntzen dutela Tokiko Garapen Agentzietatik garatutako Ekonomia Sozial eta Solidarioko egitasmoek -eta paradigma ekonomikoak berak- baieztatu dezakegu.
- Gaitasun zentrali dagokionez, zerrendatutako gaitasun guztietatik bost izan dira gehienbat Tokiko Garapen Agentzien bitartez sustatu edo indartu diren gaitasunak: 3. *Osotasun eta segurtasun fisikoa*; 4. *Harreman Sozialak*; 8. *Lan ordaindua eta bestelako proiektuak*; 12. *Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena*; eta bereziki, guztiek oso positiboki balora duten gaitasun zentrala 13. *Errespetua* izan da. Balorazio negatiboa izan duten gaitasunak ordea hurrengoak izan dira: 9. *Etxebizitza eta ingurumena*; 10. *Mugikortasuna*; 14. *Erljioa*.
- Gaitasun kolektiboari dagokionez, argi dagoena da prozesu kolektibo bat dela eta dimentsio kolektiboak berebiziko garrantzia duela. Izan ere, gaitasun kolektibo guztiek jaso dute balorazio positiboa. Bereziki, 2. *Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea* eta 4. *Egokitzea eta berritzea* izan dira balorazioen arabera gehienbat potentzializatzen diren gaitasun kolektiboak. Hala ere, gainontzeko gaitasun kolektiboek ere balorazio positiboa jaso dute eta beraien sustapena nabaria dela argi ikusi dezakegu.

3. Galdera orokorrak:

- Garapen endogenoaren eta gobernantza lokal deszentralizatu eta indartu baten beharra dagoela diote elkarrizketatu guztiek. Beraz, hein handi batean, Tokiko Giza Garapenaren logikarekin bat datozeela esan dezakegu.
- Tokiko Giza Garapena sustatzeko Tokiko Garapen Agentziak tresna egokiak izan daitezkeela uste dute denek. Aztertutako bi esperientziak badutela zer hobetu aipatzen da ordea eta gobernantza maila goragokoen baldintzapena ikusten da hobetzeko oztopo nagusizat. La Bergueda eskualdeko agentziak goitik beherako antolaketa eredu zurruna duela aipatzen da eta ondorioz hainbat proiektu ezin dituztela garatu. Beterriko Garapen Integraleko Agentziaren kasuan ordea, izaera juridiko faltak traba asko jartzen dizkio eguneroko jardunerako eta hau botere politikoaren baldintzapenaren ondorio da.
- Tokiko Garapen Agentziek, Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateak sortzeko eta bideratzeko erraztasuna eskaintzen dituztela behin eta berriz errepikatu da. Beraz, eredu sozioekonomiakoren paradigma aldaketan lagundu dezaketela esan dezakegu. Entitatearen sorrera momentuan, edo aurretiaz, formazio, aholkularitza eta baliabide eskaintza bitartez ematen dute laguntza gehienbat, eta aurrerago, Ekonomia Sozial eta

Solidarioaren oinarri den lankidetzaren edo elkarlanaren filosofiaren bitartez, sareak sortu eta proiektuaren bideragarritasuna lortzen laguntzen dute.

- Elkarriketatutako ia denek bat egiten dute Ekonomia Sozial eta Solidarioak ahalduentze pertsonal eta kolektiboan laguntzen duela esatean. Ildo beretik, elkarriketa fitxaren bigarren atalean bildutakoa oinarri hartuz, paradigma ekonomiko honek gaitasun zentral eta kolektiboak -Giza Garapena- indartzen laguntzen duela baieztatu dezakegu.

- Agentzietatik eskainitako Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gaineko formazioek gaitasunak lortzen eta indartzen laguntzen dutela ikusi dugu, eta ostean, Ekonomia Sozial eta Solidarioko entitateak sortzeak proiektu kideak ahalduntzen lagundu, hau da, gaitasunak sustatzen laguntzen -kasu gehienetan- duela. Prozesu guztiak, oro har, ahalduntze pertsonal eta kolektiboan laguntzen duela baieztatu dezakegu.
- Esparru produktibotik haratago dauden proiektuak -kasu honetan, ADD Lotzen eta Konvent Punt Zero- martxan jartzeko eta beraientzako egokitutako tresnak edo zerbitzuak eskaintzeko zailtasunak daudela Tokiko Garapen Agentzien partetik nabarrian geratu da. Aztertutako bi agentzia hauetan ere, berriz errepikatzen da ahulezi bezala, esparru produktibora mugatzen dela garapena, nahiz eta egoera iraultzeko saiakerak egin eta proiektu batzuk aurrera joan.

5. ONDORIO NAGUSIAK

Garapen ereduaz hitz egiten hasi aurretik, gaur egungo globalizazio neoliberalaren testuinguruan kokatu gara eta garapen eredu definitu eta martxan jartzeko beharrezkoa dugun gobernantza ereduaz hitz egin dugu.

Hasteko, gaur eguneko krisiaren jatorria, hein handi batean, egungo gobernantza globalaren kudeaketa ezegokiaren ondorio dela ondorioztatu dugu. Paktu keynesiar sozialdemokrata apurtu zenetik, Bretton Woodsetik irtendako nazioz gaindiko instituzioek ez dute merkatuaren eta enpresa transnazionalen botere mugatzen asmatu. Alderantzik egin dutela esan dezakegu, beraien boterea indartzen lagundu dutela. Merkatuaren boterea instituzio publikoen gainetik jarri da, estatuek ekonomian eragiteko duten ahalmena nabarmen jaitsi da eta ekonomia erregulatzaile botere erregulatzaile apurra egungo egoerara ekarri gaituzten gobernantza globaleko instituzioek daukate. Gainera, gobernantza globalaren noraeza ikusita herri sektoreek ere ez dute asmatu merkatuen botere eta interesak geldiaraztea lortuko duen estrategia alternatibo bat aurrera eramaten.

Gobernantza globala eraberritzearen beharra nabarmendu da. Uste dugu ezin direla gaur eguneko nazioz gaindiko instituzioak birdefinitu, horregatik, prozesu demokratiko multilateral ez formal baten bidea defendatzen dugu. Prozesu demokratiko honek, behetik gorako logika batean, gobernantza maila ezberdinak onartu beharko lituzke, sare transnazional ez formalak indartu, eztabaidarako espazio berriak zabaldu eta estatuei eta tokian tokiko komunitateei pisu handiagoa eman.

Bestalde, Tokiko Giza Garapena bermatzeko gobernantza eredu berriak, gobernantza lokalaren berrindartze bat ezinbestekoa duela ondorioztatu dugu. Gobernantza mailakatu izan behar da, baina oso garrantzitsua da subsidiarotasun printzipioan oinarrituz boterearen deszentralizazio bat gauzatzea. Gobernantza lokaleko instituzioetatik, goragoko mailetara transferitu diren eskumen erregulatzaileak berrartzea ezinbestekoa da Tokiko Giza Garapeneko estrategia bat garatu nahi bada.

Tokiko Giza Garapenak tokiko dimentsioa eta gaitasunen ikuspegia ditu oinarri. Tokikoa esaten dugunean auzo, herri, hiri edo eskualde mailan garatuko den garapenaz endogenoaz ari gara. Hau da, tokian tokiko norbanako eta agenteak -ekonomikoak, sozialak eta politikoak- izan beharko dira beraien territorioan ongizate pertsonal eta kolektiboa lortzen lagunduko dien garapen eredia eta garapen estrategia definituko dutenak.

Gaitasunen ikuspegiaren bilakaera aztertuz ikusi dugu, edozein garapen eredutan giza garapena ezinbestekoa dela, gizakiaren ongizatea eta oinarrizko justizia soziala lortu nahi bada. Tokiko Garapenaren ereduak, ez du giza garapena kontuan hartzen, hazkunde ekonomiko hutsarekin gizartearen ongizatea lortuko dela defendatzen du eta oinarri teoriko nahiko dugu hori horrela ez dela baieztatzeko. Tokiko Giza Garapenaren barnean hazkunde ekonomikoa beharko dugu bai, baina garapenak ikuspegi integralago -soziala, ekonomikoa, kulturala, politikoa...- bat izan behar du eta esparru guztietatik eragin.

Gaitasunen ikuspegiarekin jarraituz, aipatu beharra dugu oso garrantzitsua izan dela gaitasunen garapena ongizatearen dimentsio kolektiboa kontuan hartuz aztertzea. Izan ere, gaitasunek, norbanako bakoitzari berak bizi nahi duen bizitza askatasun osoz bizitzeko trebetasuna ematen baldin badiote, non hasi eta bukatzen dira bataren eta besteren askatasunak. Gizakia izaki soziala den heinean beti egongo da hirugarrenekin erlazionatu, ondorioz beharrezkoa da ongizatearen dimentsio kolektiboa ere kontuan hartzea. Gizarteak, kolektibo edo sistema bezala, balio publikoa sortzeko gaitasuna izan behar du garapenaren bidean, horregatik, gaitasun pertsonalak lortzeaz gaindi, gaitasun kolektiboak ere garatu behar dira. Ongizatea lortzeko prozesu pertsonal zein kolektibo bat garatu behar dela uste dugu, horregatik ezinbesteko ikusi dugu analisirako gaitasun pertsonalak eta gaitasun kolektiboak aztergai hartzea.

Behin garapen ereduaren gaineko ondorio nagusiak azalduta, Ekonomia Sozial eta Solidarioak Tokiko Giza Garapenean joka dezakeen papera aztertzeri pasatu gara. Atera dugun lehen ondorioa, eredu sozioekonomikoaren paradigma aldaketa baten beharra izan da, Tokiko Giza Garapen estrategia eraginkor bat gauzatu nahi bada. Ekonomia konbentzionalak ekonomiaren antolaketarako ezarritako oinarrizko printzipio eta arauekin hautsi eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa izan beharko zela etorkizuneko jardun edo prozesu ekonomikoren euskarri uste dugu. Gaitasun pertsonal eta kolektiboak ikuspegi ekonomiko honen printzipio eta baloreekin alderatu ditugu eta argi ikusi dugu, Ekonomia Sozial eta Solidarioak gaitasun oro bermatzeko eta garatzeko ahalmen esanguratsua duela. Pertsona jartzen du jardun ekonomikoaren zentroan eta gizakien beharrak modu kolektiboan asetzea bilatzen du. Ongizatearen dimentsio kolektiboa barnebiltzen du korrante ekonomiko honek eta Tokiko Giza Garapenaren logikarekin guztiz bat datorrela argi esan genezake. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu Ekonomia Sozial eta Solidarioa izatea, Tokiko Giza Garapenean, aktibitate edota prozesu ekonomiko ororen euskarri. Ikuspegi ekonomiko hau etorkizuneko gizarte justuago baten enbrioi, eskola, subjektu sortzaile, laborategi eta eredu izan behar litzateke.

Definitu ditugu dagoeneko, gure ustez beharrezko diren garapen eredia eta garapenaren euskarri izango den eredu ekonomikoa, baina oraindik oinarri teoriko guzti hau praktikara

eramateko tresna definitzea falta zaigu. Gobernantza lokaleko instituzioak berrindartzea gobernantza eredu berrituaren erronka izan behar dela aipatu dugu lanean zehar, horregatik, eskualde mailako Tokiko Garapen Agentziak tresna egokiak direla pentsatu dugu Tokiko Giza Garapena oinarri duen estrategia bat garatzeko. Tokiko Garapen Agentzien jatorrian, bilakaeran eta ezaugarrietan jarri dugu arreta eta garapen estrategia aurrera eramaten laguntzeko instituzio egokiak direla ikusi dugu. Hala ere, ez ditugu nolanhiko agentziak hartu aztergai, izan ere, ia garapen agentzia guztiek Tokiko Garapenaren eredua jarraitzen dute. Tokiko Garapenetik haratago doazen -ikuspegi integrala- eta Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako lan lerroak dituzten garapen agentziak proposatu ditugu tresna gisa.

Bukatzeko eta aurretik aipatutako guztia baieztatzeko, analisi enpiriko baten beharra ikusi dugu, oinarri teorikoaren gainean hausnartzea ondo dago, baina oinarri horrek praktikan duen eraginkortasuna neurtzea ezinbestekoa da. Arrazoi honengatik, Ekonomia Sozial eta Solidarioa lerro estrategiko gisa duten bi Tokiko Garapen Agentziaren esperientziak ezagutu ditugu eta beraien gaineko analisi objektibo -ezaugarritze taula- eta subjektibo -elkarrizketa fitxa- bat eginez. Analisi honen helburua, Ekonomia Sozial eta Solidarioa barneratzen duten Tokiko Garapen Agentziek -eta paradigma ekonomiak berak- Tokiko Giza Garapena bultzatzeko izan lezaketen ahalmena edo gaitasuna neurtzea izan da. Bi esperientzietatik ateratako informazioa oso aberasgarria izan da eta hainbat ondorio ateratzeko balio izan digu. Hainbat ondorio atera baditugu ere, emaitzek hurrengo baieztapenetan -ondorio nagusiak- berresteko balio izan digu: Batetik, Tokiko Giza Garapena izan behar dela jarraitu beharreko garapen eredua; bestetik, Ekonomia Sozial eta Solidarioa izan behar dela garapen eredu honen euskarri izango den paradigma ekonomikoa; eta bukatzeko, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren logika barnebiltzen duten Tokiko Garapen Agentziak tresna egokiak izan daitezkeela Tokiko Giza Garapena sustatzeko.

6. BIBLIOGRAFIA

- BASER, Heather; MORGAN, Peter (2008): *Capacity, Change and Performance. Study Report*. European Centre for Development Policy Management. Discussion Paper 59 B.
- BOSCH, N. (2006); "La distribución del gasto público en las administraciones. Análisis comparado". Garapen (Ed.), *Sostenibilidad en la promoción económica local*. Donostia-San Sebastián: Garapen
- CARRASCO, Cristina; BORDERÍAS, Cristina (1994): "Las mujeres y el trabajo: aproximaciones históricas, sociológicas y económicas". En Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina; Alemany, Carmen (Comp.). *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales*. FUHEM/Icaria. Barcelona, pp. 15-109.
- CORAGGIO, José Luis (2011): *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*. Alberto Acosta eta Esperanza Martínez (Argitaratzaileak). FLACSO/Abya Yala. Quito.
- DUBOIS, Alfonso (2008): *El debate sobre el enfoque de las capacidades: las capacidades colectivas*. Hegoa Institutua.
- DUBOIS, Alfonso (2014): *Tokiko Giza Garapenaren marko teorikoa eta metodologikoa*. Hegoa Institutua.
- GAINZA, Xabier (2009): *Instituciones y territorio: Las Agencias de Desarrollo Local vascas en la promoción económica local*. UPV-EHU
- GARCIA, Jordi (2010): *A crise actual e as respostas da economia solidária; Economía solidaria: sustento y esperanza*.
- GASPER, Des e Irene van STAVEREN (2003) : *Development as Freedom- and as what else? Feminist Economics* ,9 (2-3).
- GURIDI, Luis eta PEREZ, Juan Carlos (2014): *Tokiko Giza Garapenaren dimentsio ekonomikoa*. Hegoa Institutua.
- HARVEY, David (1989a) : *The urban experience*. Baltimore. John Hopkins University Press.
- HIRST, Paul eta Thompson, Simon (1996) ; *Globalization in question*.
- <http://olatukoop.net/>
- JUBETO, Yolanda eta LARRAÑAGA, Mertxe (2013) : *El DHL desde la equidad de género: un proceso de construcción*. Hegoa Institutua
- JUBETO, Yolanda (2011): *Auzolana eta herrigintzaren inguruko begirada ekonomikoa*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU). Eibar.
- KAZEPOV, Yuri (2010): *Rescaling Social Policies towards Multilevel Governance in Europe*. European Centre Vienna.
- LANKI (2004): *Autogestión y globalidad. Situar la autogestión económica en el mundo actual*. Cuadernos de Lanki 1.
- Boletín Oficial del Estado (BOE) Legislación Consolidada. *Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social*.
- MESA, Manuela (2012): *Gobernanza, multilateralismo y ciudadanía global: la sociedad civil y los desafíos mundiales*.

-
- NELSON, Julie A. (2004): "*Freedom, reason and more: feminist economics and human development*". Journal of Human Development, Vol. 5, nº3
 - NUSSBAUM, Martha (2002): *Las mujeres y el desarrollo humano. El enfoque de capacidades*. Herder.
 - NUSSBAUM, Martha (2003): Capabilities as Fundamental Entitlements: Sen and Social Justice. *Feminist Economics*, 9 (2-3).
 - NUSSBAUM, Martha (2012): *Crear capacidades. Propuesta para el desarrollo humano*. Paidós, Barcelona.
 - PÉREZ DE URALDE, Jose Maria; MORANDEIRA, Jon eta BRETOS, Ignacio (2014): *Informe de la situación de la Economía Social Vasca. Años 2013*. OVESS-GEEB
 - PÉREZ OROZCO, Amaia (2004): "Estrategias feministas de deconstrucción del objeto de estudio de la economía". *Foro Interno 4*, 87-117. or. Universidad Complutense.
 - PEREZ, Juan Carlos; ETXEZARRETA, Enekoitz eta GURIDI, Luis (2008): *De que hablamos cuando hablamos de Economía Social y Solidaria: Concepto y nociones afines*. XI Jornadas de economía crítica. XI Jornadas de Economía Crítica, Bilbao.
 - POLANYI, Karl (1989): *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*. Ediciones de La Piqueta. Madrid.
 - REAS, Sareen Sarea (2011): *Ekonomia Solidarioko Printzipioen Gutuna*
 - ROBEYNS, Ingrid (2005): "*The Capability Approach: a theoretical survey*". Journal of Human Development, Vol. 6, nº 1
 - ROBEYNS, Ingrid (2011): *Sen's capability approach and gender inequality: selecting relevant capabilities*. *Feminist economics*.
 - RODRIK, Dani (2011); *The globalisation paradox: Democracy and the future of the world economy*.
 - SEN, Amartya (1990) : "*Gender and comparative conflict*." I. Tinker(ed.) *Persistent inequalities. Women and world development*. Oxford: Oxford University Press
 - SEN, Amartya (2000); *Desarrollo y libertad*. Editorial planeta.
 - SILVA, Ivan (2005): "*Desarrollo económico local y competitividad territorial en América Latina*". CEPAL aldizkaria 85.
 - WOLFF, Jonathan eta DE-SHAILT, Avner (2007): *Disadvantage*. Oxford: Oxford University Press.
 - ZURBANO, Mikel; GAINZA, Xabier eta BIDAURRATZAGA, Eduardo (2014): *Interrelación local-global en los procesos de Desarrollo Humano Local*. Hegoa Institutua.

7. ERANSKINA : Elkarrizketa fitxak

ELKARRIZKETATUEN AURKEZPENAK

Eranskinaren lehen atal honetan analisi enpirikorako elkarrizketatuak izan diren agente ezberdinen aurkezpen labur bat aurkituko dugu.

Beterriko Garapen Integraleko Agentzia

Beterriko agentzia elkarrizketatu ditugun subjektu edo agenteak hurrengoak izan dira:

1. Andoni Egia: Lurralde antolaketan eta garapen sozioekonomikoan interesatua betidanik. Geografian lizentziatu zen Gasteizen, baina Ikasketekin gustura gelditu ez eta Gironara joan zen "*Desarrollo Humano Sostenible, Desarrollo local eta globalización*" masterra egitera. Base teoriko nabarmena jaso zuen bertan, hala ere, praktikoa gutxi. Gironako etapa bukatutzat eman eta Bartzelonara joan zen bizitzera eta ikasketekin jarraitzera. Bertan, "*Planificación territorial y gestión ambiental*" masterra egin zuen. Bartzelonan, ekonomia sozialaren inguruan mugitzen eta pixkanaka mundu horretan sartzen hasi zen. Bartzelonan ezagututako esperientzia desberdinetan oinarri, Euskal Herrira itzuli eta *HIRITIK AT* kooperatiba sortu zuen beste kide batzuekin batera. Behin proiektua martxan jarri zutenean, Buruntzaldeako Garapen Agentzia martxan jartzeko pertsona bat behar zela eta, berarekin jarri ziren kontaktuan lekuko instituzio publikoak eta geroztik Beterriko Garapen Integraleko Agentziako arduraduna da.

2. Tapuntu Kooperatiba: Ofizialki 2015eko ekainaren 22an jaio zen kooperatiba gisa eta Mikel Olaiz Garmendia, Arkaitz Sukuntza Alkorta eta Ainhoa Iribar Lizeagak dira sozioak. Beterriko Garapen Integraleko Agentziako *Kooperatzen* eta *Urberritzen* programetan parte hartu dute, eta lehenengoak, kooperatiba martxan jartzeko balio izan zien. Eskaintzen duten zerbitzua enpresen nortasuna saretzearena da, agentziako co-working espazioan dute egoitza eta www.tapuntu.eus orrialdearen bitartez zabaltzen dute beren zerbitzua. Hau da, proiektu bat sortu duen ,edo sortua duen, edonori bere nortasuna sarean nola hedatu eta bertako presentzia hobetzen laguntzeko zerbitzua eskaintzen dute. Sarean ez egotekotan ere, proiektuaren nortasuna saretu eta aholkularitza eskaintzen dute. 5 negozio linea dituzte orotara: 1) E-marketing; 2)Formazioa pertsonalizatua; 3) Multimedia ;4) Diseinu grafikoa; 5) E-commerce. Momentu honetan egoera sozioekonomiko onean dago kooperatiba eta bertako kideek soldata duinak kobratzeko aukera dutela diote.

3. Lotzen ADD elkarte(Beñar Jauregi): parkourraren jatorrizko filosofia oinarri duen taldea bat da. Elkarte honen sorrera ekarri zuen hazia "Umparkour"-ek, Espainia mailako Pakour sareak, jarri zuen."Umparkour"-ekoak praktikanteen sare bat sortzen hasi ziren

hasiberrientzat eta Beñat Jauregi beraiekin harremanetan jarri eta beraiekin batera entrenatzen hasi zen. Irun inguruan hasi zen entrenatzen eta pixkanaka lagun taldea handitzen eta gorpuzten joan zen. Taldearen norantz eta Parkour-aren egoeraz hausnartzen egon ostean beraien praktika hedatzea ezinbesteko zela ikusi zuten. Hedatze honetan, istripu batzuk egon ziren antolaketa faltagatik eta horren harira elkarte bat sortzea erabaki zuten. DSS2016 inguruan ere, zerbait egin zezaketela pentsatu zuen elkarteak. DSS2016an proiektu bat aurkeztu zuten, baina atzera bota zieten. Hala ere, *Olatutalkan* parte hartu zuten eta kultura urbanoaren inguruko jai batean ere parte hartu behar dute hurrengo hilabeteetan. Tailerrak ematen ere badabiltza azkenaldian herriz-herri. Hasiera batean, 7 pertsona ziren eta gaur egun 9 dira. Irabazi asmoko elkarte bat da. Garapen Agentziaz, bertako ESS programetan (Eraldatzen eta Kooperatzen) parte hartzeko proposamena egin zioten eta Beñat Jauregi animatu zen. Gaur egun, proiektuaren norantzkoaren gainean erabakitzeko hausnarketa prozesu bat egiten hasi dira eta plan estrategikoa eta ekintza plana diseinatzen hasiko dira epe laburrean. Elkarte formalizatu eta indartu nahi dute, baina argi dute izaera juridikoa medio izan behar dela eta ez helburu.

Agència de Desenvolupament del Berguedà

La Berguedako garapen agentzian elkarrizketatu ditugun subjektu edo agenteak hurrengoak dira:

1. Jordi Escudero: 54 urde ditu eta Bartzelonan jaio zen. Lan harremanen inguruko ikasketak egin zituen, zuzenbide alorretik eta bost urtez bulego propioa izan zuen Bartzelonan. Bulegoko lanaz asperturik mendiko gida bezala hasi zen lanean eta urte luzez gida bezala aritu ostean, 2003an, administrazio publikoko postu bat lortu zuen enpresen sorreran aditu bezala. Lanpostu hau lortzen duenean ekonomia sozialaren inguruko jakintzan formatzen hasten da, hainbat kurtso eta bi master -*Gestión y administración de cooperativas* eta *Políticas sociales y mediación comunitaria*- egiten ditu. 2003tik 2013ra arte Consell Comarcalean egon zen lanean La Berguedako eskualdean. 2013an, Bergueda eskualdeko garapen agentzia sortu zen, promozio ekonomiko eta turismoko alorra Berguedako agentziari delegatu zizkion Consell Comarca-ak eta orduan hasi zen Jordi agentzian lanean eta hasiera batetik ekonomia sozialaren filosofia txertatu du agentziaren barnean. Gaur egun, *Agència de Desenvolupament del Berguedà*-ko ekonomia sozialeko programaz arduratzen den teknikoa da.

2. Metall Tecnològic: Kooperatiba sortu aurretik, kide guztiak, metalaren eraldaketan lan egiten zuen Tecnologia Soldevilla izeneko erantzukizun mugatuko enpresa bateko langileak ziren. 2013an enpresak bere jarduna eten eta nagusiek enpresa itxi zuten. Langileek soldatak kobratzea lortu zuten baina ez zuten inongo indemnizazioarik jaso. Eskualdeko lan munduaren egoera ere oso latza zen, langabezi asko zegoen eta ehun enpresarial oso ahula zuen eta du. Egoera ikusirik, Tecnologia Soldevillako kide batzuk bildu eta prekaritate egoerari irtenbide ematea erabaki zuten. 4 izan ziren pausua eman

zutenak eta taldetxo honek jardun bera izango zuen kooperatiba bat sortzea erabaki zuten, nahiz eta ez lehengo produkzioa ez eduki. Ia zerotik hasi ziren, hala ere, lehengo bezero batzuk errekuperatu zituzten eta Berguedako garapen agentziaren laguntza izan zuten. Garapen Agentziak emandako laguntzari esker eta lantaldearen lanari esker azkenik lortu zuten 2014an SCCL Metall Tecnologic martxan jartzea.

3. Kovent Punt Zero (Pep Spelt): Konvent Punt Zero etengabeko eraldaketan bizi den proiektu bat da eta orain dela urte batzuk jarri zuten martxan lagun talde batek, Bergueda eskualdeko Cal Rosal herrian. Konvent Punt Zero, 1992an bertan behera utzitako kolonia zahar bateko komentuan materializatu zen eta hortik dator bere izena. Konbentua kultura eta artea sortzeko espazio zoragarria zela ikusi zuten eta konbentua zaharra berritzen hasi ziren, baina bere oinarrizko egitura eta ezaugarriak mantenduz, horrek baitzuen benetako balorea beraien ustetan. Urteak egon dira espazio atontzen, baina urteak daramatzate dagoeneko fabrika kultural bezala funtzionatzen. Edonolako jarduerak antolatzen dituzte: musika kontzertuak, antzerkiak, moda pasarelak, margo edo artelanen erakusketak...Publikoari zabaldutako aktibitateez gain, artista asko ere, bertara joaten dira inspirazio bila eta artea sortzera. Gainera jatetxe bezala ere funtzionatu du Konvent Punt Zerok. Orain arte asoziazio kultural baten izaera juridikoa izan dute, hala ere, gaur egun jatetxea lekuz aldatu behar izan dute eta kooperatiba bat sortu berri dute aktibitate guztiak kudeatzeko.

ELKARRIZKETA FITXA OSATUAK

1. Esperientzia: Beterriko Garapen Integraleko Agentzia➤ **Andoni Egia**

		Ebaluazioa	Oharrak
AMIA		(bakoitzetik pare bat gehienez)	
TGAetatik sustatuko ESSko programek zein...	Aukera	- Sistema sozioekonomiko eta politiko berri baten ernamuina izan daiteken hazia da ESS. Sortzen diren proiektu txiki berriak etorkizuneko eredu sozioekonomikoaren "aurrefiguratioak" izan daitezke. - Nazio eraikuntza indartzea, autoeraketa sozioekonomikoarekin elkartuz, EH gorri, berde eta more bat(independiente, sozialista eta feminista) soziala sortzera bidean.	
	Mehatxu	- "Minoritasuna". Esperientzia gutxi egoteak, eredu sozioekonomikoan eragiteko ahalmena asko murrizten du. Esperientzia hauek irrelebanteak izateko arriskua, eragin sozial murrizta. Ur tanta solidario bat ozeanoan. - Hizkuntza eta politizazio mailarekiko zalantzak. "Panfletero" baten moduan gelditzeko arriskua. ESSaren sustapena, "politikoa" izateko arriskua eta jendeak "betikoak" direla pentsa eta muzin egiteko mehatxua. Hala ere, mehatxua kontraesankorra da, izan ere, TGGak duen sakontasun politikoa ez dut uste ezkutatu behar denik.	
	Indargune	- Magma edo sustrato eraldatzaileentzat tresna bat izatea. Alternatiba praktikoak sortzeko aukera eskaini norbanako anitzei(zaharrei, migranteei, gazteei...). Krisiak sortu dituen kontraesanak gainditzeko tresna. - Guretzako "politikoa" den hori, jendearen behar sozialak asetzera doa. Pertsonen beraien behar pertsonal eta kolektiboak asetzeko auto-eraketaren bidea erakusten diegu. Beharraren "despolitizazioa" da bilatzen dena eta politika baliabide bihurtzea lortu behar da. Beharra duenak ez du politika ikusten.	
	Ahulezi	- Termino kapitalisten garatzen diren proiektu alternatiboek daukaten gabezia estrukturala mundu kapitalista batean. - Proiektu alternatiboan bideragarritasun ekonomiko bermatzeko zailtasunak. - Diskurtsoa zabaltzeko gaitasun komunikatibo-politikoaren gabezia. Diskurtsoa zabaltzeko zailtasunak.	
Gaitasun zentralak		(1-5)	
1. Bizitza eta osasun fisikoa		3	
2. Ongizatea eta osasun mentala		4	
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa		3	
4. Harreman sozialak		5	
5. Ahalduntze politikoa		4	

7. Eranskina: Elkarrizketa fitxak

6. Hezkuntza eta jakintza	5	
7. Etxeko lana eta zaintza lana	3	Behar sozialak identifikatzeko eskualdeko diagnostikoa egin. Esklusio sozial egoeran daudenen behar sozialak asetzeko. Eskualdeko zaintza beharrak asetzeko proiektu bat dago.
8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak	4	
9. Etxebizitza eta ingurumena	3	
10. Mugikortasuna	1	
11. Aisialdi ekimenak	2	
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena	5	
13. Errespetua	5	
14. Erljioa	2	
Gaitasun kolektiboak		
1. Konpromisoa eta erakarpina	4	
2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea	4	
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea	5	
4. Egokitzea eta berritzea	4	
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea	5	Proiektu danekin ados denak. Momentuz koherentzia mantendu da.
Galdera orokorrak		
ESSoak ahalduntze pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?	Bai. Pertsona jartzen du zentroan, bakoitzak bere kabuz erabakitzen du parte hartu edo ez, eta egiteak ahalduntzea dakar. Autoeraketa konstante da eta ahalduntze pertsonala eta kolektiboa(komunitatean egiten delako) dakar. Agenteen arteko kooperazioa du oinarri eta kooperazioak heldutze politiko-ekonomiko-sozial kolektiboa dakar. Zeozer egiten badu ESEK da, ahalduntze pertsonal eta kolektiboa, alinazioarekin apurtzea lortzen du. Estatu sozialista batek , esaterako, ez du hori bermatzen, ez du alineazioarekin puskatzen.	
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?	Izan daitezke, ez dakit diren edo ez diren. Gaur egun , instituzio publiko guztiak bezala badira ez behintzat. Hala ere, noizbait TGG jasangarria egon behar bada eta instituzioetatik bideratu edo bultzatu behar bada, bai tresna egokiak dira. TGAK langileek eta auzoak kontrolatuta baldin badaude garatuko da benetako TGG.	
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue territorioaren garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?	Bata bestea gabe ezin da ulertu, batera joan behar dira. Harreman kausala da. Gobernantza ereduari dago klabea. Gaur egun gobernatza ulertzen den moduan, mugatua dauka garapen endogenoa eta territorioaren garapena. Egungo gobernantza eredu(a)liantza publiko eta pribatua) kapitalismoa birproduitzeko tresna da. Publiko-politiko-ekonomiko- soziala izan behar da aliantza. 4 zutabe hauek badaude,soilik bermatuko da territorioaren TGG eta komunitatearen beharrak aseko dituen ekonomia bat martxan jartzea.	

➤ Tapuntu kooperatiba

AMIA		Ebaluazioa	Oharrak
		(bakoitzetik pare bat gehienez)	
TGAetatik sustatuko ESSko programek zein...	Aukera	<ul style="list-style-type: none"> - Coworking espazioa, jangela...proiektua martxan jartzeko espazio fisikoa. (kooperatzen) -Formazioa. (kooperatzen) -Aholkularitza, tutoretza(kooperatzen) - Eusko Jaurlaritzak kooperatiben gaineko aholkularitza (<i>Elkarlan</i>) eskaintzea urte batean. - Eskualdeko beste enpresa batzuekin harremanak egiteko aukera, sarearen parte izan, elkarlana. Denok irabazi(urberritzen programa) 	
	Mehatxu	<ul style="list-style-type: none"> - kooperatiba izateak errealitatean zailtasun gehiago. Arazo gehiago sortzen dituen izaera juridikoa da. Zailtasunak merkatuan. - Elkarlanaren edo kooperazioaren filosofia merkatuan harremandutako enpresa batzuekin garatzeko zailtasunak. Denek ez dute berdin ulertzen elkarlana, lehiakortasunaren hegemonia dago merkatuan. 	
	Indargune	<ul style="list-style-type: none"> - Sare baten barne egotea hasieratik .Sarearen indarra. Beti norbait laguntzeko prest. - Lanerako eta elkarlanerako espazioa ederra. - Instituzio publiko konbentzionaletan gure iritzi eta beharrei kasu askorik ez. Kasu honetan, gure iritziak eta beharrak kontuan hartzen dira. Burokrazia gutxiago eta familia giroa. -Hierarkiarik ez, maila berean denok. 	
	Ahulezi	<ul style="list-style-type: none"> - Hasieran ESE filosofia ulertzeko zailtasunak. Kosta filosofia ulertuta, jendea galduta. Jendea atzera botatzeko arriskua, diskurtsoak beldurtu. Pedagogia falta. - TGA hasi berria denez, diru laguntza gutxi, inbertsio sozialerako baliabide falta. -TGAK izaera juridikoaren finkoa ez izateak dakartzan arazoak. Prozesuak luzatu eta atzerapen asko. Forma juridikoa ezinbestekoa da martxan hasteko, akordioak sinatzeko... Botere politikoaren kondizionamendua nabaria da. 	
Gaitasun zentralak		(1-5)	
1. Bizitza eta osasun fisikoa		5	
2. Ongizatea eta osasun mentala		5	
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa		5	Lan merkatuak autoestima jaitsi, burumakur...orain segurtasun gehiago norbere buruarengan.
4. Harreman sozialak		5	Gaitasun sozialak garatzen lagundu digu.
5. Ahalduntze politikoa		5	
6. Hezkuntza eta jakintza		2/3	
7. Etxeko lana eta zaintza lana		4	-Ostiraletan zaintza ordua egiten dugu, aste osoko burukominak askatu eta talde saneamendua egiteko.

7. Eranskina: Elkarrizketa fitxak

		-Bizitza zentroan. Gure beharren arabera proiektu bat sortu dugu.
8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak	5	Hiruak berdina kobratzen dugu eta soldata duina da.
9. Etxebizitza eta ingurumena	5	Etxebizitzaren gainean erabakitzeo aukera eman errentak.
10. Mugikortasuna	4	Iraupen luzeko mugikortasuna izan daiteke arazoa baina bestela arazorik ez.
11. Aisialdi ekimenak	5	Lankideen artean ere aisialdi ekimenak burutzen ditugu. 3 hilabetero aisialdi irteera bat.(Tapuntu soziala)
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena	5	
13. Errespetua	5	- Asko ezagutzen gara. Momenturen batean gaiizki hitz egin ezker segituan adiskidetzen gara. -Zaintza momentua. Karga emozionala askatzeko.
14. Erljioa	3	- Erljio askatasuna oinarritzkoa da, ez da gaia lantzeko beharrik izan.
Gaitasun kolektiboak		
1. Konpromisoa eta erakarpina	2	-Aurretik boluntarioki gauza askotan parte hartu. Parte hartze eta konpromiso asko . -Aurretik geneukan parte hartze eta konpromiso gaitasun hori kooperatiban txertatu dugu, baina TGAtik ez dugu hori bereziki landu.
2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea	5	-Akatsetatik ikasi eta hobetu. -Hasieran baino funtzionalagoak gara orain.
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea	5	- Denean ez gara expertuak, laguntza eskatzen dugu behar dugunerako. -Elkarlana erabili. Zuk laguntza eskaini eta nik nire denbora eta ezagutza emango dizut, trukea.
4. Egokitzea eta berritzea	5	-Autoformazioa(3 kideetatik bat joaten bada formakuntza batera, besteei helarazi.) - Ezinegona beti, zerbait sortzen egon behar gara etengabe. Sorkuntza etengabea.
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea	4	- Adostasuna bilatu beti. -Batuetan eztabaidak bai, baina ez dira arazo.
Galdera orokorrak		
ESSk ahalduzte pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?		-Gutziz. Ekintzailetasunarekin tranpa handia egin da azken urteetan. Beste agentzia batzuek ekintzailetasuna "por que si" bultzatu dute eta hori ezin da izan bidea. Agian ez dago enpresa bat sortzeko beharra edo gaitasuna. (1.kidea) -Bai. Gu gara gure arduradunak, gu gara gure proiektuaren norantz arduratzen garenak.(2.kidea)

7. Eranskina: Elkarrizketa fitxak

	<ul style="list-style-type: none"> - Beharren arabera sortu behar dira proiektuak eta beti ez da zertan zerbait sortu behar baina(1.kidea). -Erabakiak guk geuk hartu.Aukera guztiak aztertu eta erabakiak guk. (3.kidea) 	
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?	<ul style="list-style-type: none"> -Bai oso egokia, baina tresna gisa hobetzea falta zaio. Asko dago hobetzeko, gauzak hobeto egin daitezke. (1.kidea) -Botere politikoaren kondizionamendua nabaria da(2.kidea) - Forma juridikoak arazo handiak sortzen ditu eta atzerapen asko sortzen ditu honek, baina asmoa edo norantza egokia da.(1.kidea) 	
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue territorioaren garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?	<ul style="list-style-type: none"> -Bai guztiz. (3 kideak batera) -Eskualde mailako instituzio bat sortzeko edo arazoak izan dira pentsatu. Gobernantza deslokalizatu behar da, beharren arabera ekonomia bat garatu ahal izateko. (1.kidea) 	

➤ Lotzen ADD Elkarte

		Ebaluazioa	Oharrak
AMIA		(bakoitzetik pare bat gehienez)	
TGAetatik sustatuko ESSko programek zein...	Aukera	<ul style="list-style-type: none"> - Lur hartzen lagundu zigun, euskarri bat eman. Bakarrik ez gaudela erakutsi eta errealitatea ezagutzen lagundu. Nondik hasi ikusten lagundu, blokeoak gainditu behar izan dugun ezagutza eman. - Aholkularitza, laguntza eta babes. -Sarean lan egiteko aukera, elkarlana. Elkar nola elikatu pentsatzen lagundu. 	
	Mehatxu	<ul style="list-style-type: none"> - Jendea programetan parte hartzeko pausua ematea kostatzen da, jendea beste "txip" batean dago. ESE izen potoloegia da askorentzat, beldurtu edo atzera botateko arriskua dago. 	Taldeko bakarra naiz programetan parte hartu duena.
	Indargune	<ul style="list-style-type: none"> -Sarean oinarritzea garapena. Saretzea eta elkarlana oinarri. - Ezagutza teorikoaz gain, ezagutza edo formazioa praktikoa oso positibo baloratu. Martxan dauden esperientziak ezagutu. - ESE oinarri izatea eta praktikan posible dela erakustea. Ez da utopia errealitatea da. 	
	Ahulezi	<ul style="list-style-type: none"> - Elkartarekiko zubi lana egin beharra. Kide guztiak ez egotean TGA programan(kooperatzen), zaila da informazioa transmititzea. Ez da berdina - Egutegiarekin gorabehera asko. koordinazio falta pixkat. - Esperientzien aniztasun falta. Parkourrekoak "arraro" gisa ikusi. Esparru produktibotik haratago daude proiektuentzako erreferentziak falta. 	
Gaitasun zentralak		(1-5)	
1. Bizitza eta osasun fisikoa		3	
2. Ongizatea eta osasun mentala		3	
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa		4	
4. Harreman sozialak		4	
5. Ahalduntze politikoa		1	
6. Hezkuntza eta jakintza		5	
7. Etxeko lana eta zaintza lana		1	Kooperatibak sortzen dauden kideei lagundu ahal die.

7. Eranskina: Elkarrizketa fitxak

8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak	4	Proiektua tresnak edo baliabideak eman.
9. Etxebizitza eta ingurumena	1	
10. Mugikortasuna	1	
11. Aisialdi ekimenak	1	
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena	4	Bizitza erdigunean jartzearen beharraren hazia jarri barnean.
13. Errespetua	4	Parkourrak berak sustatzen du errespetuaren filosofia.
14. Erljioa	1	Erljio askatasuna
Gaitasun kolektiboak		
1. Konpromisoa eta erakarpena	4	Elkartea ez da itxia, baina ez da guztiz zabala ere. Parkourra taldeka (crew, talde...) antolatzen da baina helburua ez da hori izan. Komunitatea indartzea bilatu dugu.
2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea	5	-Funtzionalitatea hobetzea etengabeko prozesu bat da. -Erabaki txikiena ere hasieran denen artean erabaki, baina orain beste era batera kudeatu. Funtzioak edo rolak banatzeko asmoa, funtzionamendua hobetze aldera. Denon artean, baina bakoitza gauza batekin arduratu.
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea	4	Praktikan ez dugu jarri oraindik, baina horren beharraren kontzientzia hartu bai.
4. Egokitzea eta berritzea	4	
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea	5	Konpromiso eta errealitate ezberdinak uztartzen asmatu.
Galdera orokorrak		
ESSoak ahalduzte pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?		Bai. Bizitza jartzen duelako erdigunean ekonomi jardunean. Bizitzako esparru desberdinak (biziraupena, zaintza, osasuna...) kontuan hartzen ditu. Ekonomia konbentzionalen produkzioa eta kapitala jartzen da erdigunean eta beste dena azpian usten da. Norberari, norbere bizitzaren gainean erabakitze ahalmena emateak ahalduztea dakar.
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?		-Bai. Baina esparru produktibora mugatzen dela uste dut, bestelako proiektuak sortzeko ez dakit balioko tresna den. Martxan jartzen diren proiektuak sektore konkretu batzuetara bideratzen dira agentzietan. - Hala ere, goragoko instituzio edo agenteek baldintzatzen dute jarduna edo norantza eta hor dago arazoa. Garapen" kontraesankorra" bultzatzen da. Industria bultzatzeak esaterako, kontsumoa bultzatzen du eta ingurumena ez du zaintzen. Kasu askotan, sortzen diren proiektuak ESEko printzipioekin ez datoz bat.
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue territorioaren garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?		-Bai. Teorikoki bai, logika aldetik bai. Bertakoak jakingo du hobeto zein behar dauden eta behar horrek asetzeko zer egin behar den. Logika "aplastantea" da.

2. Esperientzia: Agència de Desenvolupament del Berguedà

➤ Jordi Escudero

		Ebaluazioa	Oharrak
AMIA			
Los programas de ESS promocionados por las ADL que...	Aukerak	<ul style="list-style-type: none"> - Agenziatik Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeak eskualdeko ekonomiaren esparru zabal bat lantzeko aukera ematen du. Eskualdeko ehun enpresarial ahulak, ehun kooperatibo indartsu berri bat sortzeko aukera ematen du. Dena dago egiteko. - Aukera politikoa. Egun lurraldean boterean dauden politikariak ESS diskurtsoa dute eta horrek asko erraztu dezake bidea. 	- Historikoki, eskualdeak garapen endogenoaren kontrako garapen eredu bat sustatu du, kanpoko enpresa handiak erakarri eta beraiek bertako errekurtsuak eta lurra esplotatzea bilatu baita.
	Mehatxuak	<ul style="list-style-type: none"> - Gobernantza mailen arteko baldintzatasuna. Administrazio publikoaren azken legeak agentziari aterki legal bat izatera behartzen dio eta aterki hori <i>Consell Comarcal</i>-a da. Beraz, bertatik baldintza daitezke eta baldintzatzen dira agentziako ekinbide ezberdinak. -Proiektuek duten diru laguntza publikoen menpekotasuna (Bartzelonako diputazioa, Consell Comarcal, gobernua...). Diru laguntzak proiektuak doaz eta laguntzarik ez badago ez dago beste finantzazio iturririk proiektuentzat.Ez dago fondo propiorik. Gainera,burokrazia geldoa eta astuna da. - Proiektu bat promozionatzen denean, beti ez da diru laguntza heltzen. Ondorioz, proiektua ezerezean gelditzen da eta "kea saldu" duzularen sententzia gelditzen da. Honek frustrazio asko sortzen du. -Eskualdearen demografia. Oso biztanleria zaharkitua du(pentsioa kobratzen dagoen jende asko) eta gazte gehienak ihes egiten dute. Parte hartze herritar oso urria. 	
	Indarguneak	<ul style="list-style-type: none"> -Egitura. Udalerri guztiak daude agentziaren barne, lurraldetasun adostua. (<i>Ambito territorial consensuado</i>). - Errekurtsu tekniko eta humano(langile kualifikatuak) onak. - ESSaren sustapen eta formazio lan handia. Esaterako, Ikastetxeetan ESSaren gaineko formazio praktikoa jasotzen dute. Horrez gain, kooperatibismoaren gaineko formazioak ere ematen dituzte. - Garapen Agentziatik garatzen ari diren lerro estrategikoek potentzialitate handia dute ESSarentzat. Hiru lerro dira potentzialak: Sektore agroalimentarioaren sustapena, energia berriztagarriak(biomasa planta, autohorniketa lokala...), zerbitzu eta asistentzia sektorea. -Oinarri soziala. 560 asoziazio ditu gutxi gorabehera eskualdeak, oinarri sozial asoziatua du. 	
	Ahuleziak	<ul style="list-style-type: none"> - Agentziaren kudeaketa eta antolaketa. Agentziaren sorrera berritzailea izan zen, baina funtzionatzeko modu nahiko liberala edo ortodoxoa du. Organigrama oso bertikala, 26 langile eta 11 arduradun.Antolaketa eredu zaharkitua erreproduzitzen ari da. - ESSaren mugimendua indartzeko aukerak galdu dira agentziatik. ESS programa batzuk(coworking espazioa esaterako) martxan jarri ziren, baina ez 	

7. Eranskina: Elkarrizketa fitxak

		zen euren potentzialitatea esplotatu, ez zen lehentasunezko jarri. -Inbertsio publikoaren erretornu soziala neurgailua martxan jartzea falta. (adib. 1€ inbertitu> 4€ sortu).	
Gaitasun zentralak		(1-5)	
1. Bizitza eta osasun fisikoa		3	
2. Ongizatea eta osasun mentala		3	
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa		4	
4. Harreman sozialak		4	
5. Ahalduzko politikoa		2	
6. Hezkuntza eta jakintza		4	
7. Etxeko lana eta zaintza lana		2	Gaia lantzen hasi da, baina ezer gutxi egin da esparru honetan.
8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak		3	
9. Etxebizitza eta ingurumena		2	Ez da eskualdeko problematika esaguratsu bat, ondorioz, ez da ia lanketarik egin.
10. Mugikortasuna		1	
11. Aisialdi ekimenak		2	
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena		4	
13. Errespetua		4	Kooperatibak sortzen hastean, "txip aldaketa beharrezkoa dela argi esaten da agentzietatik. Funtzionatzeko eta harremantzeko filosofia aldatu behar dela argi.
14. Erljioa		2	
Gaitasun kolektiboak			
1. Konpromisoa eta erakarpeta		2	ESSaren inguruan jendea biltzeko gaitasuna ez da hobetu.
2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea		4	Gaitasun hau nahiko garatu da agentzietatik. Zerbitzu eta laguntza asko ematen dira.
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea		3	Gehiago egin daiteke.
4. Egokitzea eta berritzea		5	Botere politikoaren aldaketeei egokitzeko gaitasun handia.
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea		2	Agentziaren barnean ezadostasun asko daude eta ez dira oso ongi kudeatzen.
Galdera orokorrak			
ESSoak ahalduzko pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?		Bai noski. Norbanakoak ahalduzko baititu kolektiboa oinarri izanik.	
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?		Bai, baina ez da tresnaren formatua garrantzia duena, edukia baino. Tresna egokia eduki (funtzionamendua, programak, garapen eredu...) egokiak dituen izango da.	
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue		Ezinbestekoak dira. Gainera, Berguedako eskualdeari garapen exogenoak ekarri diona	

<p>territorioaren garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?</p>	<p>ikusirik, are eta gehiago. Eskualdearen garapena endogenoa izan behar da edo ez da izango. Garapen endogeno jasangarri bat izateko beharrezkoa da gobernantza lokalaren gaitasuna indartzea eta goragoko organoetara delegatutako eskumenak berrartzea.</p>	
--	--	--

➤ Metall Tecnologic

		Ebaluazioa	Oharrak
AMIA		(bakoitzetik pare bat gehienez)	
TGAetatik sustatuko ESSko programek zein...	Aukera	- Kooperatiba sortzeko aholkularitza eta laguntza. - Finantzazioa lortzen lagundu. <i>Coop57</i> rekin lortu finantzazioa.	
	Mehatxu	-	
	Indargune	-Porrot egindako enpresak langileen partetik berreskuratzeko ahalegina egiten ari da agentzia. Enpresetatik kaleratutako jendearentzat languntzak ematen ditu, beraien enpresa (kooperatiba ahal dela) berriro eratu ahal izateko. - Formakuntza: Eskoletatik hasi dira gai hau lantzen. Eskoletan taldeka bildu eta kooperatiba "abstraktoak" sortzen dituzte, produktua erabaki...Urte osoan zehar mantendu behar dute aktibitatea eta urte amaieran azoka batean beraien produktua saldu behar dute. Irakaskuntza tradizionala aldatzen doa, formakuntza praktikoa da eskaintzen diena. Iksitako praktikan jartzen dute kolektiboki.	Agenciatik bideratu gauza hauek.
	Ahulezi	- Tokiko garapena sustatzeko espazio edo foro baten gabezia. ESSko enpresen sarea falta da, arrazoi nagusia agian, enpresa gutxi egotea izan daiteke. Hala ere, foro edo espazio honek kooperazioan oinarritutako harremanak sortzeko balioko luke eta eskualdeko ekonomia sustatzen lagunduko luke. -Garapen endogenoa sustatzeko gaitasun falta. Administrazio lokalen aldetik, diru publikoa ez da ekonomia lokala bultzatzeko erabili. Esaterako, obra publikoen adjudikazioak edota zerbitzu publikoen horniketeta.	Eskualdeko bezero bat ere ez du kooperatibak.
Gaitasun zentralak		(1-5)	
1. Bititza eta osasun fisikoa		4	

7. Eranskina: Elkarrizketa fitxak

2. Ongizatea eta osasun mentala	3	Gauza positiboak bai, baina burukominak ere bai.
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa	4	Nagusirik ez edukitzeak norbere buruaren gaineko segurtasuna lortzen lagundu.
4. Harreman sozialak	3	
5. Ahalduzko politikoa	5	
6. Hezkuntza eta jakintza	5	
7. Etxeko lana eta zaintza lana	3	Zaintzarako denbora hartzen usten da.
8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak	4	
9. Etxebizitza eta ingurumena	1	
10. Mugikortasuna	1	
11. Aisialdi ekimenak	1	Lan orduetatik kanpo ere lan egin beharrak ez du aisialdirako denbora asko usten. (Enpresa berria, sektore lehiakorra...)
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena	3	Denboraren erabilerari dagokionez malgutasuna badago, baina lan asko dagoenez asko kostatzen da.
13. Errespetua	4	Lehen gerentea zenak, orain boterea ez duela ikasi behar izan du eta langilean boterea dutela ikasi. Dialektika horretan elkarren arteko errespetuan aurreratzen joan gara. Balantza orekatu behar izan dugu, batzuk botere hartu eta besteak deseraiki.
14. Erljioa	1	
Gaitasun kolektiboak		
1. Konpromisoa eta erakarpena	5	Konpromiso handia hartu dugu denok enpresa bat berreskuratzean
2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea	5	Asko hobetu dugu funtzionamendua eta zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna.
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea	3	Batzuk beste batzuek baino gehiago. Batzuk duten jakintza handiak, funtzio hau berari delegatzea ekarri du.
4. Egokitzea eta berritzea	4	Denbora faltagatik ez digu nahi bezain beste berritzen utzi, baina horretan gabiltza.
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea	3	Eztabaidak egoten dira. Batez ere, gauzak ez direnean ongi irtetzen.
Galdera orokorrak		
ESSoak ahalduzko pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?	Bai. Erabakitze ahalmenak, ideia bat eduki eta garatzeko aukerak, erabakietan eragiteko gaitasunak... pertsona bezala hobetu eta ahalduzko zaitu.	
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?	Bai, hala ere, asko dago hobetzeko. Ezjakintasun handia dago herritarren artean eta agentziek asko hobetu dezakete beraien lana. Berguedako eskualdean hezkuntzatik hasi dira lanketak egiten eta honek egoera iraultzen lagun dezake eta garapen agentzia tresna erabilgarri gisa ikusten hasi daitezke belaunaldi berriak.	
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue territorioaren	-Horrela izan beharko zen, noski baietz. Territoriokoek, bertako beharrak asetzeko jarduerak eraman behar dituzte aurrera, instituzio lokalen laguntzarekin.	- Horrela izan beharko zen baina ez da. Adibide argia: "Txapazkoak", zaborrontziak jarri ziren eskualde osoan eta bertako enpresari (Metal TEcnologic kasu honetan) eman

garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?		beharrean kontratua kanpoko enpresa bati eman zitzaion.
--	--	---

➤ **KonventPunt Zero**

		Ebaluazioa	Oharrak
AMIA		(bakoitzetik pare bat gehienez)	
TGAetatik sustatuko ESSko programek zein...	Aukera	-	Bakoitzak bilatzen ditu bere aukerak.
	Mehatxu	- Kooperatibak gehiegi estigmatizatuta daude. Ez da "bandera" kontu bat, kooperatiba bat izan edo sozietate anonimo bat izan, ez da izaera juridikoa garrantzitsuena.	
	Indargune	- Laguntza teorikoa eta aholkularitza. Jarraitu beharreko pausuak azaldu kooperatiba bat sortzeko.	-Agentziako arduradunak kooperatiba express bat sortzen lagundu zigun, inplikazioa handia
	Ahulezi	-	
Gaitasun zentralak			
1. Bizitza eta osasun fisikoa		1	
2. Ongizatea eta osasun mentala		1	
3. Osotasun eta segurtasun fisikoa		1	
4. Harreman sozialak		3	
5. Ahaldu politikoak		3	
6. Hezkuntza eta jakintza		3	
7. Etxeko lana eta zaintza lana		1	
8. Lan ordaindua eta bestelako proiektuak		2	
9. Etxebizitza eta ingurumena		1	
10. Mugikortasuna		1	
11. Aisialdi ekimenak		1	
12. Denboraren erabileraren gaineko erabakitze ahalmena		3	
13. Errespetua		4	
14. Erljioa		1	
Gaitasun kolektiboak			
1. Konpromisoa eta erakarpena		4	

2. Funtzio logistikoak betetzea eta zerbitzu eta teknikak eskaintzea	4	
3. Harremanak edukitzea eta laguntza eta baliabideak lortzea	3	
4. Egokitzea eta berritzea	4	
5. Koherentzia eta aniztasuna orekatzea	4	
Galdera orokorrak		
ESSoak ahalduntze pertsonal eta kolektiboan eragiten duela uste duzu? Zergatik?	Ez du zertan. Kooperatibak oraindik ez daude oso ongi ikusiak eta gehiegi estigmatizatuta daude. Ahalduntze faltsu bat sor dezakete kooperatibek.	
Tokiko Garapen Agentziak Tokiko Giza Garapena sustatzeko tresna egokiak direla uste duzu/e?	Bai, nahiz eta asko hobetu daitekeen.	
Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak direla uste duzue territorioaren garapena eta ongizate pertson-kolektiboa sustatu eta indartzeko?	Bai. Garapen endogenoa eta gobernantza lokala beharrezkoak dira. Eskualdean gertatu den "fuga de capitales" ostean, naturalki ari da garapen endogenoa aurrera eramaten, enpresak berreskuratuz eta berriak sortuz.	